

# 20 URTE ZUEKIN. goiena



## JOSTAILUAK DENENDA KO

Egoera zaugarrian dauden 278 umeri banatu dizkie jostailuak Debagoieneko Gurutze Gorriak, Gabonetan inor opari barik gera ez dadin / 3

Debagoieneko Gurutze Gorriak Elorregin duen egoitzan bildutako opariak banatzen ibili dira boluntarioak oraingo astean, egoera zaugarrian daudenei. XABIER URZELAI

## Iragarritako dirulaguntzak nahikoak ez direla diote ostalariek

Arrasaten elkartu dira eskualdeko ostalariak, bereziki itxita dauden herrietakoak, egoera larriaz ohartarazteko / 2



Arrasaten atzo egindako ostalarien elkarretaratzea. TXOMIN MADINA

"Likidezia arazoari aurre egiteko laguntzak" iragarri ditu SPRIko zuzendari Aitor Urzelaik / 5

### SINADURAK



GOTZON IPARRAGIRRE / 10



HORAZIO ARGARATE / 29



AINTZANE OIARBIDE / 40

**GABONAK**  
HURRENGO ALDIZKARIA:  
'2020 URTEKARIA':  
abenduaren 30ean.  
**GOIENA** aldizkaria:  
urtarrilaren 8an.

'PUNTUA':  
urtarrilaren **15ean**.  
Gaur eta urtarrilaren 8an  
ez da banatuko.

**puntua**

Urte  
berri  
on!

**Maialen Santos** ARRASATE

Pfizer eta BioNTech konpainiek COVID-19ari aurre egiteko garatu duten txertoa merkaturatzeko baimena eman zuen astelehenean Europako Batzordeak. Batzordeko presidente Ursula von der Leyen-ek azaldu zuen pandemiaren aurkako "urrats garrantzitsua" egin zela baimen haren bitartez. Aurrez, Sendagaien Europako Agentziaren onespenez ere jaso zuen txertoak.

Gauzak horrela, txertoaren lehen dosiak domekan hasiko dira banatzen Europako Bata-suneko herrialdeetan, eta hurrengo egunean ekingo diete txertaketa kanpainei. Horren harira, Eusko Jaurlaritzako Gotzone Sagardui Osasun sailburuak astelehenean azaldu zuen oraindik ez dakitela noiz iritsiko den txertoa EAera, "ez eta zenbat dosi iritsiko diren ere".

Hiru fasetan eramango dute aurrera kanpaina. Adinekoen egoitzetako pertsonak eta osasun langileak izango dira txertoa hartzen lehenak, eta Arrasateko Iturbide egoitzako Olatz Etxabe zuzendariak azaldu du urtarri-leko lehen astean "aurreikusten" dutela txertoa hartzea, Osasun Sailak hala jakinarazi dielako. Bigarren fasean, martxotik uztaile, arrisku taldeetako pertsonen edota 64 urtetik gorako txanda izango da. Ekainetik aurrera, berriz, gainontzeko herritarren txanda izango da.


**KUTSATU BERRIAK**

## AZKEN EGUNETAN 153 DEBAGOIENDAR KUTSATU DITU COVID-19 GAITZAK

Joan den egunetik astelehen honetara arte, 153 koronabirus kasu baieztatu dituzte eskualdean, aurreko egunetik eguaztenera arte baino 84 gutxiago (-237 ziren-). Arrasaten baieztatu dituzte erdiak baino gehiago: 94. Herri horretan baheketak egin dute azken egun hauetan. 6 urtetik gorako arrasatear eta aramaiar guztiak deitu zituzten proba egitera, 24.000 lagun inguru. Abenduaren 14tik 18ra bitarte egitekoak ziren baheketak masiboa -ordura arte, 17.136k egin zuten proba-, baina aste honetako astelehen eta martitzenera luzatu zuten hori. Eta datozen egunetan emango dituzte aditzera emaitzak.

## Bailarako herrien intzidentzia tasa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA



# Positiboak beheranzko joeran, eta txertoaren zain zaharren egoitzetan

Domeka honetan hasiko dituzte koronabirusaren aurkako txertaketa-kanpainak, baina Gotzone Sagardui Osasun sailburuak azaldu du ez dakiela noiz iritsiko den txertoa EAera. Azken egunetan, 153 kutsatu berri izan dira bailaran; horietako 94, Arrasaten

Bestetik, azpimarratzekoa da asteleheneko probek bederatzikutsatu baieztatu dituztela bailaran, urriaren 8tik erregistratutako kopuru txikiena. Horretaz gain, Osasun Sailaren semaforoaren sisteman laranja margotuta daude Oñati eta Bergara, eta gorritz Arrasate eta Aretxabaleta. Eskoriatzako intzidentzia-tasak behera egin du azken egunetan eta 500etik behera kokatu da martitzenean. Hori horrela, eguneko txostenak zehaztuko du tabernak ireki ahal izango ote dituzten.

Debagoieneko Ospitaleari dagokionez, atzora arte, bederatzikutsatu pertsona daude COVID-19 gaitzaren ondorioz ingresatuta.

Gabonei begira ezarritako neurriak aztertze, atzo arratsaldean bildu zen LABI Aholku Batzordea. GOIENA aldizkari

hau ixterako, ez zegoen bilerak emandakoaren berri.

## ADINEKOEN EGOITZAK 68 EGOILIAR DAUDE KUTSATUTA ARETXABALETAKO GSR DEBAGOIENAN

Gipuzkoako Foru Aldundiak aditzera emandako datuen arabera, astelehenera arte, 68 kutsatu daude Aretxabaletako GSR Debagoiena adinekoen egoitzan. Egubakoitzean, gainera, pertsona bat hil zen koronabirusak jota. Guztira, egoiliarrentzako 170 plaza dituzte, eta une honetan 155 inguru daude beteta. Bestetik, kutsatutako langileak aurreko astean baino bost gehiago dira astelehenean: 29. Horretaz gain, joan den domekan,

pandemiako lehen kutsatua hauteman zuten Oñatiko San Martin egoitzan, eta Jose Aranan dagoeneko ez dago kutsaturik.

## OSTALARIAK PROTESTAN ZENBAIT UDALEK DIRULAGUNTZA ZUZENAK EMANGO DIZKIETE OSTALARIEI

Herri ezberdinetako ostalariak, Debagoieneko Ostalariak, atzo batu ziren Arrasaten, sektoreak bizi duen egoera salatzeko. Horretaz gain, egubakoitzean elkarretaratzea egin zuten Eskoriatzako ostalariak, eta laguntza eraginkorrak eskatu, "hilzorian" dagoen sektorearentzat. Aretxabaletan astelehenean batu ziren, bizi duten "egoera larria" dela-eta erreskatea eskatzeko.

## Positibo kasuak

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak mila biztanleko
Arrasate	94	117	1.976	89,58
Aretxabaleta	17	39	388	54,66
Oñati	15	20	557	49,05
Bergara	14	42	1.022	68,12
Eskoriatza	7	9	210	51,66
Antzuola	3	2	146	66,33
Aramaio	2	6	74	49,14
Elgeta	1	1	48	42,14
Gatzaga	0	1	4	16,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>153</b>	<b>237</b>	<b>4.425</b>	<b>68,42</b>

OHARRA: ASTELEHENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

Protesten harira, Debagoieneko zenbait udalek dirulaguntza zuzenak onartu dituzte ostalarientzako. Eskoriatzako Udalak, esaterako, beste 30.000 euro bideratuko ditu. Batetik, egoitza soziala herrian duten ostalaritza-establezimenduek 500 eurorainoko laguntza jaso ahal izango dute, eta, bestetik, laguntza emango zaie negozioaren titularrei edo autonomoei eta itxiera-datan kontratatutako langileei, lanik egiten ez duten egunegatik. Bestetik, Aretxabaletan 60.000 euro bideratuko dituzte ostalaritzara: zehazki, 300 euro emango zaizkio establezimendu bakoitzari, eta 600 euro langile autonomo bakoitzeko. Soldatapeko langileen kasuan, azaroko Gizarte Segurantzako kuota ordainduko da 600 euro gehienez.

Arrasateko Udalak duela bi aste egin zuen bilera ostalariekin, eta erabaki zuen 300.000 euroko partida eurei bideratzea. Oñatiko Udalak ere lagunduko du sektorea; 120.000 euroko partidarekin. Bergarako Udaletik azaldu dute dirulaguntza zuzenak ematea "planteatzen" ari direla; hala egitekotan, 75.000 euro banatuko dituzte, establezimendu bakoitzari gehienez 1.200 euro. Elgetako Udalak ere lagunduko ditu ostalariak, eta 2.357,50 euro banatuko ditu bost establezimenduren artean. Bakoitzak 400 euro jasoko ditu, itxita egon den hilabeteko, eta gehigarriak ere egon daitezke.

# Jostailu bako umerik ez da egongo aurten ere

Debagoieneko Gurutze Gorriak zaugarritasun egoeran dauden 278 haur laguntzea zuen erronka, eta Gipuzkoako Gurutze Gorriak, aldiz, 1.750. Biek ala biek bete dituzte helburuak, eta eskerrak eman gura izan dizkiete ekarpena egin duten guztiei

## Maialen Santos ARRASATE

Urtero legez, aurten ere egoera zaugarrian dauden haurrentzako jostailu bilketa egin du Gurutze Gorriak, *Beraien eskubideak jokoan* leloarekin. Hain zuzen, Gabonei begira 278 ume-erentzako jostailuak batzea zuten erronka, eta helburua lortu dutela azaldu du Gurutze Gorriko kide Elena Ibarrondok.

## Eskaria, %40 handiagoa

Adierazi du normalean Debagoieneko 200 haur ingururentzat jasotzen dituztela jostailuak, baina aurten eskaria %40 igo dela, osasun-krisiaren eraginez: "Pandemiaren eraginez familia askotan lan barik geratu da bat edo beste, eta, beraz, egoera sozioekonomikoak okerrera egin du. Kasu batzuetan, egoera latza da". Hori horrela, 171 familia lagunduko dituzte, guztira.

Arrasateko Hiper Eroskin bildu dituzte jostailu gehienak –han jardun dute boluntarioek– eta azaldu du "erronka handia" izanik, "oso pozik" daudela herri-tarrek emandako erantzunarekin. Gehitu duenez, jostailu ugari batu dituzte, baina, horretaz gain, txekeak saltzea ere izan dute erronka: "Zenbaitek ez dute jakiten zein opari erosi, eta, beraz, duela urte batzuk ekarpen



Debagoieneko Gurutze Gorrikoak jostailuak banatzen Elorregin. XABIER URZELAI

ekonomikoa egiteko aukera ahalbidetu genuen". Txeke guztiak agortu dituzte, eta 3.000 euro eskuratu dituzte, denera. Horri esker, adin tarte guztietarako jostailuak bermatuta izango dituzte: "Jostailuak erostean pasa daiteke adin tarte jakin baterako jostailuak falta izatea, eta txeekean bitartez izaten dugu horiek erosteko aukera, ditugun beharren arabera". Enpresa batzuek eta partikularrek ere egin dituzte dohaintzak, gainera, eta horiek ere eskertu dituzte Gurutze Gorritik.

## Jolasteko eskubidea aldarri

Ibarrondok azaldu duenez, kanpainaren leloaren bitartez aldarrikatu gura dute haurren "eskubideetako bat" dela jolasteko eskubidea. Ildo horretatik, azaldu du jostailuak jasotzeko baldintza izaten dela horiek berriak izatea, eta horrek eztabaida sortzen duela sarri: "Alde batetik, segurtasuna bermatuta egon dadin ezinbestekoa da berriak izan daitezen, eta, bestetik, uste dut ume guztiek dutela gutxienez Gabonetan jostailu berri bat jasotzeko eskubidea". Hain zuzen,

uste du "ilusio" handia izaten dutela etxeko txikienek Gabonetan, "eta hori mantentzen lagundu behar zaie".

Jostailu horiek jaso ahal izateko, bestalde, familiek bi baldintza bete behar dituzte: 0 eta 12 arteko haurrak izatea eta gizarte laguntzen onuragarri izatea. Jostailuei dagokienez, ez sexistak, ez belikoak eta kooperatiboak eskatzen dituzte, eta kontsumo arduratsua bultzatzen ere saiatzen dira. Hezizaileak izan daitezen ere "garrantzitsua" da, horiekin haurrek errespetua, tolerantzia... landu ditzaten.

Egun hauetan zehar banatuko dituzte jostailuak, eta, horretarako, familia onuradunek Elorregiko egoitzara gerturatu beharko dute agindutako orduan. Ibarrondok adierazi du, halere, ekarpena egin gura duenak oraindik garaiz dabilela: "Aurten sobera geratzen zaizkigun jostailuak gorde egiten ditugu, behar direnerako". Jostailuak Elorregiko egoitzara eroan daitezke, aurrez bertara deituta, edo ES22 3035 0001 51 0010018156 (Laboral Kutxa) kontuan diru ekarpena egin daiteke, *Jostailuak* konzeptuarekin.

## Gipuzkoan, 4.000 jostailu

Gipuzkoa mailako Gurutze Gorritik azaldu dute iaz 1.600 haurrengana iristea erronka bazuten ere, aurten handitu egin dela eskaria, eta 1.750 haur lagundu gura dituztela. Horretarako, 4.000 jostailu batzea zuten erronka, eta helburua bete dutela azaldu dute: "Joan den astera arte, 3.000 jostailu batu genituen, eta herritarrei laguntza eskatu genien, beste 1.000 behar genituelako. Erronka bete dugu dagoeneko, eta eskerrak ematea besterik ez zaigu falta".

## 11.632.992 euro izango da 2021eko aurrekontua

Mankomunitateak azaldu du aurtengoa baino %18 handiagoa izango dela datorren urtekoa

## M.S/T.M. ARRASATE

Debagoieneko Mankomunitateak asteon onartu du 2021erako aurrekontua, eta 11.632.992,12 euro izango da, zehazki; aurtengoa baino %18 handiagoa. Hala eta guztiz ere, egoera ekonomiko zaila bizi dutela ikusita, udalek Mankomunitateari egin beharreko ekarpena %2,3 txikiagoa izango dela azaldu du Maite Antonek, Debagoieneko Mankomunitateko presidentea: "Saiera berezia egin gura izan dugu aurten udalek inbertsio txikiagoa egin dezaten". Adierazi du aurrekontu "xumea" izango dela, inbertsio gutxiagoa, baina udalei eskaini ohi zaien zerbitzua mantentzea ahalbideratuko duena. Ingurumen Sailera bideratuko dute partida handiena, "hondakinen kudeaketak kopuru handia eramaten duelako".

Joan den astean Mankomunitateko Gobernu Batzordeak egindako batzarrean onartu zuten aurrekontua. EH Bildu agintean dagoen Bergara, Oñati, Antzuola eta Elgetako ordezkarien eta Leintz Gatzagako ordezkariaren babes jaso zuten aurrekontuak; EAJ agintean dagoen Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzakoak, aldiz, abstentitu egin ziren.

Zure negozioa ezagutzera eman nahi duzu?  
Zatoz **batu-banatura!**

- Banaketa **masiboa**.
- Banaketa **pertsonalizatua**.
- **Kartelak** ipini.
- **Autoz auto** banatzea.

**Batu Banatu:**  
zure publizitate-banaketa, neurrirra!

**batu-banatu**

*Urte berri on!*

www.batubanatu.eus  
943 08 10 50 / 688 69 00 07  
banaketak@batubanatu.eus

Jone Olabarria OÑATI

Irail erdialdean hartu zuen Aitor Urzelai oñatiarrak (1975) SPRI taldeko zuzendari nagusi kargua. Orduetik hona, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailaren baitako Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren gidaritzan dihardu, "euskal industria eta haren egitekoen artean dagoen euskal ekonomiaren eraldaketa digitala sustatzeko helburuarekin", baita "4.0 industriaren behin betiko ezarpena bultzatzeko" ere. Digitalizazioa euskal enpresen eta herrialdearen lehiakortasunerako "funtsezko erronka" dela aitortu du SPRIk. Bailarako egoeraz galdetuta, Urzelai azaldu du Debagoiengan izaera industrialak eta kooperatibismoak duen presentziak, krisi garaietan, salbuespenekin, "hobeto" eusten diola aktibitate ekonomikoari eta enpleguari.

**Dagoeneko pandemian murgildurik geundela hartu zenuen kargua; zer egoera topatu duzu euskal enpresen artean, orokorrean?**

Egoera honetan, premiazkoa izan da alarma sanitarioa en-

# "Aukera berriak aprobeztatzen jakin izan du beti euskal enpresak"

**AITOR URZELAI** ENPRESEN GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIako ZUZENDARI NAGUSIA Kargua hartu aurretik, SPRI taldea barnebiltzen duen Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen Sailean ere aritu da, Ekintzailetzaren eta Berrikuntzaren zuzendari lanetan

presen eta langileen egunerokotasunarekin uztartzea. Hizpide dugun sektorearen, pandemiaren aurreko egoeraren eta beste faktore batzuen arabera, enpre-

sa bakoitzak egoera jakin batzuk bizi izan ditu eta bizi ditu. Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren eginkizuna eta eginbeharra da enpresa bako-

tzari lagundu ahal izatea, euskal industria sare osoari lagungarri izatea.

**Pandemiak eraginda, bi plano bereizi izan dituzu enpresen erradio-**

**grafia egiterakoan: alde batetik, ondorio negatiboak izan dituztenak, eta, bestetik, pandemiak bultzada bat ekarri dien horiek?**

Gauza guztietan bezala, eta orain sortutako egoera oso berezia dela jakinda, ahuleziak eta indarguneak daude, baina aukerak ere irekitzen dira. Bistakoa da ondorio negatiboak hor daudela, baina agerian geratu da arlo konkretu batzuetan, hala nola biosanitarioan, digitalean, energia berriztagarrietan... aukera berriak irekitzen ari direla.

**Azken kasu horretan, beharra izan da eredu aldaketa bultzatu duena ala aukera ona izan daitekeela ikusi dute enpresek?**

Oro har, gure herrialdeko enpresek, euren gaitasun industrialen eskutik eta agente zientifiko-teknologikoen laguntzarekin, beti jakin izan dute aukera berriak identifikatzen eta aprobeztatzen, baita gaur egungo egoera zailetan ere.

**Epe laburrean erresistentzia lanari eutsi beharra azpimarratu duzue, zeintzuk dira SPRItik horretarako jarritako baliabideak eta nola egin?**

Epe laburrera, enpresen likidezia-arazo larria konpontzeko

**20 URTE**  
Komunitategintzan.  
Zurekin.  
Zugatik.  
**Urte berri on!**



Bideoa ikusteko, eskaneatu QR kode hau telefonoarekin.

**goiena**  
20 URTE ZUEKIN.



neurriak abiarazi ditugu. Abian dira Eusko Jaurlaritzak Elkar-girekin batera eskaintzen dituen abal-ildoak, eta, gure aldetik, *Bideratu COVID19* jarri dugu martxan, 20 milioi euroekin, laguntza finantzarioa emateko zailtasunak dituzten enpresei. Gainera, laguntza jakin batzuetan, aurreratu egin ditugu ordainketak eta, bestalde, atzeratu egin ditugu alokairuak teknologia parkeetan, poligonoetan eta industrialdeetan.

#### **Berehalakotasun handiko erronkei aurre egiteko asmoz, egoerak alde batera utzi ditu digitalizazioan jarritako erronkak?**

Nire ikuspuntutik, alderantziz izan dela esango nuke. Eraldaketa digitala, aurretik gure enpresetan jada ohikoa zena, nabarmen bizkortu da pandemia egoera honetan. Adibide gisa, digitalizazioari buruzko gure programak.

#### **Aipatzen dituzun programan horien kasuan, zer moduzko erantzun eta emaitzak izan dituzte horiek guztiek eta zein da egungo egoera?**

Enpresen erantzuna oso positiboa izaten ari da. Digitalizazio arloko BDIH-Konexio, Industria Digitala edo Industria Zibersegurtasuna bezalako laguntzak jaso dituzten enpresen datuak oso onak izan dira. Enpresek momentu honetan beharrezko ikusi dute digitalizazio-prozesuak bizkortzea, eta agerian utzi dute gure laguntza-programak lagungarriak izaten ari direla.

#### **Enpresa ertain eta txikiari begira, nola lantzen duzue bertan eraldaketa digital prozesua?**

SPRIn kudeatzen ditugun programa eta dirulaguntza gehienak enpresa txiki eta ertainetara zuzenduta daude. Gure lehentasuna konektibitate eta zibersegurtasun egokia bermatzea da, eta, hortik aurrera, balio-kate osoan tresna digitalen bidez enpresen eraginkortasuna eta lehiakortasuna handitzea. Mikroenpresei eta autonomoei bideratutako digitalizazio laguntza zerbitzuak ere eskaintzen hasiak gara.

#### **Maila globalean lehiakor izateko beharra aipatu izan duzue. Baina nola mantendu lehiakor izaten merkatuak bizi duen egoeran?**

Lehiakor izaten jarraitzeko, oso onak garen horretan espezializatu eta besteengandik bereizi beharra dago. Energia, biosasunean eta fabrikazio aurreratuaren gaitasun oso handiak



Irailaren 18an hartu zuen Enpresen Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren kargua Aitor Urzelai oñatiarrak. SPRI

ditugu Euskadi mailan, eta beraien eskutik mundu mailan lehiakorrak izaten badakitela erakutsi dute gure enpresek. Gero eta gehiago, gainera, kalitatezko enpleguaren sorrera, ingurumenaren iraunkortasuna eta genero-berdintasuna zainduz. **Zeintzuk dira, "oso onak" izanda, bertan indarra jarri eta euskal enpresak bereziki lehiakor diren merkatuak?**

Zorionez, sektore guztietan daude euskal enpresa lehiakorrak, denek aplikatzen dituztelako irizpide berritzaile eta teknologikoak. Halaxe aitortzen du Europak. Baina, azpimarratzearen, gure industria- eta manufaktura-sektoreak –automobilgintza, makina-erreminta– edo energian edo biosasunean espezializatutako enpresen sektoreak azpimarratuko nituzke.

#### **Nola definituko zenuke Euskal Autonomia Erkidegoak duen eredu**

**"EPE LABURREAN, LIKIDEZIA ARAZO LARRIA KONPONTZEKO LAGUNTZAK ABIARAZI DITUGU ENPRESETAN"**

#### **enpresariala eta zeintzuk dira bere indarguneak?**

Euskadiren eredu enpresariala industrial da. Industria aurreratua, teknologikoa eta, gero eta gehiago, ingurugiroarekin jasangarria. Besteekiko trakziolana egiten duten enpresa handiak baditugu, baina gure DNA enpresa txiki eta ertainak dira, egunero-egunero gure ekonomia eta enplegua aurrera eramateko lan egiten dutenak.

#### **Industria dezente eta kooperatibismoak indar berezia duen bailara izanda, zeintzuk dira Debagoienaren erronkak?**

Argi dago leku pribilegiatu batean bizi garela, industria presentzia handiarekin eta kooperatiben indar eta ereduarekin. Erronka bezala, epe laburrean, COVID-19ak sortutako zailtasunak gainditzea tokatzen zaigu, baina, epe ertain eta luzera, arlo energetiko, digital eta soziosa-

nitarioan sortzen ari diren erronka eta aukerak begi bistan izan behar ditugu.

#### **Zein da egoera une honetan bailaran? EAEk bizi duen egoera berean dago edo badu ezberdintasunen bat bertako kasuak?**

Ez dago esan beharrik ekonomia eta enpresen egoerak konplikatua izaten jarraitzen duela, eta aurreikusten denez, zoritxarrez, oraindik ere hala jarraituko du hurrengo hilabeteetan, gutxienez. Bailarara etorrita, nire ustez, Debagoienean, beste eskualde batzuekin konparatuta, bi indargune nagusi ditugu: gure izaera industrial eta kooperatibismoak duen presentzia. Bai batak eta besteak, krisi garaian, eta salbuespenak salbuespen, hobeto eusten diote aktibitate ekonomikoari eta enpleguari. Honela erakusten dute azken hilabetetako langabezia tasen datuek ere.

**"KOOPERATIBISMOAK ETA INDUSTRIAK HOBETO EUSTEN DIOTE JARDUN EKONOMIKO ETA ENPLEGUARI"**

## Huheziko hezkuntza eraldaketa, liburu batean

Ainara Imaz eta Nagore Ipiña ikertzaileak eta Helena Azkarragaurizar ilustratzailea dira egileak

#### **J.O./U.I. ARRASATE**

Fakultateko hezkuntza eredu "berritzailearen" gakoak eta eraldaketa prozesuaren nondik norakoak jaso dituzte argitaratu berri duten liburuan Ainara Imaz eta Nagore Ipiña ikertzaileek eta Helena Azkarragaurizar ilustratzaileak. *Berrikuntza prozesu baten mapa berria: eraldaketaren eredu* titulupean argitaratu zuten liburua joan den egubakoitzean aurkeztu zuten, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen Eskoriatzako campusean.

Argitalpenak etorkizuneko irakasleen formakuntzan eragiteko fakultatean abiatutako hezkuntza eraldaketarako esperientzia kolektiboaren berri ematea du helburu: "Xede garbia du: eskaintzea formakuntza integrala eta kalitatezkoa, hobetzea etorkizuneko belaunaldiaren prestakuntza eta prestatzea pertsonak aurre egingo dietenak XXI. mendeko hezkuntzaren erronkei".

#### **"Sakoneko aldaketak"**

Hala, liburuan, etorkizuneko irakaslearen profilak, hezkuntza eredu berriak eta egiteko modu berriak azaldu dituzte; izan ere, egileen usteetan, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako hezitzaileen prestaketan –eta haien profil pertsonal zein profesionalaren garapenean– beharrezkoak dira "sakoneko aldaketak".

Irakasleak hezteko komunitate "desberdin" baten eredu aipatzen dute liburuan bertan ikertzaileek, "hezkuntza eraldaketarako esperientzia kooperatiboaren" aldeko apustua eginda: "Sormen gaitasunak garatzeko kalitatezko espazioak zabaltzea eta egunerokoan ikas-kuntza goiburu duten pertsona guztien prestakuntza areagotu eta dibertsifikatuz".



Jokin Uribeberria, bost eurotan dortsala eskuratu eta mendi buelta eginda, kilometro ekarpena egiten aurrenekoetakoa. J.U.

# Ahal beste dortsal eta 8.000 kilometro, kultura etxea egiteko Senegalen

Dionewar herrian eraikitzen ari diren kultura eremua finantzatzeko da Ndank Ndanken ekimena. Lagundu nahi dutenek oinez, korrika edo bizikletaz egiten dituzten ibilaldiak erregistratuko dituzte, aurrez bost eurotan dortsala eskuratuta

**Julen Iriondo** BERGARA

8.000 kilometro, Senegal eta Euskal Herri arteko joan-etorriak dituen beste; Dionewar herriarekin lanean diharduen Ndank Ndank elkarteak erronka horixe jarri du, elkartasun keinua egin nahi duten herritarrekin batera osatzeko.

Ekimen solidarioan parte hartu nahi dutenek *ndankndank.kinendu.com* helbidean eskuratu behar dute dortsala –bertan daude egitasmoaren gaineko azalpenak ere–, bost eurotan, eta, izena emanda, ibilaldia egitera doazenean mugikorreko aplikazio bidez berau erregistratu baino ez dute egin behar, parte-hartzaile guztien kilometro kopuru orokorrari bakoitzarenak gehitzeko, helburu jarritako 8.000 horietara bidean.

Domekan hasi zen erronka, eta urtarilaren 10era arte iraun-

go du; tarte honetan, edozein momentutan egongo da izena emateko aukera –astelehen gauerako, 434 parte-hartzaile ziren–. Ekimena are gehiago ikustarazteko, parte-hartzaileek argazkiak sare sozialetan jartzeko *#zubiaindartzan* traola sortu dute; parte hartzen dutenen artean Senegalgo hainbat material zozkatuko dute. Bestalde, parte hartu nahi ez baina Dionewarko kultura eremuaren eraikuntzarako ekarpen ekonomikoa egin nahi dutenek 679 32 42 99 zenbakian egin dezakete, Bizum bidez, edo kontu

**KULTURA EREMUAK BERTAKOEI ZERBITZUA EMAN ETA GARAPEN EKONOMIKOAN LAGUNDUKO DU**

korronte honetan: ES58 2095 5070 7091 1939 4823.

Urrian hasi ziren Dionewarko kultura eremua egiteko lanak. Lehen eraikinarekin hasi ziren, baina hori beste batzuekin osatzea da asmoa; honela dio Ndank Ndank elkarteak Eli Dominguezek: "Lehen eraikina izango da espazio bat bertako kultura, hizkuntzak, tradizioak... lantzeko. Baina ez dugu horretan geratu nahi; liburutegia, bilera gela, artisau tailerra, artisau denda... egin nahi ditugu. Herriko artisautza berreskuratu nahi dugu, azken urteetan beherakada handia izan duena. Pertsona batzuentzat zuzeneko jarduera ekonomikoa izango da, baina uste dugu, aldi berean, eremu berriak turismo jasangarria erakarri dezakeela irlara, eta herritar guztiak atera daitezkeela irabazten".


## Kultura zentroa eraikitzen



**Lanen hasiera** Urrian hasi ziren lanak kultura zentroa hartuko duen lursailean. Gunearen lehen prestaketa lanak auzolanean egin zituzten bertako herritarrek, eta igeltseroei lekukoa eman zieten gero. Urri amaieran hasi ziren igeltseroak eraikina jasotzen.



**Egungo egoera** Egitura prest dago. Aspalditxoan Europa eta, ondorioz, zementua erreferentzia izan arren, hango baldintzetara ondoen egokitzen diren materialetara itzuliko dira hormak –lur konprimatu blokeekin– eta teilatua –lastoz– egiteko orduan.



**Lehen eraikina** Itxura hori izango du kultura zentroko lehen eraikinak. Asmoa da gehiago egitea gero: liburutegia, bilera gela, artisau tailerra, denda eta kantina. Bizilagunei zerbitzua emateaz gain, Dionewarren garapen ekonomikoa laguntzea da helburua.

# "Gezurra da emakumeek ez zutela dantza egiten"

OIER ARAOLAZA ARRIETA DANTZARIA ETA ANTROPOLOGOA

'Emakumeak euskal dantzetan: gezur baten historia' izenburudun hitzaldia egin zuen astelehenean Arrasateko Kulturaten. Gai horrekin tesia egina du eibartarrak

Julen Iriondo ARRASATE

Gezur hori sendotu eta finkatu sortu zen, esaterako, gaur egunera arte iraun duen generoaren araberrako dantzen bereiztea, umetan mutilek eta neskek bereizita jardutea...

**Zein da, beraz, hitzaldiaren izenburuan aipatzen duzun gezurra?**

Euskal dantzen alorrean azken ehun urteotan errepikatu izan den ideia da, eta oso-oso barneratuta daukaguna: emakumeek, garai batean, berez, euskal dantzetan ez zutela parte-hartze nabarmenik izaten, ez zutela dantza egiten; asko jota, dantza batzuetan parte hartzen zutela, baina bigarren maila batean eta gizonezkoei laguntzen. Eta emakumeak ikusi baditugu dantzaren zinta dantza edo arku dantza, adibidez -aurrez dantzatzeko ez zutenen-, errepertorioak ez zutela-eta, dantza egitea baimendu eta dantza haiek eurentzat propio egokitu -berez, gizonezkoek egiten zituztenak- edo sortu zituztelako izan dela ere badio ideia horrek. Beraz, ideia horrek dio emakumea ez dagoela euskal dantzetan berezko eskubidez, baizik eta berdintasunaren izenean edo emakumei ere aukera hori ematearren, eskuzabaltasunez, baimendu zaielako. Baina hori gezurra da.



Oier Araolaza Arrieta. J.I.

Adibidez, aureskua; emakumeek aureskua dantzatu izan dute.

**Eta hori dokumentatuta dago.**

Horren inguruko idatzizko dokumentazio pila bat agertzen ari da azken urteetan; argazkietan ere ikusi daiteke, eta duela urte batzuk aurkikuntza oso berezi bat izan genuen, ezagutzen den auresku baten bideo grabaketa zaharrena, 1921eko, eta emakumezkoek dantzatzeko dute. **Zerk eta zertarako elikatu du gezur hau urteetan zehar?**

XIX. mende bukaeran eta XX. mende hasieran asko indartu

zen gaur egun hainbeste aipatzen den binarismoaren ideia, gizonezkoak eta emakumeak erabat bereizten dituen. Defendatzen da biologikoki erabat desberdinak garela sortzez, eta, ondorioz, gure izate kulturala, gure portaerak, gizartean ditugun funtzioak, lanbideak... desberdinak izan behar direla, eta oso bereizketa zurrinak egiten dira. Eta ideietan dagoen bereizketa horren neurriera eraldatuko dira dantzak, eta hasiko dira, batetik, ukatzen emakumei ordura arte dantzatzeko zituzten dantzak egi-

teko aukera. Lehen aipatzen genuen grabaketa da auresku baten grabaketa zaharrena, baina baita emakumeek aureskua dantzatzeko zuten garai baten amaiera ere. Hasten dira bereizten emakumeen dantzak eta gizonezkoen dantzak, eta aureskua geratuko da gizonezkoen dantza moduan; eta hori ez zen horrela: dokumentatu dut, adibidez, auresku txapelketa bat Bilbon, 1894an, gizonek eta emakumeek elkarrekin parte hartzen zutena, saillkapen bakarrarekin. **Askotan, tradizioaren atzean ezkutatzen dena propio eraikitako zerbait dela esan dezakegu, beraz.** Jakina, beti. Kontua da tradizioak direla urte batetik bestera errepikatzen direnak, baina aurretik zegoena, neurri batean, berdin eginez eta beste zerbait aldatuz, jakinaren gainean edo konturatu gabe; eta horrela mantentzen dira bizirik tradizioak: momentu batean tradizio bat ez bada ezertxo ere aldatzen batetik bestera, horrek esan nahi du hil egin dela. Errepikatzen dugun bakoitzean da geure egiten dugulako eta geure momentuaren arabera egokitzen dugulako, eta horrela bizirik mantentzen dugu. Gure dantzak ere soka horretan transmititu dira, eta horren kontzientzia edukitzea garrantzitsua da, jakiteko zer dugun esku artean, ze maniobrabilitate dugun, eta zintzo jokatzeko geure buruarekin eta gizarteaz. **Ze helburu duzu hau gizarteratuz?** Urteak daramatzat hainbat taldetatik laguntza eskaerak jasotzen gaur egungo gizarte balioetara egokitze gure dantzak. Hor ikusten da ezagutzarik ezak edo geure buruari kontatzen dizkiogun gezurrek eskuak lotuta uzten gaituztela. Beraz, asmoa da dantza munduari azal-

teza gauzak nondik datozen eta sentitu daitezela beste askatasun batekin gaur egungo balioetan oinarritutako dantzak egin ahal izateko, eta gure gizarte osatzen dutenekiko zintzo, justu eta parekideago izateko. Askok ezin dituzte euren egunerokoan defendatzen dituzten balioak dantzaren praktikan aurrera eraman gaizki ulertutako tradizio batek ez dielako aukerarik ematen.

**Aldaketak etorriko dira?**

Nik uste dut aldaketen lehen olatua bukatzen ari dela, debekuei edo ukazioari buelta ematearena; adibidez, Oñatiko Corpusetan emakumeek parte hartzen dute dagoeneko. Halako aldaketak Euskal Herri osoan gertatu dira azken lauzpabost urteetan. Orain sartzen gara bigarren olatuan, eta hori izango da nola berrantolatzen dugun dantza taldeen egitura eta funtzionamendu guztia ikuspegi berrien arabera, ze oraindik nesken eta mutilen dantzak ditugu, umeen taldeak mutilak eta neskek bereiziz antolatzen dira... Eta kontrako norabidean etorri den olatu bat ere bada gure artean, eta ezin dugu guk kontrolatu, gainera: dantzak, gero eta gehiago, jardura feminizatu bezala kategorizatzen ari dira, eta horrek dakar gizonak dantzatik aldentzea, eta hori tragedia hutsa da, ze, dantza egitea, gizakiok berez dugun adierazpidea da. 4-5 urtera arte, ume guztiek, neska zein mutil, egiten dute dantza, zoriontsu.

**"ORAIN, BERRIZ, GIZONAK ARI DIRA DANTZATIK ALDENTZEN, ETA HORI TRAGEDIA HUTSA DA"**

## Bateragune: Gorenaren erabakia salatu dute elkarretaratzeetan

Euskal Herri osoan bezala, Debagoienera ere herriz herri egin dituzte bilkurak, "zentsugabekeria" dela iritzita

J.I. BERGARA

*Demokrazia!* leloarekin egin zituzten zapatuko bilkurak. "Gure iritziz, Euskal Herriko talde politiko eta eragile askoren iritziz, demokraziarik ezaren beste adibide bat da hau. Hamar

urte geroago, 2011n epaitutako eta zigortutako gai bat berriz ere ateratzearren atzean dago eraikuntza nazionalen dabiltzan edo eragile sozial bezala bestelako gizarte bat eraiki nahi duten pertsonak berriz ere epai-

tzeko gogoia, eztabaida guztiz desbideratuz", zioen ELAko Amagoia Lasagabasterrek.

"Erantzun politiko bat da, EH Bildu Espainian eragiten hasi osteko horren aurkako eraso. Argi geratzen dena da demokraziatik urrun dagoen estatua dela Espainia, eta lanean jarraitu beharko dugu geure estatu demokratikoa sortu arte", zioen, ostera, EH Bilduko Gorka Ugaldek. Hainbat eragilek egin zuten bat deialdiarekin, eta erantzunarekin pozik geratu ziren.



Zapatu eguerdian Bergaran egindako bilkura. JULEN IRIONDO

# Hogei urte ez dira alferrik pasatu



## Maidar Undak brontzeko domina Olinpiar Jokoetan

2012an Londresko Olinpiar Jokoetan hartu zuen parte Aramaioko Oleta auzoko Maidar Unda borrokalariak. Lau urte lehenago, Pekinen ihes egin zion brontzeko dominak Bielorrusiako Vasilisa Marzaliuken aurkako azken borrokaldian, eta aurkari beraren kontra lortu zuen Londresen saria.

Kirolariaren ondoan egon ziren batzuek borrokaldia errepasatu dute Goienaren erreportajerako.



## Hirigintzaren bilakaera, hobeto bizi ahal izateko

Nabarmena da hirigintzak izan duen bilakaera Debagoieneko herrietako kaleetan. Etxegintza eta urbanizatzak gertatu dira; asko dira, esaterako, lantegi izandako orubeetan eraikitako auzune berriak.

Alde zaharren kontserbazioan ere egin da lan, eta mugikortasun paradigmaren aldaketa izan da. Azpimarratzekoa da irisgarritasuna eta ekipamenduak bermatzeko egindako ahalegina ere.



## Zeresan handia Espainiako errege-erreginen bisitak

Duela hamasei urte, 2004ko abenduaren 9an, Espainiako Juan Carlos I.a eta Sofia errege-erreginak etorri ziren Arrasatera, MCCko zuzendaritzak gonbidatuta. Bisita hartan, Garaia ikerkuntza gunearen lehen harria jarri zuten, baita Fagor Etxetresna Elektrikoaren linea berria inauguratu ere.

Gonbidapen horren atzean, baina, beste motibo batzuk zeudela eta, protesta modura mobilizazio jendetsuak egon ziren Arrasaten.



## Frankismoaren biktimen alde egindako lana

Frankismoak bailaran eragindako biktimei aitortza egin izan zaie azken hogei urteetan ere. Intxorta 1937 Kultur Elkarteko kide Juan Ramon Garairen esanetan, azken urteetan asko aurreratu da "frankismoaren eta diktaduraren kontrako borrokan".

Besteak beste, emandako pausoak eta egindako omenaldiak jaso zituen Goienak, *Ilunean argi egiten, egia eta justizia bila* izeneko erreportajearen.



## AP-1: azpiegitura handienaren argi-itzalak

1999an jarri zuten AP-1aren lehen harria, Basalgon. Hamar urte geroago inauguratu zuten azken zatia, Arrasate eta Eskoriatza lotzen zituena. Azpiegitura horrek ekarri du, besteak beste, ibarreko mugikortasun beharretan azkartasuna, erosotasuna eta segurtasuna.

Hala ere, gainkostu handiak egon ziren, baita obrarekiko protestak, lan istripuak eta atzerapenak ere.



## Zazpi urte Fagor Etxetresnak itxi zituztenetik

2013ko udazkenetik hasita, hurrengo urteak oso gorabeheratsuak izan ziren Mondragon Taldeko langileentzat, eta, bereziki, Fagor Etxetresna Elektrikoetako (FEE) bazkideendako.

Euskal Autonomia Erkidegoan bakarrik 2.127 lan-bazkide zituzten FEE-ek. Horieta lauren testigantzak jaso zituen Goienak, erreportaje batean, garai haiek eta ondoren etorri zirenak gogoratzeko.



## Arrasateko zinegotzi ohi Isaias Carrasco sozialistaren hilketa

2008ko martxoaren 7an, etxetik irten berri, lanera abiatzekoa zela, bost tiro eginda hil zuen ETAk Isaias Carrasco. Aurreko agintaldian PSE-EEko zinegotzi izan zen Carrasco.

Samina eta gaitzespena sortu zituen hilketak, baita lurrikara handia ere: EAE-ANV alkatetzatik kentzeko saiakera, Ino Galparsoro alkatearen kartzelaratzeta... Hilketatik hamar urtera, Udalak omendu egin zuen Carrasco.



## Debagoieneko kirol mugarriak bi hamarkadatan

2000. urteko uztailan, Felix Iñurrategik istripua izan zuen G2 mendian, eta hori izan zen azken bi hamarkadetan kirolean izan dugun lehen mugarria. Orduetik hona, Debagoienean izan da zer kontatua, emaitza eta gertaera politikak izan baitira.

Esaterako, azpimarratzekoa da emakumezkoen futboleko 2017an Leintz Arizmendi taldea sortu izana eta Beñat Rezusta pilotariaren eskuz binakako txapela.



## Berdintasuna lortzeko bidean emandako pausoak

Mugimendu feministak indarra hartu du azken urteetan. Debagoienean bada aitzindaritzarik gai horri lotuta: sail berezitu bat izaten aurrenekoetakoa izan zen Arrasateko Udala, eragileek akuilu lanak eginda; 2003an sortu zen, gero, Emakumeen Txokoa.

Beste hainbat mugarri ere izan dira: berdintasun planak, 2018ko Martxoaren 8a eta indarkeria matxistari aurre egiteko plan integrala, besteak beste.



## Immigrazioaren hazkundera bailarako herrietan

Azken bi hamarkadetan asko hazi da etorkinen kopurua. Fenomeno orokorra bada ere, Euskal Autonomia Erkidegoko edo Gipuzkoako datuekin alderatuta, kanpotik etorritakoen zenbatekoa txikiagoa da Debagoienean.

Datua aldatu den neurrian aldatu da euren jatorria, baina motiboak berbera izaten jarraitzen du; oro har, "bizitza hobe baten bila datoz". Helburua argia da orain: inklusioa bermatzea.



'20 urte, 20 albiste' erreportaje sorta argitaratu du Goienak 20. urteurrenean. Bi hamarkada horiek eman dutenaren erakusle dira ostiraleko 'Puntua' aldizkarian argitaratutako artikuluak eta Goiena telebistak eskainitako ikus-entzunezko erreportajeak. Izan ere, hogeitau urte ez dira alferrik pasatu. **Testuak:** Karmele Uribesalgo.



Bideoak ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.



## Debagoiendarren filmak, euskal zineman mugarri

Hainbat adituren esanetan, euskal zinemagintzan mugarri izan ziren Asier Altuna bergararraren *Aupa Etxebeste!* filma eta Aitor Arregi oñatiarraren *Handia*. Lehenengoa euskarazko pelikularik gabeko hamahiru urteren ostean iritsi zen, eta inoiz gehien ikusitako euskarazko film bilakatu zen, 72.000 ikuslerekin. *Handia* pelikula ere jauzi bat izan zen alde artistikotik, eta hamar Goya sari eskuratu zituen.



## Hezkuntzaren bilakaera eta ikastetxeetako festak

Azken hogeitau urteetan, Debagoieneko ikastetxeek askotariko jaiak antolatu izan dituzte herritarrei begira. Hainbat izan dira helburuak: bultzada ekonomikoa lortzea, hezkuntza proiektua gizarteratzea eta gizartetik jasotakoa modu solidarioan itzultzea, adibidez. Pandemiak kontu horretan ere izan du eragina, eta aurten ez da posible izan ikastetxeen festarik antolatzea.




## Deba ibaiko uraren kalitatea, asko hobetuta

Deba, erreka baino gehiago, eskualde hiritartu eta industrial bateko zikinak gainera kentzeko garraio izan zen zenbait hamarkadatan. Mende hasieran, ibaiaren kutsadura mailak goia jo zuen, eta ia hilik gelditu zen erreka biziberritzeko eta leheneratzeko urteak izan dira azkenekoak. Hori horrela, orokorrean, Deba ibaiaren gaur egungo egoera duela hogeitau urtekoa baino nabarmen hobea da.



## Turismoa erakartzeko erronka bailarako udalerrietan

Debagoieneko turismoa sustatzeko ahalegina 80ko hamarkada amaieran hasi zuten bailarako herriek, baina azken bi hamarkadak giltzarri izan dira. Besteak beste, Gatz Museoa ireki zuten Leintz Gatzagan, Arrikruz Oñatin eta Laboratorium museoa Bergaran. COVID-19ak eragin zuzena izan du turismoan, eta sektoreak bizirik irauteko berrasmatu egin beharko ditu eskaintza asko.



## Unibertsitateen bilakaera Debagoienean

Azken urteetan bailaran egoitza duten unibertsitateen bilakaera esanguratsua izan da. Mondragon Unibertsitateari dagokionez, horren adierazle izan daitezke eskaintza akademiko eremuak handitzea, baita hedapena ere –bailara mailan, eta Euskal Herrian zein nazioartean–. UNEDek, berriz, egoitzaren afera ebatzita, instalazio berriak ditu 2018a ezker, bere jardunerako proposagoak.



## Hondakinen kudeaketan gertatutako aferak

2010eko hamarkadaren lehen erdian puri-puritan egon zen gaia izan zen hondakinen kudeaketarena, bilketarena eta tratamendua. Hainbat eztabaidagai izan dira, ez bakarrik bailaran, baita Gipuzkoan ere: atez atekoa edo edukiontzia erabiltzearena, esaterako. Horren ondorioz, aldaketak egon dira hondakinak biltzeko eran. Erraustegia ere izan da berbagai.



## Abiadura Handiko Trenaren gorabeherak

Duela hamalau urte hasi zituzten Abiadura Handiko Trenaren lanak, Debagoienetik kilometro gutxira, Arratzua-Ubarrundia eta Legutio artean (Araba). Ordurako, azpiegitura horren bueltan eztabaida eta tentsio handia zegoen Euskal Herrian. Orduetik hona izan diren gorabeherak jaso zituen Goienak, baita proiektuan sinesten duten zein bideragarri ez dela uste dutenen iritziak ere.



## Ezker abertzalea, erakundeetatik kanpo, ETA zela argudiatuta

Alderdien Legea aplikatuta, 2003an legez kanpo utzi zuen Auzitegi Gorenak Batasuna. Urte hartako maiatzean ziren udal eta foru hauteskundeak, eta ezker abertzalea ezin izan zen aurkeztu. Hurrengo hainbat hauteskundetan ere ezin izan zuen normaltasunez jardun. Horretaz aparte, beste hainbat zailtasun ere izan zituzten ezker abertzalekoek; besteak beste, kartzela.



## Aberastasun sentsaziotik, gerrikoa estutzera

Ekonomiaren ikuspuntutik, azken bi hamarkadek askorako eman dute. Milurteko berriarekin batera etorri zen txanpon aldaketa Europako Batasuneko hamabi lurraldetara, eta, adituek diotenez, hori da, ekonomiaren bilakaera aztertzean, lehenengo mugarria. 2008ra arte, ekonomiak gorakada izan zuen, eta orduan hasi zen burbuila lehertzen. COVID-19ak, berriz, azken urteetako igoeran eragina izan du.



## Euskararen alde eta euskalgintzan egindako lana

Lan handia egin da bailaran euskararen normalizazioaren bidean. Hainbat eragile eta euskara elkarte aritu dira horretan, bakoitza bere esparruan. Euskarari dagokionez, askotariko errealitateak izan dira azken bi hamarkadotan. Ezagutza mailaren gorakada eten egin da, migrazioaren ondorioz. Bestalde, batez ere, erabilera dago orain fokua. Besteak beste, horretan eragiteko sortu da Euskaraldia.



ZABALIK

GOTZON IPARRAGIRRE

## Zeurea da erabakia

Pesimistak, errealistak eta optimistak omen gaude.

Asteak astelehen luze beltzeko goizak balira bezala bizi denik bada. Arrosari begiratu arantzak bakarrik ikusten dizkietenak. Oporrak ilusio optikotzat jo, eta ostirala iritsirik, astelehenari begira daudenak, hain motz da-eta asteburua. Ez dago udarik, negua luzea da, eta udazkenaren nostalgiari ainguratuta bizi daitezke udaberriaren bizitasuna antzeman egin gabe ere.

Adi ibili ere errealista autodefinitutakoekin, errealismoaren defentsa sutsuan, ia beti pesimisten aldera jotzen dute eta, hain da-eta errealitatea eskasa....

Eta kontuz! Pesimista deklaratu edo errealista pragmatikoen ikusmira hau kutsakorra da; izan ere, denok izaten ditugu halako momentu edota egunak. Ezaguna dutelako gure alde hori, atzematen gaituzte,

### EGUN BELTZENEAN ERE, AMETSA GORPUZTU EZIN DENEAN, AMESTEAREKIN AMESTU AHALCO DUZU

inoiz edo sarritan, segun, euren atzapar sendoekin eta bere egiten gaituzte. Eta orduan, euren altzoan zauzkatelarik, halako keinu ironiko edo trufa imintzioa ikusiko diezu, "hau ere geure egin

di(n)agu" diotela. Kostako zaizu irtetea, munduko armiarmarik abilenak baino amaraun korapilatsuagoa iruten baitute.

Victor Frankl-ek, logoterapiaren aitak, kontzentrazio eremuetan gizon garrantz askoak ikusi zituela zioen euliak balira hiltzen; ahul ustezko batzuk, ordea, burua tente, handik irteten. Aldea: bigarrenak gero zer egin nahiko luketen irudikatze gai ziren, amesteko, horri utsiz, ametsa bera euren bizi-euskarri bihurtzeko.

Ilusioei eta ametsi begira daudenak eta bizitzaren eguneroko zamari lotuak daudenak ikusiko dituzu inguruan. Beti ezin badaiteke ere, zuk zeuk aukeratu norengana gerturatu. Egun beltzenean ere, ametsa gorpuztu ezin denean, amestearekin amestu ahalko duzu.

Ameslari izan nahi baduzu, ixo! Ez ezazu zaratarik atera, armiarmak hor dabilta-eta amarauna ehuntzen...

## MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Zeruko eta lurreko argiak

OSKIA UGARTE

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Erdi Aroan, argiari buruzko teoria zabala garatu zuen Agustin Hiponakoa filosofoak. Eguzkiaren argiak ingurua ezagutzen laguntzen digun bezala, argi jainkotiarrek gure adimena goiargitzen du gauzen egia aldagaitza ezagutu ahal izateko. Ideia hauek Erdi Aroan sortutako proiektu artistiko askoren oinarri teorikoan egon ziren, eta beirategintza, esmaltegitza, urregintza eta halako tekniken garapena ekarri zuten.

Gure plazak azaroaren amaieran berehala galtzen du

argia, eta ilunpetan geratzen da. Eguzkiaren berotasuna faltan sentitzen badugu ere, iluntasuna gure egin dugu: haurrek haien jolasetan integratzen dute eta helduok multzo txikietan berrikerian ematen dugu arratsaldea; baten bat musukoa kentzera ere ausartu da pipak jateko. Auzoko parkea nahiko zaharra da, osagaien erdiak baino gehiago galdu ditu. Hondamendi itxura hartzen hasia da, eta hau ere haurrek haien jolasetan barneratu dute. Geroz eta argalago, itxuragabe eta zehaztugabeagoak diren elementu horiek, haien irudimenaz lagunduta, fantasiaz beteriko unibertso

bihurtu dira. Iluntasuna gure errealitatearen zati bat da eta errealitate hori eraikitzen laguntzen gaitu.

Erosoa eta gurea den dekadentzia horretan bizi ginen, baina, pasa den astean, Udalak 5 metroko zirkunferentzia duen esfera argiztatu erraldoia jarri digu plazan. Aldizkako argi-pirrinta txuri-urdira itsugarriak botatzen ditu. Aurten ere Eguberriak datozela ezin dugula ahaztu dio Udalak, eta, Agustin Hiponakoaren teorian Jaungoikoak egin bezala, egia ezagutu ahal izateko argia ekarri digu urte berezi honetan.

Epilepsiarekin bukatuko dugu...

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

#### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

#### Lehendakaria

Monika Belastegi.  
Zuzendari nagusia  
Iban Arantzabal.  
Eduki zuzendaria  
Eneko Azkarate.

#### Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

#### Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.  
Administrazio zuzendaria  
Agurtzane Gaintzarain.

#### Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

#### Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

#### Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

#### Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
Maketazioa  
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza.  
Publizitatea  
Mireia Larrañaga,  
Ziortza Martín,  
Amaia Mundiñano.

#### Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

#### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus

#### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
publi@goiena.eus

#### EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07

berriak@goiena.eus

#### Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

#### Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

#### LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

## BERBAGAI

# "Maskara jaitzi eta distantzia handituz komunikatzen gara"

AITZIBER URIARTE GIPUZKOAKO GORREN ELKARTEKO LEHENDAKARIA

**Jone Olabarria** BERGARA

Gipuzkoako pertsona gorren elkarteko lehendakaria da Aitziber Uriarte bergarra. Gorra jaiotzez, pandemiak eraginda pairatzen duten egoera azaldu du Uriartek. **Nola larriagotu dira komunikazio-arazoak maskarekin?**

Ezpainez gain, hitz egiten digunaren aurpegia eta adierazkortasuna ikusi behar ditugu ulermenerako. Maskara garden batek, homologatuta ez egoteaz gain, adierazkortasun hori kentzen digu eta ulermena zailtzen digu. Eskola normatiboetan dauden haur gorren kasuan, arazoa areagotu egiten da, irakasleek edo ikaskideek keinu hizkuntza ezagutzen ez badute.

**Zer egiten duzue halakoetan?**

Gaur egun, maskara jaitzi eta distantzia handitzen dugu, baina hainbat herritarrek beldurra dute, eta, batzuetan, atentzia ere ematen digute maskara jaitzita egoteagatik kalean gaudea.



Teknologiak komunikazioa asko erraztu duela azaldu du Uriartek. GOIENA

**Sare sozialetan, medikuarenean izan zenuen arazoa partekatu zenuen...**

Medikuarekin hitzordua nuen eta interprete-zerbitzua eskatu nuen, baina aitari deitu zioten hitzordua aurreko egunera

pasatzeko, eta egun horretarako ezinezkoa zen interpretea izatea. Kantsultan gorra nintzela azaldu nuen, eta irtenbide bakarra idazketa izan zen, maskara ez baitzuen kendu nahi izan medikuak.

Oso desatsegina izan zen. Medikuek ez dute horrela erantzuten, eskerrak, eta modu atseginean saiatzen dira erantzuna ematen.

**Zer baldintza dituzue interprete bat eskatzeko?**

Gipuzkoan, Euskal Gorra-en bitartez, bi interprete ditugu. Egoera pertsonaletarako interpretea behar badugu –medikuengana joatea, seme-alaben tutoreekin biltzea...–, aurrerapenarekin deitu eta hitzordua zehazten dugu. Donostiako Ospitalean, esaterako, interpretea egon zen, baina, murrizketekin, lanpostua kendu zuten eta une honetan ez dugu zerbitzu hori. Eskatu arren, ez dugu erantzunik jaso.

**Maskaren erabileraren aurretik, zer arazo zenituzten egunerokoan?**

Pertsona gor guztiak ez gara berdinak. Batzuek nahikoa maila onarekin hitz egin dezakete, baina beste batzuek zailtasun gehiago dituzte. Entzuleen artean, pertsona batzuek erraz ulertzen dute eta beste batzuek gehiago kostatzen zaie, urduri jartzen dira eta komunikazioa mozten dute. Azkenean, bi aldeek elkar ulertzeko gogoia izan behar dugu guztiok. **Beharrezkoa litzateke denok keinu hizkuntza menderatzea?**

Egokiena hori litzateke, horrela, arazo horiek guztiak desagertu egingo liriateke, baina, hori gertatzen den bitartean, ondo ahoskatuz aurrez aurre hitz egitea eskatzen dugu, gehiegikeriarik gabe, eta, komunikazioa lortzen ez bada, keinu deskribatzaileetara jotzea. Pazientzia pixka bat eta adimena lehenestea da kontua.

**Gipuzkoako gorren elkarteko lehendakaria zara; zein da elkartetik egiten duzuen lana?**

Elkartea martxan jarri zenean, ez zegoen mugikorrik, ez ordenagailurik, ezta teknologiari esker gaur egun ditugun baliabide guztiak ere. Elkartea gorren arteko topagunea zen. Komunikazioa arina eta ahaleginik gabea izan zitekeen, esperientziak, ideiak, eta abar trukatzeko genituen. Gaur egun, adinekoek jarraitzen dute gehien joaten, gazteek beste baliabide batzuk dituzte harremanak izateko, baina, oraindik ere, leku horretatik saiatzen gara sortzen zaizkigun arazoak konpontzen edo horiek erantzuten. Esaterako, zein izango zatekeen adineko pertsona gor baten egoera egoitza batean? Egoera batzuk kontuan hartu beharko dira etorkizunerako.

## ITURRI ONETIK

### Eskoriatzar batek egindako erlojua, Gasteizen ikusgai

Abuztua ezkerreko ikusgai dago Gasteizko Santa Maria katedraleko erloju historikoa. Katedralean bertan antolatzen dituzten bisita gidatuen beste altxorretako bat da. Erlojuaren makineria Francisco de Paula Abaituak egin zuen, XIX. mendean. Eskoriatzan 1813an jaiota zen Abaitua. Hala eman du aditzera orain haren birbilobak. Elorriaga Torrean egon da urte askoan erlojua, baina Katedraleko Fundazioak eskuratu zuen eta Oscar Atxaerandiok birgaitu zuen, katedralean ikusgai jartzeko.

## ALBISTE IZAN ZEN

2013-12-22

### Loteriako sari nagusia Arrasaten tokatu zen

Espainiako loteriako lehen saria Arrasaten tokatu zen, Araba etorbideko bigarren administrazioan. 62.246 zenbakiak ia 180 milioi banatu zituen; txarteleko, 400.000 euro. Saltzeko zituzten 450 txartelak saldu zituztela zioen, pozez, Jose Mari Garai arduradunak. Santamas azoka herrian, festa bikoiztu egin zen domeka eguzkitsuan eta Fagor Etxetresna Elektrikoen itxierak herrian lagatako laino beltzak uxatu zituen egun batez.



GOIENA

## HAU BE BADOGU!

### 'Txertoa' izan da asteko hitza sare sozialetan

@anagalarraga: "1.100.000 pertsona baino gehiagok hartu dute txertoa AEBetan. Haietatik hiruk erreakzio alergikoa izan dute; azkar etorri dira beren onera. Tarte horretan, COVID-19ak 90.000 pertsona hil ditu herrialde horretan".

@enarasc: "Hilabete gutxitan bizitzak salba ditzakeen txertoa zientzian egindako apustuari esker lortu dugu. Oraindik zailtarik al dago honek guztiak duen garrantziaren inguruan?".

@biziryk: "Txertoa kapitalismoaren printzipioen arabera banatuko da; nola ez".

## 'Pino radiata'-ren ondoren, zer, eukaliptoak?

### PITER ENCINAS

EKOLOGISTAK MARTXAN TALDEKO KIDEA  
ARRASATE

Hazi Fundazioak 2019ko bere txostenean esaten digu *pino radiata*-ren azalera 2.233 hektarea gutxitu dela, nahiz eta Euskadin 115.349 hektarea betetzen dituen; espazio gehien hartzen duen espeziea da. Ostera, eukaliptoak lehen baino 894 hektarea gehiago betetzen ditu, horietatik 786 Bizkaian.

Uste dut eukaliptoak landatu baino lehenago Galizian gertatzen dena aztertu beharko luketela *arduradunek*, baita gaur egun Portugalen egiten ez dutena ere. Orain arte egin dutena aldatu egin nahi dute, desmasia batzuk gertatu eta gero. Eta ez da bakarrik 2017an izandako baso-suteagatik, 500.000 hektarea baino gehiago erre baitziren. Bestalde, adituek esaten dute lurra indarge dagoela, akuifero batzuk desagertu edo lehortuta, eukaliptoren monolaborantzaren ondorioz.

*Banda marroia*-k erakusten digu edozein monolaborantza ez dela ona, gaixotasunak sor ditzakeelako. Gaixotasun hori XVIII. menderako ezaguna zen. Kaliforniaren alde handi bat suntsitu zuen eta adituek esaten zuten monolaborantza asko lagundu zuela gaixotasun hori zabaltzen.

Hori esan eta gero, kritika zorrotz bat egin nahi dut: nola da posible ustezko adituek gaixotasun horren aurka borrokatzeko fumigazioa aukeratzea? Bururatzen zaidan lehenengo gauza da haien dimisioa eskatzea, erabaki hori onartezina delako.

Basoen industrializazio indiskriminatuaren alternatiba hor dago.

Lau lerro azaltzeko azkar hazten diren espezieek alternatiba dutela:

Espezie autoktonoekin basoak landatzea, baina helburu batekin: kalitatezko egurra lortzeko, ondoak,

floraren eta faunaren biodibertsitatea zaintzeko, gune handiak eta aldi berean ez dira sekula moztuko. Bestalde, onartu beharko genuke Nafarroan daukaten kudeaketak erakusten diguna posible dela, eta ekonomikoki errentagarria izan daitekeela ere bai.

Oharra: hau guztia gertatzen den bitartean, foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak ez dute ezer esaten. Zurraren sektorea eta baso jabeak ez daitezen haserretu?

## Aitor Etxarte Berezibar, ezkerreko euskalduna, errekaletarren hirugarren belaunaldikoa

### ESTHER GOIKOLEA, JUAN RAMON GARAI, JULIA MONGE ETA ENEKO BARBERENA

ARRASATE

Aitorren ama, Pilar Berezibar Galdos, arrasatearra, Iruñera ezkondu zen. Haurdu gelditu zenean, bere desioa semea arrasatearra izatea zenez, herrira etorri zen erditzera. Hala, Aitor Santa Marina kaleko 3. zenbakian –egun, 7. zenbakia– jaio zen, 1956ko otsailaren 7an.

1974an, ikasle zenean, Diktadura Hiltzaileen aurkako borroka klandestinoan murgildu zen Aitor, Liga Komunistan eta Nafarroako ikasle komiteetan. Ibilbide honetan, euskararekiko militante sutsua izan dugu Aitor. Beti konprometitua, kritikoa eta goxoa. Mundua eraldatu nahi horretan, pedagogia aukeratu zuen ogibide.

Arrasatearra sortzez eta sentimenduz, ama Pilarren ardura herriarekiko lotura izatea zen. Bertako seme sentitu, izan eta lekua eman zitzaion. Beste lan askoren artean, bere familiaren historia berreskuratzen ibilitakoa dugu Aitor; berari esker jakin dugu "gorrixek pasatu zituztela gorri euskaldunak izatearren", bai 1936an, baita diktaduran ere.

Kolpe faxista izan zenean, erresistentzian buru-belarri aritu ziren errekaletarren

lehen belaunaldikoak. Ondorioz, familia honetako sei senidek borroka honetan bizia galdu zuten eta bizirik geratu zirenek, *gorrixek pasatu*. Familia honek izan zuen ibilbidea dela eta, Aitor askotan etorri zen bailarara, erresistentziaren alde egiten genituen omenaldietara. Justiziaren aldeko bide honetako kidea zen, dudarik gabe. Gogoan izango ditugu bere ekarpenak –datuak, argazkiak, historia...– eta bere azken egunetan eskerrak bidali izana, "memoriaren alde egindako lanarengatik". Aitor, zu ere gure memorian egongo zara betiko, zure arbasoak egongo diren bezalaxe!

Pertsona handiei agur esatea ezinezkoa da. Zure lana, laguntza, dokumentatua geratuko da. Horren preziatu den eta zenuen egiaren eta justiziaren aldeko borrokan, frankismoaren azken aztarnak desagertu arte, Euskal Herri libre eta euskalduna lortu arte!

Arrasatetik, Begoña, Hedoi eta Ziargiri doluminak eta besarkada indargarriak luzatu nahi dizkizuegu. Memorian ditugunak betiko geratzen dira gure artean! Oraintsu arte, adiorik ez!

## Olazar erretiratu elkarteko bazkideei

### PEDRO HERNANDO

ESKORIATZAKO OLAZAR ERRETIRATU  
ELKARTEKO ZUZENDARITZA  
BATZORDEAREN IZENEAN  
ESKORIATZA

2020. urte honetan, konfinamenduagatik, etxeratze-aginduagatik, maskarengatik, ziurgabetasunagatik eta gabeziengatik pandemiak mundua hankaz gora jarri duen eta jende askorentzat urte arraroa eta zaila izaten ari den urte honetan, zuek ondo izatea espero dugu.

Zuzendaritza Batzorde honek ezin izan duen arren aurtengo egutegian aurreikusitako ezer martxan jarri, elkartzen jarraitzen dugu –ahal izan dugunean– elkarrearen gai guztiak egunean izateko.

Bilera horietako batean, aho batez erabaki zen aurtengo bazkide-kuotarik ez kobratzea, aurten ezin izango dugulako ezer egin. Gabonetako meriendan urtero egiten den Gabonetako saskien zozketa egitea ere erabaki zen: 25 pakete zozketatu dira, eta otarre bat emango zaio Eskoriatzan dugun 100 urtetik gorako pertsona bakarrari.

Zozketa abenduaren 14an egin zen, Kultur Etxean, bilerak egiten ditugun lekuan, eta udal langile bat jarri genuen zerbaki saridunak ateratzeko lanetan. 25 saridunen izenak abenduaren 21ean jarriko dira erretiratuen bulegoaren atean eta, beste ohar guztien moduan, Kultur Etxeko iragarki oholean. Irabazleei banan-banan ere deituko zaie telefonoz. Paketeak jaso ahal izateko erretiratuen bulegoan zein egun eta ordutan egongo garen ere jakinaraziko da. Gogorarazten dizuegu paketea jaso ahal izateko ezinbestekoa dela bazkide txartela erakustea.

Datorren urtean jarduerak egin ahal izatea espero dugu, eta lerro hauek aprobetxatu nahi ditugu guztioi jai zorionsuak opatzeko eta besarkada estu bat emateko.

## Beste kartzela-zigor bat Aretxabaletako ostalaritzari

### GARIKOITZ DUBLAN ETA ARIANNA ABRIL

ARETXABALETA

Berriro ere, prebentiboki eta epe mugagabez gatibu gaude.

Azken hilabeteotan jasandako etengabeko espetxeratzeak nahikoak ez, eta oraingoan, berriz ere, azken askatasun arnasa hartzen hasiak ginela, preso eraman gaituzte. Gatibu, joan-etorri hauek gure emozioetan, gure bizi baldintzetan, eraginik izango ez balute bezala.

Justiziarekiko, zuzendidearekiko eta, orokorrean, sistema osoarekiko ikuspegi aldaketa bat sortuko ez baligute bezala. Nola erregu egin, dei egin

enpatiari, ulertuak izateari, herritarren eta Estatu osoaren konpromisoari?

Jarri dezagun adibide gisa espetxe-zigor prozesu bat. Pertsona edo entitate bat salatua, ikertua eta errudun izatearen ebidentziak aurkeztuz gero, epaitua izango litzateke. Errutasuna ziurtatuko luketen nahikoa arrazoari baleude, kondenatua izango litzateke. Gatibuak bere zigorra beteko luke, eta, jarrera kontuan hartuz, kondena murrizteko aukeraz gozatu. Hau guztia, birgizarteratzean oinarrituriko eredu baten oinarrituz.

Estrapola dezagun kasu hau ostalaritzara. Hilabeteak kartzela etxe gisa inposatzen, askatasuna debekatzen, eta pandemiak sortu dizkigun barne tentsioak arintzearen, dosi txikietan "dirulaguntza" deituriko lasaigarriak ematen.

Ez dugu paliatibo gehiagorik behar; lerro hauetan barne murgilduta daudenei, bizitzen uzteko eskatzen diegu, libre arnasten uzteko. Bidali iezaiozue gizarteari gure sektorearekiko konfiantza duzuen mezua, gure birgizarteratzean sinesten duzuela. Ostalaritza, gaur egun, ez da infekzioen arreta foku. Bete du, soberan, espetxe-zigorra eta egungo bizimodura guztiz egokitua dago. Ez erabili, arren, gure etengabeko espetxeratzea pandemiaren irtenbide gisa, lasaitze sozial gisa, seguruago sentitzeko premia dutenen lasaigarritzat. Ez, behintzat, ekitaldi sozial eta kulturalak egiten jarraitzen diren bitartean, hauen birusarekiko prebentzioa urruti baita guretik.

Berriro ere, Aretxabaletako ostalariok preso jarraitzen dugun bitartean, oraingoan brote fokalizatu batengatik, birusak gogor jotzen jarraitzen du. Ez gaitzazue koma prozesu sakon eta iraunkor batera bultzatu, zuen eskutik eskegirik, dingilizka legez baitago gure izatea.

Mesedez, arren, hausnar ezazue!

# Lehiaketa, Mondragoeko hiztegia aberasteko

Euskaraldiaren Arrasateko herri batzordeak txapelketa linguistiko bat abiatu du, "arrasatear jatorriko hitzak berreskuratzeko". Dagokion esanahiarekin hitza idatzi, BAZen edo Kulturaten entregatu eta zozketa batean parte hartuko dute lehiakideek

**Hasier Larrea** ARRASATE

Bi aste iraun duen ariketa soziolinguistikoa amaitu den arren, berau herri-mailan antolatzekeo lantaldeak ez du jardura eten. Izan ere, Jokin Etxebarria kazetari eta Euskaraldiaren koordinatzaileak azaldu duenez, urtean zehar egindako bilerek "egingarriak diren ideia sorta ugari" utzi dituzte; horren froga da *Arrasateko hitzak ezagutzen?* dinamika berria.

Herritarrentzat ariketa "polita" izan daitekeela uste du Etxebarria. Hasiera batean, "Euskaraldian zehar, herri batzordeko kideen bitartez, herriko hitzak zabaltzea" zen asmoa: "Baina ideia garatu ahala konturatu ginen hobe zela aukera hori jendeari uztea, guztion artean hiztegi aberatsagoa ateratzeko". Hala, "batzuen ahanzturan egon daitezkeen" hitz horiekin txapelketa bat egitea otu zitzaion lantaldeari, eta baita egin ere.

**Ariketa "irekia"**

Lehiakideei dagokienez buruan parte-hartzaile finkorik izan ez dutela zehaztu du Etxebarria: "Zaharrek eta gazteek, guztiek

## URTARRILAREN 15A ARTE DAGO PARTE HARTZEKO AUKERA, LIBURUTEGIRA EDO BAZ-ERA JOANDA

parte hartu dezakete bertan, herritar orori begirako ariketa delako". Alabaina, belaunaldien arteko jolas gisa planteatu dezakete askok, zenbait hitz "haurren eta aitona-amonon harremanetatik berreskuratu daitezkeelako".

Izan ere, kazetaria jakitun da belaunaldi berriei batez ere euskara batuan irakasten zaie. Hori gaitzestetik urrun, aitona-amonon bilobei erakusten dieten Mondragoeko hizkera lau haizetara zabaltzea erronka interesgarritzat jotzen du Etxebarria, eta bere esperientzia propioa jarri du adibidetzat: "Hitz posibleen zerrenda osatzen genbiltzala, *txitxinpe* hitza atera zen; nik betidanik lotu izan dut, besterik gabe, taberna baten izenarekin, baina orain badakit *txitxinpe*-k *teilatupea* esan gura duela".

Ezeren ginetik, antolatzaileei gustatuko litzaieke jendeak apuntatzen dituenak "Mondragoen ohikoak diren hitzak izatea, erabiltzen direnak eta erabili izan direnak". Gaurkotutako hitz propioak ba al dauden galdetuta, "egongo balira, ongietorriak" izango lirakeela aipatu du Etxebarria, nahiz eta tententzia nagusia "iraganean bilatzea" izan daitekeela uste duen.

**Nola parte hartu?**

Txapelketako lehiakideek Euskaraldiko lantaldeak propio diseinatu duen txantilo batean edo "paper normal batean" idatz dezakete euren proposatutako hitza, izen-abizenekin eta telefono kontaktarekin batera. Jatorrizko hitzari azalpen txiki bat gehitu beharko diote, hitza bera esaldi batean txertatuz edo zuzenean esanahia gehituta.

Txantilo horiek ez dira BAZen edo Kulturateko liburutegian egongo; etxetik eraman beharko dira bi guneetako batera, "COVID-19a dela-eta herritarren arteko gutxieneko kontaktuak ekiditeko". Orrialde honen ezkerreko aldean dauka irakurleak formularioa mozteko aukera.

Herritarrek BAZen eta liburutegian jarritako kutxetan sartuko dute euren ekarpena, eta urtarrilaren 15eko eguerdira arte izango dute parte hartzeko aukera. Arratsalde horretan, zozketa bidez emango dira aditzera txapelketako bi irabazleak, eta, bide batez, euskal kulturarekin lotutako produktuez osatutako saski banaren jabe egingo dira.

Herritarrek izango dute, beraz, euskararen inguruan aritzeko eta jolasteko aitzakiarik, hasiberri den dinamika horrek proposatu bezala. Norbaitek bultzadaxoa behar badu, takarraren ibili baino, hobe trankil aritzea, hitzak ez baitira eurak bakarrik itzungiko; ez, behintzat, jakingura dagoen bitartean.



ENEKO AZURMENDI

## Erakusleho onena, Altunarena

Altuna lurrindegia jaso du aurten ere Arrasateko Gabonetako erakusleho onenaren saria. Amaia Albes moda diseinatzaileak bigarren saria irabazi du, baita herritarrena ere. Hirugarren erakusleho onena OIgetarena izan da eta laugarrena, Belunena. Haur eta gazteen garaikurra, berriz, Kids&Us dendak jaso du. Guztira, 1.851 herritarrek parte hartu dute bozketan.

## GORA ETA BEHERA




### Erdiguneko kantoiak, "ilun"

Eguzkia sartzen denean herriko alde zahar inguruko kaleek "oso argiztapen gutxi" dutela salatu dute zenbait arrasatearrek. Harridura azaldu dute, aldiz, Biteri plazan argiztapen bikaina dagoelako; ez dute ulertzen nola egon daitekeen "halako alde" kale batetik bestera.

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?**

[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)  
edo 688 69 00 07.



GOIENA

### Neguko oporretako ekintzak ludotekan eta gazte txokoetan

Gazte Bulegoak, Udalarekin eta hezkuntza eragileekin elkarlanean, haur eta gaztetxoei zuzendutako egitarau berezia antolatu du abenduaren 26tik 30era. Gaztegunean zirku tailerra egingo dute zapatu arratsaldean eta bingo musikatua, berriz, domeka arratsaldean. Eta datorren astelehen, martitzen eta eguaztenez denetik egin ahal-

ko dute gazteek gazte txokoetan: dantza urbano, *twerking* eta *orienting* ikastaroak, eski irteera frustratua, mendi irteerak, arropak eta objektuak pertsonalizatzeko tailerra, *tupper sex*, sukaldaritza beroa eta argazkigintza tailerra, besteak beste.

Ludotekei dagokienez, astelehenetik asteazkenerako goizak aprobetxatuko dituzte, Atxalde gazta proiektua bisitatzeko, familia altxorraren bila aritzeko eta kilikiak ezagutzeko. Informazio gehiago, [goiena.eus](http://goiena.eus)-en.



## Txapelketan parte hartzeko txartela

*Arrasateko euskarazko hitza*

HITZA: \_\_\_\_\_

ESANAHIA: \_\_\_\_\_

IZEN-ABIZENAK: \_\_\_\_\_

HARREMANETARAKO ZENBAKIA: \_\_\_\_\_

U-15ean egingo dugu *iskl*

# Gizarte zerbitzuetara %14 gehiago, eta 3,2 milioi euroko mailegua

2021erako udal aurrekontua onartu zuen udalbatzak eguenean egindako osoko bilkuran, EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin; EH Bilduk ezezko botoa eman zuen

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Onartu berri duten udal aurrekontua "etorkizunera begirakoa" da, Maria Ubarretxena alkateak azpimarratu duenez. "Jasangarria eta, batez ere, mugikortasun paradigma berrira egokitzen dena", gaineratu du. "*Ekobulebar*-a bakarrik ez, bidegorrien jarraipena ere egingo dugu eta auzo altuetara igotzeko eta jais-teko igogailu bertikalak ere bai, Erguin auzoan zein Santa Teresa eta Galizia kaleetan. Bestalde, tokiko merkataritzari eta ostalaritzari bideratuko zaizkion dirulaguntzak ere nabarmentzekoak dira. Inor atzean utziko ez duen aurrekontua izango da eta gizarte zerbitzuetara bideratuko dugun dirua nabarmen haziko da. Azkenik, kulturak eta euskarak izango duten garrantzia azpimarratu gurako nuke".

**Arduraz, 'Ekobulebar'-agatik**

EH Bilduk, bestalde, ez du begi onez ikusi *Ekobulebar* proiektuarekin aurrera egin izana, eta hori izan da ezezkoa emateko gako nagusietako bat. "Moratoria bat eskatu genuen, ez daukarako zentzurik zorpetzea ekarriko duen proiektu bati heltzeak; are gehiago, atzetik datozen beste proiektu asko arrastaka daudenean oraindik, bukatu gabe. Juan Arzamendi Musika Etxeaz eta Kulturaz aparte, Amaia antzokiaren berritzea, Emakume Txokoaren lekualdatzea, Abaroako eguneko zentroa, eta abar, eta abar. Horrek arduratzen gaitu".

**Ikuspegi sozialista, jasota**

Alderdi sozialistak "positiboki" baloratu du aurrekontua: "Hasieratik parte hartu baitugu eta gure ikuspegi sozialista kontuan hartu baita". Halaber, uste dute "oso garrantzitsua" izango dela

2021ean herritarren ongizatean gehiago inbertitzea. "Hala nola gizarte zerbitzuak, etxerako zerbitzuak, pobreziaren aurkako plana, eta abar", zehaztu dute. "Gaur egun, COVID-19a dela eta bizi dugun egoera ezagututa,

Udalean diru-sarrera gutxiago egongo dela kalkulatu dugu, baina horrek ez du atzean utziko gure helburua; hau da, inbertsio publikoa udalerraren motor bihurtzea. Gogoratu behar da sozialistok beti lagunduko



*Ekobulebar*-aren baitan Maalako biribilgune ondoan egiten ari diren lanak. E.A.

## 2021eko udal aurrekontua

36.202.466 euro da datorren urterako aurrekontua, eta 3.200.000 euroko mailegua aurreikusten du. Era berean, 3.852.884,43 euro bideratuko ditu Udalak garapen komunitarioa.

### Partida garrantzitsuenak

- **1.417.341,26 €** Kulturola proiektuaren obra amaitzeko eta barrutik ekipamenduarekin janzten hasteko.
- **1.230.000 €** *Ekobulebar*-aren baitan, bidegorriari jarraipena eman eta Garibai etorbidearen zati bat oinezkoentzat bihurtzeko.
- **1.229.000 €** Etxeko laguntza zerbitzuetarako eta pobreziaren kontrako larrialdi planetarako.
- **417.828,37 €** Enplegu sustapenaren barruan, egoera zaurgarriari dauden herritarrei lan aukerak eskaintzeko.
- **375.000 €** Gautxori esparrurako, Mondragon Unibertsitateak garatuko duen esparruaren zati publikorako.
- **350.000 €** Ekintza kulturaletarako.
- **300.000 €** TAO sistema ezartzeko prozesua aurrera eramateko.
- **300.000 €** Ostalariei dirulaguntza zuzenak bideratzeko.
- **250.000 €** Parte-hartze prozesuetarako.
- **200.000 €** Juan Arzamendi Musika Eskola birgaitzeko falta den zatia hasteko.
- **217.500 €** Autobus linea berria abian jartzeko. Oro har, 747.500 euroko partida izango da garraio publikora bideratuko dena.
- **200.000 €** Zalduspeko pabiloi zaharrak eraisteko, behin eraikin zahar horiek erabiltzen dituzten eragileen leku-aldaketa eginda.
- **190.000 €** Erguin guneko herri eskolako komunak berritzeko.
- **136.703 €** Goierna Komunikazio Taldea. Prentsa idatzirako eta telebistarako 115.703 euroko partida bat bideratu da eta irratirako, berriz, 21.000 eurokoa.
- **120.000 €** Obenerreka auzoko frontoian parkour parkea egiteko.
- **112.600 €** Debagoieneko Mankomunitateko Enplegu Sailerako.
- **110.000 €** Galizia kalean igogailu publikoa egiten hastea.
- **87.500 €** Langabeak kontratatuzko laguntza.
- **88.374 €** Euskara dirulaguntzak.
- **70.000 €** Abiadura radarretako zinemometroa alokatzeko.
- **68.000 €** Udal ekintzen euskarazko zabalkundea egiteko.
- **60.000 €** Gazteen emantzipazio aukerarako.
- **50.000 €** Merkataritza arlorantz zuzenduriko laguntzak.
- **44.345 €** AED elkartearikiko hitzarmenari bide emateko.

diegula egoera okerrean dauden herritarrei, ahulenei".

**"Ez da gehiengo sozialarentzat"**

Elkarrekin Arrasate udal taldearen ustez, azkenik, aurrekontuak ez die erantzuten Arrasateko gehiengo sozialen, klase popularraren eta langile familien beharrei. "Zerbitzu publiko eta laguntza sozialak indartzea inoiz baino beharrezkoago denean, pandemia honek sistemaren zuloak azaleratu dituenean, Udal Gobernuak krisi sozial eta ekonomiko honek sakondu dituen desberdintasunak egonkortu eta areagotuko ditu onartutako aurrekontu honekin".

**Azken unera arte, negoziatzen**

Nabarmentzekoa da Udal Gobernu eta EH Bildu aurrekontua negoziatzen ibili direla azken momentura arte. "Ahal duguk esan zigun ez zeukala ezer negoziatzeko gurekin. EH Bildurekin, ordea, negoziatu dugu eta jarrera positiboa ikusi dugu, gainera. Garrantzitsua da ahalik eta talde gehienek babesa jasotzea aurrekontuak, eta horretarako lan egin dugu. Baina, bederatzi puntutatik zaspitan akordioa lortu badugu ere, EH Bilduk ezezko botoa eman du, eta hori dezepzioa izan da", azaldu du Anuska Ezkurrak, Udal Gobernuaren bozeramaileak.

EH Bilduko zinegotzi Kepa Urteagak ere aitortu du pozten dela adostasunera ailegatzeko esfortzua egin duelako Udal Gobernuak, eta aurrerantzean ere

**KULTUROLA ETA 'EKOBULEBAR'-A DIRA 2021ERAKO PROIEKTU NAGUSIAK, GIZARTE LAGUNTZEKIN BATERA**

hala izatea espero du. "Hala ere, *Ekobulebar*-etik ez dute koma bat ere mugitu gura izan. Laburde proiektua gaizki iruditzen ez zaien arren, haien proiektua aterako dute aurrera".

**Maileguarekin, zorpetzera**

Aurrekontuak mailegu bat eskatzeko aukera aurreikusten du. Izan ere, diru-sarreretan 2.000.000 euroko jaitsiera aurreikusten du Gobernuak. "Mailegua eskatzea posible da, Arrasateko Udala *zero zor* egoeran dagoelako. Egoera onean gaude, eta horrek ahalbidetzen digu zorpetzera joatea. Momentu zailetan, krisi egoeretan, inbertsio publiko izan behar da traktorea. COVID-19a gogor jotzen ari zaigun honetan, beraz, inbertsio publiko areagotu egin behar dugu. Orain da momentua mailegu bat eskatzeko", dio alkateak.

Urteagak gaineratu du, ordea, behin zorpetzera joanda, "herritarren ongizaterako izan dadila", eta ez "porlanetzko" proiektuetara bideratzeko.

**Gizarte zerbitzuetan, hazkundera**

36.202.466 euroko aurrekontua izango du Arrasateko Udalak 2021erako, 2020erako izan duena baino %3 gehiago -34.829.173 eurokoa izan du aurtur- horrez gain, esanguratsua da gizarte zerbitzuetara 3.852.884,43 euro bideratuko dituela Udal Gobernuak datorren urtean, eta hirigintzara, 3.600.000 euro. "Gizarte zerbitzuetara bideratuko den diru kopurua %14 haziko da. Egoera dela eta, arlo horretan ahalagin berezia egitea dagokigu", adierazi du Ubarretxenak.


**Onartutako beste puntu batzuk** Aurrekontuaz gain, beste hainbat puntu ere onartu dituzte abenduko osoko bilkuran, hala



Kulturolara bideratuko da 2021eko udal aurrekontuan aurreikusita dagoen partidarik handiena. E.A.



Igor Urizar eta Eva Abuin. GOIENA



## Urizarrek uko egin dio karguari

Elkarrekin Arrasate udal taldeko zinegotzi Igor Urizarrek uko egin dio karguari, eta Eva Abuinek ordezkatuko du otsailetik aurrera, "kudeaketa administrazioak medio". Udalbatzak eskertu egin dio Urizarri azken sei urte hauetan egindako lana.

nola 2020ko ordenantza fiskalen aldaketa -EH Bildu abstenitu egin da-, 2020ko aurrekontuan 375.000 euroko kreditu espediente aldaketa egitea, 2020-2023 aldirako Udalaren dirulaguntza plan estrategikoaren bigarren

gehigarria edota 2021eko lanpostuen zerrenda.

**Mozioak eta Gabonetako karpa**  
Bestalde, Saharaldeba elkarteak mozio bat aurkeztu du, Mendebaldeko Saharak bizi duen egoe-

ra salatuz, eta udalbatzak onartu egin du mozioa. Alderdi sozialistak aurkako botoa eman du, azalpenik eman gabe.

Halaber, Egiari Zor fundazioak aurkeztutako adierazpen instituzionala aho batez onartu dute.

Fundazioaren izenean Olatz Etxabe arrasatearrak hartu du hitza, eta eskerrak eman dizkie jasotako babesagatik.

Horrez gain, EH Bilduk udal finantzaketarako Foru Funtsa eta zorpetzeari buruz aurkeztu

duen mozioa atzera bota dute EAJren eta sozialisten botoek.

Azkenik, Gabonetako karpa dela eta, ekitaldietan karparen kanpoaldean pilaketak ekiditeko dei egin diete herritarrei: "Izan gaitezen arduratsuak".

## TAOren pleguekin gorabeherak

TAO zerbitzua kontratatzeke pleguak ere onartu dituzte osoko bilkuran, Udal Gobernuaren aldeko botoekin eta EH Bilduren aurkakoekin, eta zerbitzuaren azpikontratazioak eztabaida piztu du. EH Bilduk eredu publikoaren alde egin du. "Pleguek ez dituzte bermatzen langileen soldata duinak. 22.000 euro gordin jasoko dituzte urtean, eta soldata horiek lotsagarriak dira".

EAJk erantzun dio Gipuzkoako hitzarmena aplikatuko dietela, "Espainiakoa baino hobe", dena. "Bestalde, soldatak eta baldintza duinak baloratu egingo ditugu kontratazio mahaiaren enpresa aukeratzeko. Ez egin demagogiarik".



Assata eta Sarrabete taldeetako kideak. GOIENA / BORJA TRIVIÑO



# Elektronika eta folka, herritik eta herriarentzat

Herriko musikariz osatutako Assata eta Sarrabete taldeek izango dute herritarren kontzertu gosea asetzeko ardura zapatuan eta astelehenean; Gabonetako dinamika herrikoiak barnebiltzen dituen karpa era guztietako proiektuen topaleku izaten ari da

**Hasier Larrea** ARRASATE

Santamas Komisiñuak herriko eragile ezberdinekin landutako egitarauak ibilbide erdia bete du jadanik. Abenduaren 11n inauguratu zuten Biteriko karpa Ekiñe Casadok eta Bloom taldeak, eta beste kontzertu batekin, kasu honetan Los Killos taldeak eskainiko duenarekin, agurtuko dute urtea abenduaren 30ean karpa zuriko oholztatik. Bitartean, ia atsedetik hartu gabe ari dira bertan ekintzak antolatzen: artisau azoka, haurrentzako tailerrak, ipuin kontaketak, kabaret umoretsua, herriko musikariren kontzer-

tuak... Hain zuzen, musika bizi duten artistak igoko dira oholtzara datozen egunetan, Assata eta Sarrabete banden atzean baitaude aurten kontzertu apurrez elikatu behar izan duten herriko zenbait musikari.

Leire Etxezarreta abeslari, pandero-jole eta gitarra-jolea da Sarrabete hirukotea osatzen duen arrasatear bakarra. Kontrara, Assata proiektuko kide guztiak dira jatorriz arrasatearrrak. Bi taldeek badute puntu amankomunik: azken hilabeteetan isilpean landutako abestiak ozen plazaratu nahi dituztela,

aukera iristen zaienean, hain zuzen ere.

**Oasia basamortuan**

Urte "lehorra" izan dela ez dute ezkututzen Arkaitz Biain Assatako abeslariak eta Etxezarretak berak. 2019 amaieran kaleratu zuten Biainek eta konpainiak formazio berriarekin aurkeztutako lehen lana, *Dantzatu, mardarikuok!* diskoa. Otsailean egin zuen Irati topalekuan bere aurkezpen formala musika beltzetik edaten duen banda kritikoak. Santamas Komisiñuak eskainitako plaza basamortuan oasi bat aurkitzea bezala izan

dela uste du Biainek: "Otsailetik, urtean zehar jotzeko emandaldi batzuk programatuta geneuzkan, baina guztiak bertan behera gelditu ziren". Zuzenekoetan baino gehiago, sormena lantzen xahutu behar izan dituzte indarrak taldekideek, urte hasieran zeukatena baino errepertorio aberatsagoa erdietsiz. Lan horren emaitzaren testigu izango dira zapatuan 19:00etan Biteriko karpán eseriko diren ikus-entzuleak.

**Askotariko estiloetatik edaten**

Bi egun geroago, ezohiko instrumentuak ardatz dituen Sarrabete proiektu musikalak goxatuko ditu, 18:00etan hasita, karpá gerturatzen diren herritarren belarriak. Gorka Bravo eta Pablo Bueno izeneko musikari profesionalek sortu zuten egitasmoa, eta, hirukotea osatu nahian, Leire Etxezarretarengana jo zuten konfinamendu ostean. Etxezarretaren "profil musikalak" bultzatu omen zituen sarrabetea eta buzukia jotzen dituzten adituak arrasatearrari gonbidapena egitera.

"Taldeari ahotsa eta perkusioa jarriko zien pertsona baten bila ari zirela azaldu zidaten, eta, bideo batean abesten eta panderoa jotzen ikusi nindutenez, nigana etorri ziren biak", adierazi du Etxezarretak. Elkartu zirenean konexio "ona" sortu zela dio musikariak, baita proiektuak "arlotan teorikoan eta, batez ere, teknikoan ikasteko" laguntzen diola ere.

Sarrabete folk "bere osotasunean" ezagutzeko atek ireki dizkiola onartzen du abeslariak. Azaroan kaleratu zuten "etxean grabatutako diskoa", eta asteleheneko kontzertuan "sorpresatxo bat edo beste" egongo dela aurreratu du.

Zapatuko Assataren kontzertuan ez da, ostera, sorpresarik izango; bai, ordea, "doinu elektronikoz, musika beltzez eta rockaren zenbait estentsioz irabiatutako koktel dantzagarria". Horrela definitzen du Biainek Anger taldetik eratorritako banda berria: "Betiere, gure xumetasun eta zuritasunetik".

Bi taldeetako ordezkariak bertatik bertara bizi izan dute, "plazerez", Biteriko karpán orain arte emandakoa. Laster iritsiko zaie eurei ere oholta gainean onena emateko abagunea. Assata eta Sarrabete musikak mugarik ez daukala erakusten duten adibide argia dira, eta Biteriko karpa, herri ekimenez egitasmo eder askoak eraiki daitezkeen frogak.

**MUSIKA BELTZA DU ASSATAK INSPIRAZIO; SARRABETEK, BERRIZ, FOLKA ETA HISTORIA DITU ARDATZ**

## Irrien Lagunek ikuskizuna eskainiko dute urtarrilaren 4an

Euskara, antzerkia, musika eta dantza ekarriko dute haurren gustuko pertsonaiek Gabonetako karpá

**H.L.** ARRASATE

2021ari hasiera "alaia" emateko asmoz, Biteri plazako taula Martinbertsoren, Tiritatxoren eta haien lagunaren agertoki bilakatu da bi domeka barru, 18:30ean hasita. *Irrien taupadak* izeneko

ordubete inguruko ikuskizuna eskainiko dute Irrien Lagunek, "jolas, dantza abesti eta irribarre osasuntsuak giro onean" parte-katzeko.

Txatxilipurdik aurtengo edizioiko Txikilandia dinamikaren

baitan antolatu duen neska-mutil gazteenei zuzendutako ekintzetako bat izango da Irrien Lagunek plazaratuko dutena. Aurreko bi egunetan ere egongo da Txikilandiak proposatzen dituen ekintzez gozatzeko aukera; urtarrilaren 2ko goizean, adibidez, ur parkea jarriko dute Musakolako igerilekuan. Arratsalde horretan eta hurrengo egunean zehar gaztegunea eta jolas parkea jarriko dituzte Uarkapeko pilotalekuan, eta tailerrak egingo dituzte gaztegunean.

## Kurrin Fest egitaraua borobiltzeko, The Potes eta Txakurrak

Joan den zapatuan Sukena eta Fito Skinsek bertsioetan oinarritutako kantak plazaratu bezala, Arrasateko The Potes eta Txakurrak taldeek euren doinu propioak taularatuko dituzte domeka honetan, arratsaldeko seietan hasita, gaztetxe oholztan, Kurrin Fest izenez bataiatu duten emanaldi sortari amaiera emateko.

The Potesko musikariak disko berriaren grabaketa prozesuan murgilduta daude gaur egun, eta hilabete batzuk barru argitaratuko dute euren bigarren LPa. Txakurrak rock taldeak, bestalde, diskoa kaleratu gura zuten aurten, baina egoera berezi honek ez die, oraingoan, pausoak nahi bezala ematen utzi.

Santamas Komisiñoko eta AGAKOko kideek atzo arratsaldean banatu zituzten, gaztetxe-ko aretoan bertan, kontzertu horretara joateko sarrerak.



# Gorputz askeak oinarri dituen ilustratzailea

Edur Kortabarría aramaioarrak aniztasunean eta askatasunean oinarritutako lanak sortzen ditu. Lan horietako batzuk ikusgai daude egunotan: Uxue Bereziartua artistaren '41 habitat eta gehiago' erakusketan bi ilustrazio ditu Kortabarríak

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO  
Edur Kortabarría (Aramaio, 1993) ilustratzaileak gorputzetan oinarritutako lanak egiten ditu. Esperientzia propioan oinarrituta, aniztasunean eta askatasunean oinarritutako gorputzak sortzen ditu bere ilustrazioetan. Hala, egunotan, *41 habitat eta gehiago* erakusketan ikus daitezke aramaioarraren bi lan.

## Erakusketa, online

Uxue Bereziartua hernaniarra da erakusketaren sortzailea. "Konfinamendua baino lehen sortutako ideia izan zen *41 habitat eta gehiago*. Uxuek 41 lanez sortutako erakusketa egin zuen: ilustrazioen bitartez habitat edo ekosistema ezberdinak erakutsi nahi zituen. Baina konfinamendua dena aldatu zuen eta erakusketa online izatera pasa zen. Uxueren ilustrazioez gain, beste hainbat kolaboratzailearen lanak ere badaude ikusgai", azaldu du Kortabarríak. Horien artean, bi aramaioar daude: Edur Kortabarría eta Maider Aldai *-La casa* lanarekin-.

*Berexiart.com* da Bereziartuaren ataria, eta han ikus daiteke erakusketa, online. Kortabarríak bi lan jarri ditu: *Nekea* eta *Itota*. "Azaroan zehar positibo eman nuen COVID-19an, eta etxean konfinatuta pasa nituen egunetan bizi izandako esperientzia azaldu nahi izan dut ilustrazioekin", dio Kortabarríak. Erakusketa jarritako lan guztiak salgai daude.

Gorputzekiko obsesioa betidanik izan duela nabarmendu du, eta askotan emakumezko gorputzak izaten direla bere buruan oinarritutako lanak direlako.

## Kortabarríaren ibilbidea

Aramaioarrak Leinn ikasketak egin zituen MUn. Ondoren, Donostiara joan zen, Diseinu Grafikoa ikastera, eta handikartzelonaarako bidea hartu zuen,



Edur Kortabarría aramaioarra. E.K.

## 'MAITASUN PROPIOA' DA ARTISTAREN LAN GARRANTZITSUENA; 2021EAN ARGITARATU NAHIKO LUKE

Ilustrazioan masterra egiteko. "Bartzelonan nengela, martxoan, konfinamenduan sartu ginen eta berriro ere etxera itzuli nintzen, eta hemen bukatu nuen masterra, online", gogoratu du Kortabarríak.



'Nekea' ilustrazioa. E.K.

Orain arte egindako lan garrantzitsuena *Maitasun propioa* dela azaldu du: "Aurten hasi naiz horretan lanean, masterreko proiektua da. Argazkilaritza eta ilustrazioa batzen dituen proiektua da. Ilustrazio serie hori euskarri ezberdinetara eraman nahiko nuke: liburu formatuan, ehunean... Ez dakit, egiteke daukadan proiektua da". Horrez gain, beste hainbat emakume artistarekin ere elkarlanean jarduten du: "Agara Agirre bitxigilearekin proiektu bat egiteko asmoa daukat, ilustrazioa eta bitxigintza batuko dituen; Ilazki Lili diseinatzailearen Biziki markarekin baita ere... Orain, Emakume Sortzaileen taldearekin Gabonetarako kanpaina egiten gabilta".

**Red Fanzinearekin elkarlanean**  
Martxoaren 8aren bueltan, Sastiñan zabaltzekoa zen *Hilerokoa gorria ote* erakusketan ere bere hainbat lan erakutsi behar zituen Kortabarríak. Red Fanzinea kolektiboarendako egindako ilustrazioak ziren, gero Skolastikako Ainhoa Aldazabalek hilerokoaren gaineko erakusketan batu zituenak.

## Bi film eskainiko dituzte Gabon egunetan kultura etxean

'Cinema Paraiso' lan italiarra eta 'Erlauntza' izango dira: azken hori, Mireia Gabilondok zuzendutakoa

### A.E. ARAMAIO

Gabon egitarauaren barruan zinema eskaintzak ere bere tokia izango du. Alde batetik, Ikusiz Gozatu taldeak antolatutako zikloa dago. *Zine italiar* zikloaren barruan eskainiko duten hirugarren eta azken filma domekan izango da, abenduaren 27an: *Cinema Paraiso*, hain zuzen. Emanaldia kultura etxean izango da, 18:45ean. Giuseppe Tornatore zuzendariaren lana 1988koa da, eta Ennio Morricone maisuaren musikak giroten du filma.

Bestalde, abenduaren 30ean, eguaztana, *Erlauntza* filma ikusteko aukera egongo da. Kultura etxean izango da, 18:30ean. Lagun kuadrilla bat aste bukaera pasa joango da etxe batera, eta han dena nahastu egingo da: trapu zaharrak, esan gabeko gauzak, esandakoak, alkohola, droga, eta baita erlauntz bat ere. 93 minutu irauten du filmak, eta protagonistak dira, bestea beste, Aitziber Garmendia, Itziar Atienza eta Getari Etxegarai. Mireia Gabilondo da zuzendaria eta Kepa Errasti gidolaria.

## 2021eko egutegia

Udalak banatu du 2021eko egutegia etxetik etxe. Azaleko argazkia –irabazle nagusia– Jose Luis Madinaren argazkia da. Horrez gain, nabarmendu behar da 2021eko egutegia herriko emakumei eskainia dela –historian zehar nabarmendu direnak–. Hilabetez hilabete horien aipamena agertzen da, eta kontrazalean, guztien argazkiak.



A.E.



SAN MARTIN ESKOLA

## Bisita berezia izan dute eskolan

Olentzeroren eta Mari Domingoren bisita izan zuten astelehen goizean San Martin eskolan. Gelarik gela ibili ziren bi pertsonaia ezagunak, neska-mutikoen gutunak jasotzen eta opariak banatzen. Ondoren, txistor-jana izan zuten patioan, LHko 6. mailakoek prestatuta.



Oier Etxebarria, Paloma Martinez, Lara Garcia eta Vanesa Garcia-Pascual, astelehenean, Caritasen lokalean. MIRARI ALTUBE

## Caritasen herriko taldea indartu egin da aurten

Bi lagun ardurapean zegoen urte hasieran, baina gaur egun lau dira lanean dihardutenak. Pandemiaren eraginez beharrak areagotu egin dira eta zeregin askoko urtea izan da: 59 familia artatu dituzte, 140 bizilagun inguru, eta 23.650 euro banatu

### Mirari Altube ARETXABALETA

Lan askoko urtea izan da Caritasendako, pandemiak ugaritu egin duelako beharrea dauden familien kopurua. Horiei laguntzeko zein egunetik egunera sortutako beharrei erantzuteko lau laguneko lantaldetxoak dago Aretxabaletan; izan ere, Paloma Martinez eta Oier Etxebarriari batu zaizkie Lara Garcia eta Vanesa Garcia-Pascual. Horiekin harremanetan jarri gura dutenek telefono zenbaki honetara dei egin dezakete: 688 76 80 84.

### Itxialdiak, egoera "zaildu"

Laguntza eske doazenei astelehenean egiten diete harrera, Herriko Plazako lokalean: "Atentzioa eta baliabide ekonomikoak eman dizkiegu; formakuntzaren gaineko informazioa banatu eta Udaleko Gizarte Zerbitzuekin elkarlanean, bertara bideratu ditugu laguntzak jaso ditzaketena". Aurten, 59 familia artatu dituzte, 140 pertsona inguru, eta, guztira, 23.650 euro banatu.

Martxoan iritsi zen itxialdiak askoren egoera "zaildu" egin zuen: "Diruz laguntzen hasi ginen, Aretxabaletan bizi eta Udalaren laguntzarik jaso ezin zutenei. Adingabe askok eskolako otordua galtzean etxeko gastua asko igoko zela kontuan hartuta erabaki genuen", diote.

Heldu bakoitzeko -edo bikoteko- 50 euro eman zuten astero, eta adingabe bakoitzagatik 50 euro. Laguntza hori jaso zuten 25 familiak, 70 bizilagun inguruk, eta horietako asko -16 familia, 40 pertsona inguru- berriak ziren Caritasen. Martxo eta apiril artean 5.260 euro banatu zituzten, guztira. "Zerbitzuetan lanean zihardutenak izan ziren laguntza jasotako gehienak, lan eta sarre-

**ITXIALDIAN, 25 FAMILIAK, 70 BIZILAGUN INGURUK, JASO ZUTEN ASTEROKO LAGUNTZA**

ra barik geratu zirenak; izan ere, itxialdiak zuzenean eragin zien horiei, ustekabeak eta bat-batean".

### Beste era bateko laguntzak

Beste laguntza batzuk ere eskaini ditu Caritasak. Elkartasun sarearekin lankidetzan, esaterako, mikrokredituak -3.300 euro guztira- eman dizkiete hiru familiari, espero ez zituzten gastuei aurre egiteko. Aretxarte elkar-tearekin elkarlanean, oster, 10 euroko 500 bonu banatu dituzte herriko dendetan gastatzeko.

Bestetik, Gu Haziak Gara elkar-tearekin batera, jostailu ikastaroak jaso dituzte bi pertsonak. Eta Bidean tailerrarekin elkarlanean formakuntza jaso dute bost bizilagunek. Gainera, Loratu ekimenarekin lankidetzan jostailu bilketa egin da herrian, eta beharra dutenen artean banatu dituzte jasotakoak.

Inork dirulaguntzarik eman gura izanez gero Caritasi, hona hemen bidea: ES44 3035 0002 19 0020021045.



Udal ordezkariak eta programan parte hartu duten emakumeak. ANABEL DOMINGUEZ

## Laneratzeko laguntza jaso dute herriko hamaika emakumek

Zaugarritasun egoeran izanik, Udalak abian jarritako 'Zuekin-lan' izeneko programan hartu dute parte

### M.A. ARETXABALETA

Zaugarritasun egoeran dauden emakumeak gizareratzeko eta laneratzeko *Zuekin-lan* izeneko programa garatu du azken hilabeteetan Udalak. Hamaika emakumek hartu dute parte, eta, azaroaren 17tik abenduaren 22ra bitartean, enplegua bilatzeko orientazio pertsonalizatua eta zainketa pertsonalei eta etxeko zerbitzuari buruzko prestakuntza jaso dute, baita lan merkatuan sartzeko trebetasunak landu ere. Atzo, diplomak jaso zituzten.

### 25 eta 55 urte arteko emakumeak

Koronabirusaren lehen olatuan, ordura arte ezkutuan zegoen langabeen profil bat hauteman zela adierazi dute Udaletik: "25 eta 55 urte bitarteko emakumeak, etxeko lanetan eta adinekoen zaintzan dihardutenak, ehuneko handi batean egoera juridiko administratibo irregularrean

eta adingabeak ardurapean ditzutenak". Laguntza ekonomikoa bideratu zieten emakume horiei, Gizarte Larrialdietarako Laguntzen eta Caritasen bidez, baina Udalak "arreta eta abordatze integrala" eskaini nahi izan die eta gizarte eta lan arloko jarraipena egitea erabaki zuen.

### "Abordatze integrala"

Ekimenaren balorazio positiboa egin du Udalak eta *Zuekin-lan* programaren garrantzia azpimarratu du Gizartegintzako zinegotzi Karmele Uribarririk: "Helburua egoera ahulean dauden emakumeei abordatze integrala eskaintzea izan da". Era berean, ikastaroaren edukia nabarmendu du, "egiaztatutako lanbide heziketa baterantz jarraitu beharreko urratsak" erakutsi dizkietelako. Emakume horien jarraipena Auzoko programarekin osatzea aurreikusi dute.

## OHARRAK

### Saldarik ez Galartzan

Zaraia mendizale taldeak jakinarazi du urtarrilaren 1ean ez dutela Murugainera irteerarik egingo, ezta saldarik emango ere Galartzan.

### Gospel kontzertua

The Upper Room taldeak gospel kontzertua eskainiko du, beste urte batez, Arkupen; hilaren 29an, martitzenean, izango da, 19:00etan.

Durana 15  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA



Herriko mendi elkarteetako ordezkariak eta beste hainbat mendizale, deialdiaren kartelak eskuetan dituztela. MIRARI ALTUBE

# 'Kurtzebarritik plazara' ekimena, presoak gogoan

Sare herritarrak, Zاراia eta Murruxio mendi elkarteekin eta hainbat mendizalerekin batera, abenduaren 31ko ekimenaren deialdia egin du. Presoen "eskubideak errespetatzen dituztela eskatzeko", mendi tontorrean elkartuko dira, 11:00etan, eta plazan 19:00etan

**Mirari Altube** ARETXABAETA

Urte zaila izan dela adierazi du Aretxabaletako Sareko kide Txarli Garciak, COVID-19ak "asko mugatu" duelako lan jarduna. Era berean, gustura agertu da herrian egindako lanke-tarekin: "Ahalegin handia egin dugu herriko eragile eta norbanako askorekin egoteko, eta egindako lan horrek erakutsi du badagoela beste espetze politika baten aldeko adostasun zabala. Horren adierazle da azaroaren 21ean egindako mobilizazio jendetsua eta anitza".

Abenduan, urtea bukatzearekin batera, presoen eskubideak aldarrikatzeko kalera ateratzera deitu dituzte herritarrak. Urtero legez, hilaren 31rako Kurtzebarritiko tontorrean egin dute hitzordua (11:00), argazkia ateratzeko -eguraldi txarra egin ez gero, Mendiolako elizpean-. Eta iluntzean (19:00), Herriko Plazan elkartuko dira. *Gari Atxabaltara* leloa haizatuko dute bi ekitaldian.

**Garcia, azaroa ezker Zaballan**

Garikoitz Garcia Arrieta Picasenteko kartzelatik (Valentzia) Zaballara (Araba) lekualdatu zuten azaroan: "Pozik gaude hurbilketarekin, senideek eta lagunek pairatzen zuten zigor gehigarria amaitu delako. Etxeratze bidean pauso handia da, baina oraindik, zoritxarrez, Gariri aplikatzen zaion salbuespen legediak mila traba jartzen ditu legeak ahalbidetzen duen bidean; hau da, graduen progresioan aurrera egiteko bidean: lanerako baimena, hirugarren gradua edo baldintzapeko askatasuna lortzeko, adibidez".

Urtarrilaren 9an, hamaika urte beteko ditu Garcia Arrietak kartzelan, eta beti egon da lehen

**ESKATZEN DUTE  
LEGEAK  
AHALBIDERATZEN  
DITUEN PAUSOK  
BIZKOR EMATEA**

graduan: "Espetxeko erregimenik gogorra da hori. Eta guk eskatzen duguna da lege arrunta jarraituta horrek ahalbidertzen dituen pausok ahalik eta bizkorren ematea".

**Urtarrilaren 9an, mosaikoa**

Urtarrilean Bilbon egin izan den manifestazioa aurten ezingo da antolatu, eta, horren ordez, herritan izango dira ekitaldiak. Aretxabaletari dagokionez, urtarrilaren 9an, Herriko Plazan elkartuko dira (17:30): "Argiztatutako mosaikoa egingo dugu. Eta herritarrak gonbidatzen ditugu elkarbizitzaren, konponbidearen eta bakearen aldeko ekimen horretan parte hartzerat".

Bilboko manifestazioa diru-iturri ere izaten da Sare herritarraren lan jarduna aurrera eramateko: "Horregatik, 5 euroko bonu-laguntzak atera ditugu, Bilbora joateko autobusa ordaindu beharrik izango ez denez, hara bideratzen zen diruaren erdia laguntza moduan emateko".



Odilo Vazquez, Oxel eta Odei semeen artean. ODILO VAZQUEZ

## Laugarren 'dan' maila eskuratu du Odilo Vazquez karatekak

UDAko karate saileko entrenatzaileak abenduaren 5ean Getxon egindako proban eskuratu zuen hori

**M.A. ARETXABAETA**

Ikasturteko erronken artean jarri zuen karate sailak maila eskuratzea, baita lortu ere. "Pauso handia da; orain dela 20 urte atera nuen hirugarrena, eta, horregatik, garrantzi handia du niretzako", adierazi du Vazquez. Erronka pertsonala lortuta gustura dago, baina elkartearendako ere pauso garrantzitsua dela dio: "Aurrera begira lanean jarraitzen dugula erakusten du".

Goi mailako zazpi kata eta oinarriko lau kata gertatu behar izan zituen probarako, besteak beste, eta defentsa pertsonalaren

hamar teknika ere garatu behar izan zituen; azken horietan semeek lagundu zioten. Gaur-gaurkoz, bi karateka bakarrik daude Debagoienean maila hori dutenak; bestea, Bergaran.

**30 ikasle lanean**

Aurtengo ikasturtean 30 ikasle inguru ditu, baina ezohikoa izaten dabil karate jokalarientzako ere; urrian, hain zuzen, bertan behera utzi behar izan zituzten entrenamenduak: "Helduok entrena gaitzkeela esan digute orain, baina Gabon osterarte, behintzat, itxoin egingo dugu".

## Aurtengo Neguko Azokak eman duenarekin pozik agertu dira

Alkateak onartu du uneren batean "nahiko pilaketa" izan zela, baina, oro har, "lasai" egon zela

**M.A. ARETXABAETA**

Berrikuntzekin etorri da Gabonen atarian egin den seigarren azoka, eta horiekin asmatu egin dela uste du Udal Gobernuak. Herriko Plazan jarri ohi den karpan beharrean, kalera zabaldu dituzte postuak. Dena den, Unai Elkoro alkateak onartu du ez dela unerik aproposena izan: "Herria gune gorrian sartu berri dago, ostalaritzaren itxiera dekretatuz. Edonola ere, kutsadura iturria batik bat eremu mugatuan izatean, aurrera egitea erabaki genuen".

Uneren batean nahiko pilaketa izan zela aitortu du: "Baina, oro har, lasai egon zen, jende dezente hurbildu izan arren. Aurrerago izango ditugun ekin-tzetarako kontuan hartuko dugu".

Azoka arrakastatsua izan dela uste du: "Merkatariek eta artisauiek hala jakinarazi digute. Salmentak onak izan dira, eta horri pozgarria deritzogu. Kale osoa animatzean denok irabazten dugun konbentzimenduz, baita aurten, ixtera beharturik, egun hau aprobetxatzerik izan ez duten ostalariek ere".

# Intxaurtxuetako auzunea, elkarlanean apainduta

Material birziklatuekin egindako Gabonetako apaingarrien lehiaketak baditu irabazleak. Balkoi edo leiho onenaren saria, establezimendu onenaren saria, espazio publiko onenaren saria eta beste hainbat sari banatu dituzte Eskoriatzan

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Herritar asko animatu dira Eskoriatzako Udalak antolatutako birziklatutako materialekin egindako Gabonetako apaingarrien lehiaketan parte hartzera; guztira, sei establezimendu, hamasei partikular leiho eta balkoiekin eta sei auzogune izan dira apaindutakoak, eta Udalak jakinarazi du zeintzuk diren irabazleak. Horiekin batera, beste hainbat sari ere banatu dira; guztiak, Eskoriatza Bizirik kanpainari atxikitutako establezimenduetan gastatzeko.

Balkoi edo leiho onenaren saria Jose Arana kaleko 4, 1C izan da; horrenbestez, 100 euroko bonua jasoko du egileak Eskoriatzan gastatzeko. Establezimendu onenaren saria, berriz, Akeita tabernak jaso du, eta hark ere 100 euroko saria jasoko du bonuetan. Azkenik, espazio publiko onenari saria Intxaurtxueta plazak jaso du, eta saria 200 eurokoa da, bonuetan, Eskoriatzan komertzioetan gastatzeko.

**30 euroko 10 sari, zozketatuta**

Hiru sari nagusi hauekin batera, 30 euroko 10 sari ere zozketatu dira parte hartu duten pertsona, establezimendu eta talde guztien artean, eta hauek



Intxaurtxueta plazak jaso du espazio publiko onenaren saria. NEREA ZUGASTI

dira saridunak: Inkernu taberna, Altuna harategia, Intxaurtxueta 33, 3, C, Intxaurtxueta 22, 2 ezkerre, San Pedro 13, 6 ezkerre, Elorreta 18, Olazar 1, 2 ezkerre, Gernika plaza, Euskaldunberri plaza eta San Pedro 2.

Gabonetako apaingarri lehiaketan atariak apaindu eta aurkezteko aukera ere egon den arren, ez da inor aurkeztu aukera honetara; edozelan ere, 30 euroko hiru sari banatu dituzte, zozketa bidez: Etxaburu baserria (Bolibar), Elorreta 44 eta 46 artekoea eta San Pedro 1.

**Parte hartzeaz "pozik"**

Udalak eskerrak eman nahi dizkie lehiaketan parte hartu dutenei: "Horiei esker gure herria askoz politago egongo da jai hauetan". Eta gaitzetsi egin nahi du beste batzuen zibismo falta, hala nola Arizmendiko ikasleek Euskaldunberri plazan jarritako apaingarriak suntsitu dituztenak eta Ibarraundin dagoen txondorrari su eman nahi izan ziotenak. "Pena da horrelako jarrerak gaur egun ere jarraitzea, eta gure auzokideek ilusio handiz egin dituzten espazioei eragitea".

## Gerriko beltz ugari Ataman

Joan den zapatuan, teknifikazio saioak izan zituzten Atama Eskoriatza taldeko zenbait borrokalariak. Bertan, gerriko beltzak lortzeko azterketak egin zituzten, eta, horiek eskuratzeko batera, monitore izateko titulua ere eskuratu zuten jardunaldietan parte hartu zutenek. Rafa Carriet entrenatzailea "oso pozik" agertu da taldekideen emaitzekin.



RAFA CARRIET

# LEINTZ GATZAGA



Alex Txikon alpinista San Millan parroikian hitzaldian. IMANOL BELOKI

## Hizlari ezin hobek eta erantzun aparta izan dute Mendi Astean

Leintz Gatzagako Mendi Astea amaituta, balorazio "bikaina" egin dute antolakuntza taldeko kideek

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako Mendi Astea hiru egunean egin dute, eta antolatutako hitzordu guztiek "ondo funtzionatu" dutela adierazi dute udal ordezkariak. "Hizlari interesgarriak ekartzeko ahalegina egin dugu, eta guztiek funtzionatu dutela esango nuke. Istoriario bikainak izan ditugu entzungai, eta protagonistak oso gustura geratu direla esan digute, baita haien abenturak entzuterako etorri ziren herritarrek ere", adierazi du Beñat Agirreurretak, Leintz Gatzagako Udaleko Kultura zinegotziak.

**Arrakasta San Millan parroikian**

Hitzaldi eta proiektzio guztiak parroikian egin dituzte, edukiera aldetik ahalik eta jende gehien batzeko asmoz. Hitzorduetarako sarrera guztiak aurrez saldu zituzten, eta aurreikusitako baino erantzun hobea jaso dute.

Hala, Galarza-Gardoki familiaren Baltistango testigantzak, Aymar Navarro eskiatzailearen South Lines proiektuaren nondik norakoak eta Alex Txikon alpinistak Nanga Parbat mendira neguan egindako igoeraren abenturak ezagutzeko aukera izan zuten bertaratutakoek.



## Amaitzeko, 'Gatza 360' ibilaldia

Mendi Astea amaitzeko, *Gatza 360* izenpean ibilaldia egin zuten 30 lagunek zapatuan. Guztira, 20 kilometro egin zituzten, Gatzagako mugarrietan zehar. Seiko taldeetan eta talde batetik bestera bost minutuko aldea jarrita.



Astelehen arratsaldean jarritako panela, herritarren mezu positiboak jasotzeko zain. MIKEL BARGIELA

## Sasoï gogorretan ere herri izaerari eutsi nahian

Ezohiko Gabonen atarian, Udalak ekintza parte hartzaileak sustatu nahi izan ditu. Hala, herritarrek euren mezu positiboak eta sentitzen dutena elkarbanatzeko panela jarri dute plazan. San Esteban krosetan parte hartzeko aukera izango dute antzuolarrek

### Maidar Arregi ANTZUOLA

Herri izaera indartzeko eta parte hartzearen garrantzia azalertzeko, mezu positiboak elkarbanatzeko panela jarri du Udalak plazan. "Urte gogorra izan da eta elkarri mezuak eta desioak helarazteko bidea dela deritzogu", dio Mikel Bargiela zinegotziak.

Eta Gabonetako egun hauek goxatzeko, aurten Olentzerok eta Mari Domingik ez dute hutsik egingo. Bihar, abenduak 24, Errekalde auzotik kamioi batean abiatuta, auzoz auzo joango dira euren etxeetan dauden herriko haurrei bisita egiteko asmoz; 09:30 aldera abiatuko dute ibilbidea. Udalak herritarrei balkoietan egoteko eta atzetik ez joateko eskatu die, osasun neurriak berma daitezzen.

### San Esteban krosa

Gabonetako egunetan parte hartzea eta kirola sustatu gura izan du urtero Udalak. Aurten ezingo da ohiko lagun arteko espiritua duen seigarren San

Esteban krosa egin, baina herritarrek izango dute kirola egiteko aukera –dekretuak debekatu egiten ditu jendetza batzea bide ematen duten kirol jarduerak-. Hala, San Esteban krosari beste buelta bat eman, eta nork bere kasa lasterka egiteko aukera izango du. Iazko ibilbide berdintsua izango da, baina laburragoa. "Denok ekintza berean baina txandaka jardungo dugu; helburua partaidea sentitzea da, herri sentitzea, alegia", diote antolatzaileek.

Abenduaren 26an, goizeko hamarretan hasi eta arratsaldeko zazpiak arte, txandaka lasterka egiteko aukera izango dute antzuolarrek. "Bakarka egitea proposatzen da, baina bizikide

**OLENTZERO ETA MARI DOMINGI BIHAR AUZORIK AUZO IBILIKO DIRA BALKOJETAKO HAURRAK AGURTZEN**

eta burbuila-taldeetan parte hartzeko aukera ere egongo da. Txandak antolatzeko izena aurrez eman behar da, [antzuolagintza@gmail.com](mailto:antzuolagintza@gmail.com) helbidera idatzita". Partaidea guztien artean Antzuolako dendetan gastatzeko 30 euroko 20 bonu zozketatuko dituzte.

### Tripontzia loteria

Aurten ere Tripontzia bertako loteria erosteko aukera izango da Gabonetan. Zozketa 2021eko urtarrilaren 18an egingo da eta irabazien zati bat euskal kulturegintza babestu eta sustatzeko proiektu batera bideratuko da. Lehen saria 30.000 euro da –informazio guztia: [www.tripontzia.eus](http://www.tripontzia.eus)-. Antzuolan abenduaren 24an, 26an eta 31n eta urtarrilaren 3an jarriko dute kalean salgai. Gainera, gerturatzen direnei erreferendumaren aldeko Hamaika Gara ekimenaren berri ere emango diete –sinadurak online bakarrik egin daitezke: [www.hamaikagara.eus](http://www.hamaikagara.eus)-.  
 eta burbuila-taldeetan parte hartzeko aukera ere egongo da. Txandak antolatzeko izena aurrez eman behar da, [antzuolagintza@gmail.com](mailto:antzuolagintza@gmail.com) helbidera idatzita". Partaidea guztien artean Antzuolako dendetan gastatzeko 30 euroko 20 bonu zozketatuko dituzte.



Azaroan Zurrategi plazan egindako elkarretaratzea. M.G.

## Ekimenak Gabonetan, espetxe politika amai dadin eskatzeko

Kandela, musika eta hitzen bidez, "salbuespen espetxe politika salatzen" ekitaldia bihar, plazan, 18:00etan

### Maidar Arregi ANTZUOLA

Izan Bidea ekimenaren baitan, hainbat ekintza egingo dira ondorengo egunetan. "Gabonetrako, urtero bezala, hainbat ekimen antolatu ditugu; izan ere, egun hauek bereziak eta sentisbleak izan ohi dira. Hainbeste sufrikario eragiten duen salbuespeneko espetxe politika amaitzeko eskatzeko eta herritarren elkartasuna jasotzeko helburuarekin antolatu ditugu ekintzak", azaldu du *Ez dut moztuko bizarra!* taldeak. "Aurten, urtarrilaren 9ko manifestazio nazionala, aldarri beraren bueltan, herriz herri egingo da, 17:30ean hasita. Antzuolan mobilizazio jendetsua lortzeko asmoz, herritar, talde eta eragileen atxikimendua lortzen saiatuko gara Gabon egunetan; denon beharra dago egoera honi buelta eman eta pauso bat aurrera emateko".

### Gabon egunetarako ekintzak

Kandela eta argiekin osatutako mosaiko batek lagunduta, elkartasun ekitaldia egingo da, musikak eta hitzek lagunduta. Abenduaren 24an, bihar, egingo dute elkartasun ekitaldia, plazan, 18:00etan. Abenduaren 25ean, berri, urteko azken egubakoitza izanda, Zurrategi elkarretaratzea egingo da, 19:00etan.

Abenduaren 26an, San Esteban krosa egingo da, eta egiten diren kilometroak Izan Bidea ekimeneko kilometro kontagailura gehitzeko aukera izango dute korrikalariak. "Herritarrek animatzen ditugu parte hartzera, denon urrats bakoitzarekin etxerako bidea argizatzeko eta konponbiderako bidea egitea lortuko baitugu".

Urtarrilaren 1ean eta 8an, egubakoitzetako elkarretaratzeak egingo dira, ohi bezala, 19:00etan, Zurrategi plazan.

## Hainbat baso-lur "txikitzen" ari direla salatu du Arrolak

Mendiko zein lau gurpileko motorrek basoa txikitzen dihardutela salatu du Arrolak. "Kezkak gaudela; Trekutz, Irimo, Arrola, Koroso, Azaldieta.... Aspaldi zetorrena orain hazi egin da, eta ibilera arautu behar da. Kirola egiteko eskubidea debekatu gabe, jendea kontzientziatu eta sentibilizatu behar da, ingurumena errespetatuz".



Azaldietako baso-lurra. ARROLA

# Harrera publikorik ezean, ilusioa etxez etxe aurten

COVID-19agatik Olentzero eta Mari Domingi ez dira kalejiran irtengo bihar, baina bideo bidez ziurtatu dute aurten ere ez dela oparirik faltako; umeendako ekintzen barruan, antzerkiak eta zinemaz gain, jolas parkea eta pista joko mitologiko bat antolatu dituzte

## Jokin Bereziartua BERGARA

"Badakizue aurten pandemia betean gaudela, eta, akaso, batzuk kezkatuta egongo dira euren etxeetatik pasatuko garen edo ez jakiteko. Baina egon lasai, Olentzero eta biok pasatuko garela zuen etxeetatik. Segurtasun neurri guztiak beteko ditugu, eta, beraz, egon lasai". Adierazpen horiekin konfirmatu du Mari Domingik aurtengo ezohiko Gabonetan ere opariak ez direla faltako Bergarako etxeetan.

## Kalejirarik eta desfilerik ezin egin

Hori bai, Olentzerok penaz adierazi die Bergarako umei ezin izango dela, urtero moduan, abenduaren 24ko bisita egin pandemiagatik: "Pozik ibiltzen ginen gu kalean, kantuan eta emozio betean, baina hurrengo baten izan beharko du. Izan ere, badakizue jende asko piltzen den tokietan koronabirusa alde batetik bestera dabilela herritarrak kutsatzen... Hori



Olentzero eta Mari Domingi, aurten, ume bergararrendako bideoaren une baten. B.U.

bai, gogoratu udaletxeko atarian saski bat badagoela zuen eskutitzak lagatzeko. Eskutitzekin batera marrazki koloretsu horiek uzten badizkiguzue, oso eskertuta egongo gara, orduak eta orduak pasatzen ditugu-eta

marrazki horiei begira". Gainera, COVID-19ak ez duenez ahalbidetzen harrera publikorik, Mari Domingiren eta Olentzeroren gutun bana jasoko dute 2011 eta 2019. urteen artean jaiotako umeek.

## Birusari egokitutako parkea

Udalak umeendako egitarau zabala antolatu du urtarrilaren 3ra bitartean. Seminarixoko pelikula eta antzezlanek gain, badira bi ekitaldi bereziki umeen aisialdira begira antolatu direnak. Batetik, abenduaren 26an, 27an eta urtarrilaren 2an eta 3an Agorrosin Kirol Guneko igerilekuan antolatu duten uretako jolas parkea dago.

Lau egun horietan 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara gozatu ahal da jolas parkeaz, baina, COVID-19aren aurkako protokoloak behartuta, ezinbestekoa da ikastetxeen bitartez alde aurretik izena ematea; ume bakoitzak bere eguna eta ordutegia izango ditu jolas parkera sartzeko. Hau da, Lehen Hezkuntzako 3, 4, 5 eta 6. mailetakoko eta DBHko lehen eta bigarren mailetakoko ikasleei zuzenduta dagoen parkea da eta gehieneko edukiera da gehieneko sei ikasleko lau talde sartu ahal da.

## 'Ez dadila sua itzali' ekimena

Bestetik, Udalak Jardun euskaratik elkartarekin batera antolatu duen *Ez dadila sua itzali* ekimena nabarmendu beharra dago; abenduaren 28an eta 29an izango da, 17:00etatik 20:00etara. Bergarako familiei zuzendutako ekintza bat da, pista joko bat. "Herriko hainbat txokotan euskal mitologiako pertsonaia ezberdinak egongo dira

eta haien laguntzarekin hainbat proba gaintu beharko dituzte", adierazi dute Jardunetik. San Martin plazan hasiko da ekintza, eta Jardunekoek eskatu dute 16:45erako San Martin plazan egoteko, eta puntualak izateko.

Antolatzaileek COVID-19aren aurkako protokoloaren barruan ohar batzuen berri eman dute. Ekintzak ordubete iraungo du, guztira, eta ordu erdian behin txanda bat irtengo da; txanda bakoitzean gehieneko hamalau pertsona har dezakete parte eta ezinbestekoa izango da umeak pertsona heldu batekin joatea. Maskara jartzea derrigorrezkoa izango da 6 urtetik gorako umeetan, eta gomendagarria txikiagoetan. Hori bai, bertaratzeko arazorik izanez gero, abisua pasatzeko eskatu dute Jardunekoek. Izan ere, plaza guztiak beteta daude dagoeneko, baina itzarote-zerrenda bat osatu dute, bajaren bat egongo balitz aukera zabaltzeko; itzarote-zerrendan sartzeko, lehenbailehen bidali behar da mezua, [bergarakoludoteka@gmail.com](mailto:bergarakoludoteka@gmail.com) helbide elektronikora. Jardunek ekimenak izan duen erantzuna eskertu du.

## EKINTZA NAGUSIAK UMEENTZAT: URETAKO JOLAS PARKEA ETA PISTA JOKO MITOLOGIKO BAT

## Elhuyar panpinen ebakigarriak erosteko aukera dago oraindik

Gaur-gaurkoz, M2 Errotuloak dendan eta Mapfren eros daitezke, eta asmoa da Laboratoriumera ere eroatea

## J.B. BERGARA

Domekan, abenduak 20, aurkeztu zituen Fausto eta Juan Jose Elhuyarren ebakigarriak Bergarako Erraldoi Taldeak. Irala kalean, Peñalba inguruan, ipini zuten mahaia eguerdian, eta modu horretan erakutsi zuten Kataluniatik inportatutako ideiak emandakoa. Izan ere, Kataluniako ilustratzaile baten laguntza izan dute BEtekoek, erraldioen ebakigarriaren lantzen aditua dena; saiatu dira eskulan horiek "modu erraz eta dibertigarrian" muntatzeko ereduak sortzen.

## Ezin 20. urteurrena ospatu

2020an 20 urte bete arren, ospakizunak 2021era atzeratu behar izan dituzte. Eta erraldoiak kalean dantzan ikusteko aukera iritsi bitartean, Elhuyar anaien irudien ebakigarriak atera dituzte umeek etxean gozatzeko; hamar eurotan daude salgai, eta M2 Errotuloak dendan eta Mapfren erosi ahal dira, gaur-gaurkoz; asmoa da Laboratoriumera ere eroatea. Domekan ere salgai izan ziren margotzeko liburuak, Gutu eta Felixin buruhandien panpinak



Erraldoi taldekoen salmenta postua Irala kalean, abenduaren 20an. IMANOL SORIANO

eta Ximon eta Magdalena erraldioen panpinak.

## Marrazki lehiaketako sarituak

Salmenta baliatu zuten konfinamenduan umeendako marrazki lehiaketako sariak banatzeko.

2 eta 7 urte artekoen mailan Anouk Izagirrek jaso zuen lehen saria eta Ainere Gallastegik bigarrena. 8 eta 14 urte bitarteko umeen mailan, berriz, Sara Poza izan da lehenengoa eta Irene Calleja bigarrena.

## OHARRAK

### Deialdi sorpresa

EHUko Arte Ederretako hiru ikasleek "performance bat" egingo dute bihar, abenduak 23, San Martin plazan (10:30).

### Udal egutegia: 2021

Etkez etxeko banaketa amaitu denez, 2021eko udal egutegiaren ale bat nahi duen herritarrak udaletxera jo beharko du jasotzera.

### Txapa: saio berezia

*Jar itzazu tapoiak mesedez* irratsaioaren barruan, Arrasateko Txakurrak taldeari zuzeneko elkarrizketa egingo diote abenduaren 26an, 17:30ean. Elkarrizketaren ondoren, zuzeneko kontzertua emango dute Txaparentzat.

# Agorrosin: akordio berria, egoera berrira egokituta

Agorrosin futbol zelaia artifizial egiteko akordioa berritu dute Udalak eta BKEk, 2019an sinatutako hitzarmena ezingo delako bete COVID-19agatik; proiektua 2021eko urrirako idatzita egon beharko da eta lanak martxan egon beharko dira 2023ko ekainaren 30erako

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Asteleheneko osoko bilkuran udalbatzak aho batez berretsi ostean, ofiziala da Agorrosin Berriari begirako akordio berria Udalaren eta BKEren artean. 2019ko maiatzean adostutako lehen hitzarmena balio gabe utzi eta konpromiso berriak adostu dituzte bi aldeek, betiere pandemiara egokitutako testuinguruan. Akordio berriari jasotzen denez, Udalak konpromisoa hartu du belar artifizialeko zelai bat eraikitze gaur egungo naturala dagoen lekuan eta lehen faseko gutxienezko lanen izango dira, belar artifizialeko zelaia behar bezala argizatua eta itxita egokitzeaz gain, atezainendako belar artifizialeko entrenamendu-eremu bat egitea eta eremu osorako ureztatze-sistema instalatzea.

**2021ean idatzi, 2023an gauzatu** Konpromiso hori errealitate bihurtu dadin, Udalak eta BKEk datu mugarrak berri batzuk zehaztu dituzte. Bi data dira aipatzekoak, bereziki: batetik, proiektuaren idatzketa 2020a bukatu baino lehen irtengo dela lehiaketa publikora eta proiektua idatzita egon beharko dela 2021eko urriaren 31 baino lehen. Akordioan jasotzen denez, Izaskun Larzabal arkitektoak -Realaren estadio berria



Udal Gobernuako eta BKEko zuzendaritzako kideak berbetan, udaletxean. J.B.

diseinatu duena, besteak beste idatzitako aurreproiektua hartuko da aintzat. Bestetik, bigarren epemuga da lehenengo fasea egiteko lanak ezin izango direla hasi 2023ko ekainaren 30a baino geroago.

## Kanpo finantzaketa, inkognita


Hurrengo urteetako udal aurrekontuetan lehen faseari ekiteko diru partida gordetzera konprometitzen da Udala, gehienez milioi bat euro jartzearaino 2023ra bitartean; 2021ean, gutxienez, 250.000 euro jarriko ditu; 2022an,

gutxienez, 450.000 euro; eta 2023an, gutxienez, 300.000 euro.

Hori bai, Agorrosin Berrirako kanpoko finantzaketa da inkognita nagusietako bat, eta, horregatik, lehen faseko lanen amaiera data baldintza horri dago lotuta; "kanpoko finantzaketa handirik edo behar adinekorik" lortzen ez bada, Udalak eta BKEk 2024ko ekaina finkatu dute lanak amaitzeko epe gisa. BKEk eremu osoa Udalarari dohaintzan emateaz gain, kanpo finantzaketan Udalarari laguntzeko konpromisoa hartu du, besteak beste.

## "Diruaren banaketan dago aldaketa gehien"

**GORKA ARTOLA**  
BERGARAKO ALKATEA



J.B.

**Zergatik berritu du Udalak BKEekin zuen akordioa?** COVID-19a heldu aurretik proiektua bideratzen ari ginen, eta, ikusi genuenean ondorioak oso sakonak izango zirela, geratu egin behar izan genuen. Hitzarmenean 800.000 euro konprometitzen ziren 2021erako, eta beharrezkoa zen hori moldatzea, egoera berria ikusita. Denborak eta diru partidak aldatu behar izan ditugu, BKEekin adostuta.

## Zeintzuk dira aldaketok?

Miloi bat euro inguruko aurreikuspena dago Udalean zelaia berritzeko, eta diru kopuru horren banaketan dago aldaketa nagusia.

## Lehentasunen artean duzue proiektua garatzea?

Guneari erabilera publikoa ematea beti izan da Udalaren asmoa, BKEekin askotan landu dena. Futbolaz haragoko gunea zertarako baliatu izango da gure lehentasunetako bat.

## "Argi dugu lehentasunak aldatu direla"

**IOSU ELORZA** BERGARA KIROL ELKARTEKO PRESIDENTEA



J.B.

## Nola baloratzen du BKEk hitzarmena berritu izana?

Klubak hasieratik izan zuen garbi COVID-19a agertu zenean beste lehentasun batzuk izango zituela Udalak. Egoera honek arlo guztietan eragin du inbertsioa handitu behar izatea eta gu izan ginen lehenak Udaleko ordezkariekin eseri eta ulertu genuenak ezinezkoa izango zela sinatuta zeuden akordioak betetzea. Bilera mordoxka baten ondoren lortu

dugu akordioa egitea, eta uste dut bi aldeendako dela ona. Eskertzekoa da Udalak egin duen esfortzua lehendik zeuden akordioak ahalik eta goizen berreskuratzeko.

## Zenbateraino da ezinbesteko Agorrosin berritzea?

Zuzendaritzara heldu ginenean, argi utzi genuen belar naturala mantentzea defizit handiena zela klubarentzat. Zelaia berrituko gurela esan genuen, eta lortu arte ez gara joango.

## 2021ean odola emateko egutegia zehaztu du Bergarako elkarteak

Urtarrilaren 13an hasita, bi eguaztenean behin odola emateko aukera egongo da, alde aurretik 610 39 32 97 edo 669 10 89 77 telefono zenbakietara deituta -ordutegia da 16:30etik 20:30era-. Emailerik baldintza bakarrak dira, hasiera batean, 18 urtetik gorakoa eta 60 urtetik beherakoa izatea eta gutxienez 50 kilo pisatzea.



Aitor Zabaleta  
Tel.: 606 58 18 10  
www.txipi.com

# TXIPI

## LEIHO ISOLATZAILEAK

**Amillaga 5, behea - BERGARA**

# Sugoi

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.  
943 76 59 54 BERGARA

# Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62

# "Erantzun oso ona jaso dugu herritarren aldetik"

GARI LOPEZ DE MUNAIN BERTSOLARIA

'Lagun zaharrak eta doinu berriak' lelopean, joan den zapatuan egin zuten bertso saioa, kartzela zaharrean. Gari Lopez de Munain nagusitu zen, eta amantala irabazi zuen

Jone Olabarria BERGARA

Askotariko ariketa eta bertsoaldien ostean, eta publikoaren iritzia aintzat hartuz, Gari Lopez de Munain arrasatearra nagusitu zen buruz burukoan zapatuan, amantala bereganatuz.

**Formatua aldatu diozue aurten txapelketari...**

Horrelako egoeran ez da batere erraza saio bat antolatzea, eta uste dut txukuna geratu zela. Iaz, adibidez, taldeka antolatu genuen eta oso polita geratu zen, mozorrotuta, tabernan eta kartzela zaharrean... Ez genion horrenbesteko txapelketa formatua eman nahi izan. Aurten, bi gai jartzaile izan ditugu, zortzi parte hartzaile izan gara, eta, egoerak behartuta, saio guztia egun bakarrean egin dugu, bi orduan. Denok ariketa batzuk egin behar izan genituen eta publikoak horietatik jarraituko zutenak aukeratu zituen. Hala egin genuen, buruz buruko moduko batera iritsi arte.

**Zer moduz moldatu zara aurten?**

Nire egoera pertsonalagatik, aurten inoiz baino gutxiago joan naiz bertso eskolara; hortaz, aukera gutxiago izan dut trebatzeko. Hala ere, orain dena hoztagoa da, saioak berotzeak lan handiagoa eskatzen du, distantziak... Baina saioa hasterakoan



Lopez de Munain, zapatuan, kartzela zaharrean, amantala irabazi aurretik. i.s.

**"HALAKO EGOERAN EZ DA BATERE ERRAZA BERTSO SAIO BAT ANTOLATZEA, BAINA TXUKUN GERATU DA"**

ondo sentitu nintzen, eroso eta gustura.

**Publikoaren harrera nolakoa izan zen zapatuan egindako saioan?**

Jendearen balorazioa saioaren ostean oso positiboa izan zen, erantzun oso ona jaso genuen.

Txapelketa kutsua kendu nahi izan genion, zerbait polita egin nahi genuen, eta uste dut azkenean ondo geratu zela.

**Nola aritu da lanean bertso eskola ezohiko urte honetan?**

Denontzat izan da urte arraroa 2020 hau; trantsizio urte bat, esango nuke. Pandemiaren murgildurik, itxialdian ginenean ere saiatzen ginen telematikoki biltzen eta zerbait egiten. Kartzela zaharrean ere saiatzen gara hitzordua mantentzen, neurriak beteta, nahiz eta ez den hain erraza elkartzea.



Laboratorium museoan ikusgai egongo da erakusketa urtarrilaren 24ra arte. GOIENA

## Urtarrilaren 24ra arte luzatuko da Soriako hilarrien erakusketa

Eduardo Alfaro arkeologoak egindako hitzaldiak bete egin direla ikusita, beste bat antolatu dute urtarrilerako

J.O. BERGARA

Soriako Tierras Altasen topatutako I. eta III. mende bitarteko 40 estela eta hilarrien artean sei bildu dituzte *Heriotzarako erro-matar ohiturak Soriako Tierras Altas eskualdean* erakusketan.

Bertan, latinez, zeltikoz eta euskararen forma zaharrean idatzitako dokumentuak aurkitu dituzte. Eta, hain zuzen ere, hegoaldean aurki daitekeen euskal-akitaniar antropomiamari dagokionez, multzo handiena topatu duten bertan. "Harrian egindako idazkunei esker, lehen mendeetan bizi izan ziren per-

tsonei buruzko zerbait ezagutu dezakegu", adierazi dute Laboratorio museoek.

**Hitzaldi bat urtarrilean**

Eduardo Alfaro Valladolideko Unibertsitateko arkeologo eta doktorea da erakusketaren komisarioa, eta bost hitzaldi egin ditu Bergaran gaiari buruz. Laboratorio museotik azaldu dute lehen egunean bete egin zirela leku guztiak, eta, hori ikusita, urtarrilaren 22an beste bat egingo dute, 17:30ean, Seminarioan. Aurrez izena eman behar da, *laboratorium.eus*-en.

## Urtarrilaren 11n itzuliko dira pentsiodunak berriz ere plazara

Gabonetan etenaldia eginda, 2021ean elkarretaratzeekin jarraituko dutela jakinarazi eta eskerrak eman dituzte

J.O. BERGARA

Datorren urtera arte deskantsua hartuta, urtarrilaren 11n itzuliko dira Bergarako pentsiodunak eta erretiratuak ohiko elkarretaratzeetara. Ordura arte, baina, urteko erreposoa egin eta denbora honetan guztian sostengua ematera gerturatu direnei eskerrak eman nahi izan dizkiete: "Abenduaren 5ean egin ziren manifestazio indartsu eta kementsuak balioan jarri nahi ditugu. Nahiz eta pandemiaren bigarren olatuan egon, eta zaurgarriak izan, Gipuzkoako 18

herritan, euripean, erantzun bikaina eman zitzaion".

Era berean, Toledoko Ituna hobetzeko beharra azpimarratu dute: "Pentsio baxuei %0,9ko igoera aplikatzea eskatzen dugu, baita gure betiko eskaria izan den 1.080 euroko gutxieneko pentsioa, Europako Gutun Sozialaren irizpideen arabera". 2021eko aurrekontuei begira, hain zuzen ere, pentsioak 1.080 euroraino konplimentatzea exijitu dute pentsiodunek, "inork prekarietatea bizi behar izan ez dezan".

## Urteroko hitzordu "kuttuna"

Bergarako Bertsolari Txapelketaren ordezko, *Lagun zaharrak eta doinu berriak* leloarekin egin dute aurtengo saioa. Zortzi bertsolari aritu ziren joan den zapatuan kartzela zaharrean; publikoak ere parte hartu zuen, 35 lagun inguruk; aretoa beteta, egoerari egokituta, Gari Lopez de Munain eta Enaitz Alustiza iritsi ziren buruz burukora.



Edukiera mugatuarekin eta segurtasun neurri bereziekin, zapatuan. i.s.





San Joxepeko eraikinak adinekoei zerbitzua eskaini die urteetan, eta laguntza hori mantentzea nahi du EAJK. JONE OLABARRIA

## EAJK eguneko zentroa egokitzea eskatu du

San Joxepeko eraikinean autonomoak diren edo menpekotasun arinak dituzten herritarrei "zerbitzu gehigarria" eskaintzea proposatu dute jeltzaleek; Ernai kaleko eguneko zentroaren edukiera murriztu izanari erantzuna eman nahi diote horrela

**Hasier Larrea** BERGARA

Joan den hil hasieran ireki zuten Ernai kaleko eguneko zentro berria, eta, EAJKo ordezkariak azaldu dutenez, orain "hutsik" dago adineko jendeari zerbitzua eskaintzen zion San Joxepeko eraikina. Hori dela eta, lokal hori berregokitze beharra ikusten dute, erabiltzaileei "zerbitzu gehigarria" eskaintzeko.

Esther Ortiz de Zarate zinegotziaren arabera, "autonomoak diren edo menpekotasun arinak dituzten herritarrak" hartuko lituzke San Joxepeko lokalak. Elena Lete zinegotzi eta alderdikidea ere ildo beretik mintzatu da, eta euren proposamenak "jendeak desiratzen duen zerbitzua" barnebiltzen duela adierazi du. Pandemiak zerbitzu horren "behar handiagoa" eragin duela gaineratu du Letek.

**Murrizketak edukieran**

Izan ere, osasun larrialdia hasi zenetik eguneko zentroak "itxi, murriztu eta egoera berrira ego-

kitu" behar izan direla azaldu dute jeltzaleek; Ernai kaleko lokal berria jarri dute adibide gisa: "Segurtasuna bermatze aldera, erabiltzaileen kopurua 40tik 25era jaitsi da".

Hori horrela, "garrantzitsutzat" jotzen dute San Joxepeko eraikineko arduradunekin lanketa abiatzea, bertan "aldi baterako edo etengabeko" zerbitzua eskaintzeko. Zentro horrek beteko lituzkeen helburuak izango lituzkeen "gerora etor daitezkeen adinekoen gaixotasunak ekiditea, erabiltzaileen garapenean laguntza eskaintzea eta familiei zaintzarako laguntza gehigarri bat ematea".

Jeltzaleen asmoa eraikina Udalaren eskumenekoa izatea

**BERGARARREK  
"DESIRATZEN" DUTEN  
ZERBITZUA JARRI  
NAHI DU EAJ-K SAN  
JOXEPEKO LOKALEAN**

den arren, Gipuzkoako Aldundiarekin eta San Joxepe elkarrekin kideekin garatu nahi dute proiektua, "elkarlanean".

**"Urtebete" eskaera egiten**

Era berean, Ongizate batzordean eta ohiko bilkuretan proposamen hori lantzeko eskaera egiten "urtebete" daramatela salatu dute EAJKo ordezkariak, eta momentuz lanketarako uea "iritsi ez dela" nabarmendu. "Batzordean bertan egin nahi genuen proposamena, baina Udal Gobernuak ukatu egin digu bertara joateko aukera; ordua eta eguna adosteko prest ez dagoenez, geure burua behartuta ikusten dugu proposamena prentsaren bidez adieraztera", adierazi du Elena Letek.

Esku artean daukatena "bergararren osasuna bermatzeko beharrezko proiektua" dela esan dute Bergarako EAJKo kideek, eta behar hori "osasun krisiaren ondorioz are handiagoa" dela azpimarratu.

## Izeder-en erakusleihoa saritu dute herritarrek eta epaileek

Gabonetako erakusleihoko lehiaketan parte hartu duten 18 komertzioetatik ederrrena dela erabaki dute bi aldeek

**H.L. BERGARA**

Bergarako Udalak Bedelkarrekin elkarlanean antolatutako Gabonetako erakusleihoko lehiaketako irabazleei sariak banatu zizkieten joan den ostegunean. Udaleko, Bedelkarreko eta Beart elkarteko kideek osatutako epaimahaiak aho batez erabaki zuten Izeder Eskulanak dendako kideek atondutako erakusleihoa zela aurtengo lehiaketako onena. Aitortza gisa, ziurtagiria eta bonutan trukatzeko 300 euro jaso zituzten dendariak. Udal webgunean bozkatu zuten 195 herritarren artean ere iritzi bera gailendu zen; horrenbestez, herritarren saria ere Izeder dendakoei eman zieten.

Epaimahaiaren bigarren eta hirugarren sariak, osterara, Gorostidi loradendarentzat eta Amua jantzi dendarentzat izan dira. Ziurtagiriarekin batera,



Sari banaketa Izeder dendan. IZEDER

bonutan trukatzeko 250 euro eskuratu dituzte Gorostidikoek eta 150 euro, berriz, Amuakoek.

**Boto-emaielen zozketa**

Azkenik, Enekoitz Gabilondori suertatu zaizkio ziurtagiria eta 50 euroko bonua.

## Pentsiodunak plazara itzuliko dira berrito urtarrilaren 11n

Europako Gutun Sozialaren irizpideei men egitea eta 1.080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzea eskatzen jarraituko dute 2021ean zehar Bergarako erretiratuek eta pentsiodunek: "Datozen egunetan eztabaidatuko diren Espainiako aurrekontuetan gure eskaria betetzea exijituko dugu, inor prekarieztatzen bizi ez dadin".

Mugimendu herritarreko partaideek gogoan dauzkate oraindik abenduaren 5ean Toledoko Itunaren murrizketen aurka egindako manifestazioak: "Pandemiaren bigarren olatuan egon arren, herritarrek erantzun bikaina eman zioten Gipuzkoako 18 herritako deialdiei".

Abenduaren 14an egin zuten Bergarako pentsiodunek urteko azken agerraldia; hain zuzen, 2020aren gaineko errepasoa egin, eta parte hartzaileei esker oneko hitzak adierazi zizkieten.

**UGARTE**  
AROTEGIA · ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoia  
 Horma-armairuak  
 Altzariak neurria  
 Ateak · Eskailerak ·  
 Leihok · Tarimak ·  
 Egur lanak

**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 034630

**AROTEGIA**  
San Juan 1a  
Tel.: 943 765491

**BERGARA**  
aroztegia@ugartearoztegia.com

**21**  
**K**  
KALITATEA

Enpresa legegaitza 1190/025

# Neska-mutikoen Gabon kantak, atzo, Elgetan

Ezohikoak izango dira Gabonak aurten, baina Gabon giroa nolabait ekartzeko helburuarekin kantuan ibili ziren eskolako neska-mutikoak atzo. Bizikidetza talde iraunkorrak mantenduz eta gurasoei deirik egin gabe ibili ziren han eta hemen

**Larraitx Zeberio Lekuona** ELGETA

Herrri Eskolako neska-mutikoek atzo hartu zituzten oporrak. Eskola egun berezia izan zen. Zailtasunak zailtasun eta egoerak eskatutako neurriak hartuta, baina Gabonak direla ospatu zuten. Mari Domingoren eta Olentzeroren bisita izan zuten ikastetxean. Eta *txoripan*-a jan zuten. Aurretik, ordea, kantuan ibili ziren.

Bizikidetza talde iraunkorrak mantenduz txandakako irteerak egin zituzten. Txikienak izan ziren lehenengoak kalera irteten, eta bi kantu eskaini zituzten herriko plazan. Nagusitxoagoen txanda etorri zen gero, eta batzuek soinuekin eta panderoekin Elgetan usadio diren Gabon kantak eskaini zituzten plazan, Bolatokian, Salbador kalean eta Domingo Iturbe kalean.

**'Erik eta Win' ikuskizuna**

Udalak antolatuta, *Erik eta Win* ikuskizuna izango da Espaloian, domekan. Ander Lizarralde Jimeno eta Unai Muñoa Amundarain bertsolariak izango dira oholtza gainean, eta haiekin batera Imanol Kamio eta Aitor Atxega musikariak. Lehena pianoarekin eta eskusoinuarekin eta bigarrekin gitarrarekin.

Lizarralde eta Muñoak euren arteko harremanaren eboluzioa ardatz hartuta harreman intimoen barrukietara begiratuko dute. Nola erakarri zuten elkar, nola nabigatzen duten botere harremanetan, nola elkar laguntzen dioten, nola lehiatzen, zernolako harremanak izan dituzten emakumeekin...

Bertsoak, antzerkia, musika eta poesia jorratzen dituen ikuskizuna da. Azken finean, gaur egun gizon izateak mantentzen dituen estereotipoen gainean hausnartuko dute, eta orokorrean sumatu litekeen noraeza ere bistaratuko dute. Gizon eredu berriak sortzea premia zuzen



Laugarren mailako neska-mutiko taldea, atzo. L.Z.L.

## BASERRITAR JANTZIAK SOINEAN, KALEKO TXOKO JAKIN BATZUETAN ABESTU ZUTEN UMEEK

kizuna dela islatuta. Aipatzekoa da doinu berriak plazaratuko dituztela, bai eta zenbait kantu proposamen berri ere.

Saioa 18:30ean izango da eta sarrera doan bada ere aurrez erreserbatu beharko da lekua

udal webgunean horretarako ipinitako estekaren bitartez.

**Haur parkea urtarrilean**

Gabon jaiekin lotuta, Udalak antolatuta egingo den hurrengo ekintza Gaboneko haur parkea izango da. Urtarrilaren 4rako eta 5era iragarri dute, baina zehazteko daude, oraingoan, parkean izango diren jarduerak, jolasak zein parkearen funtzionamendua. "Ez da betiko parkea izango. Hemen ere dagoen egoerara egokitu beharko dugu", azaldu dute udal arduradunek.

## Mari Domingi eta Olentzero, gaur

Gaur, abenduak 23, Espaloia kafe antzokian izango dira Mari Domingi eta Olentzero, 16:00etatik 19:00etara. Herriko neska-mutikoak ikustera eta haien gutunak jasotzera joango dira, Udalak Guraso elkartearen laguntzarekin antolatutako ekitaldian. Pandemia egoera dela-eta, ordea, adin tarteka antolatutako ordutegiak errespetatu beharko dira. Gainera, etxeko postontzian jasotako gonbidapena erakutsi beharko dute umeek sarreran. Ordutegiak dira: 16:00etan, 0-1 urte eta HH-2; 16:30ean, HH-3 eta HH-4; 17:00etan, HH-5 eta LH-1; 17:30ean, LH-2 eta LH-3; 18:00etan, LH-4, LH-5 eta LH-6; eta 18:30ean, DBH. Familia berean ordu tarte desberdinetako gonbidapena dutenek elkarrekin bertaratzeko aukera izango dutela jakinarazi dute antolatzaileek.



Macsonrisas taldeko Julen Linazasoro formakuntza saioa egiten, liburutegian. L.Z.L.

## Eskolarako aplikazio digitalen gaineko argibideak gurasoei

Gmail, Drive, Calendar eta Classroom zer diren azaldu zuten Macsonrisas taldeko kide batek astelehenean

**L.Z.L. ELGETA**

Etxe askotan ia hutsetik egoki behar izan dute egoera berrira, eta Drive, Gmail, Calendar, Classroom eta halako aplikazioak egun batetik bestera sartu dira askoren egunerokoan. Gaur egun, berriz, oso tresna erabilgarriak dira ikasle batek koarentena egin behar badu edo, besterik gabe, eskolan egindakoak etxean eskuragarri edukitzeko.

Udal liburutegiak antolatuta, gurasoendako formakuntza saioa eskaini zuten astelehenean Macsonrisas taldeko Julen Linazasorok. Lau aplikazio horien gaineko azalpenak eman zituen. "Gurasoek ez duzue zertan tekniki kontrolatu tresna horiek guztiak. Zuen egitekoa da neska-mutikoen lana gainbegiratzeko. Ze lan dute egiteko? Egin dituzte? Garaiz entregatzen dituzte? Halakoak begiratu behar dituzue zuek", azaldu zuten.

Classroom aplikazioko *Egitekoak* atala nabarmendu zuten. "Hor ikusten dira zeintzuk diren egiteko dauden lanak, eginda daudenak edota entregatzeko daudenak", esan zuten. Karpetak eta dokumentuak sortzen, izendatzen, partekatzen edo antolatzen ere erakutsi zuten.

Bestelako gogoetak ere egin zituen. "Zuen umeek argi izan behar dituzte hainbat gauza: ez da berdina aurrez aurre edo digitalki komunikatzea. Digitalen testuinguru falta da beti, eta horrek interpretazio arazoak ekar ditzake. Sare sozialen erabilerrak ere garrantzitsua da. Idatziz bidalitakoak betirako gelditzen dira. Ikus ditzake lagun batek, bikotekide batek, lan arduradun batek... Baita etorkizunean ere. Gauza garrantzitsuak aurrez aurre edo telefonoz esan behar dira. Horren jabe egin behar ditugu umeak".

## Gabonetan bost otarre zozketatu ditugu bazkideen artean

**Goiena komunitatea**

Xalbadorpe elkarte / ELGETA

Egoerak horrela eskatuta, etenda daude elkarteak urte sasoi honetan egin ohi dituen ekintzak eta ospakizunak. Hala eta guztiz ere, eta urteroko ohiturarekin jarraituz Gabonetako zozketa egin dugu Xalbadorpe erretiratuen elkartearen bost otarretxo zozketatu ditugu, eta honako

hauek izan dira sarituak izan diren bazkideak: 111 zenbakiarekin Antonia Elkorobarrutia, 329 zenbakiarekin Irene Bolinaga, 401 zenbakiarekin Jose Antonio Ojanguren, 427 zenbakiarekin Enrike Uzuriaga eta 323 zenbakiarekin Agustin Peñalver.

Etorriko dira garai hobeak eta horiekin batera berriz ere elkartzeko aukera. Bien bitartean, jai zoriontsuak opa dizkizuegu eta urte berriak ekar dezala zaharrean falta izan zaigun on guztia. Zaindu dezagun elkar!

# Sancti Spiritusen nondik norakoak, idatziz jasota

Lau mendetan zehar Oñatiko unibertsitatera joandako ikasleen eta herritarren arteko egunerokotasuna eta bitxikeriak ditu ardatz Jose Antonio Azpiatzuk argitaratu berri duen 'Oñatiko Sancti Spiritus unibertsitatearen historia soziala' testuliburuak

**Hasier Larrea** OÑATI

Jakina da Oñatiko Sancti Spiritus unibertsitatea Euskal Herrian irekitako lehena izan zela, 1542tik 1901era arte jaso zituela bazter ugaritako familia oneko ikasleak eta hezkuntza zentroan Zuzenbidea, Kanon Eklesiastikoak, Medikuntza eta Teologia irakasten zirela, baina baliteke jendeak ez ezagutzea nola gauzatu zen 359 urte haietan oñatiarrek kanpotik ikastera zetozen gazteekin zein irakasleekin izandako harremana. Irakurleari "interesgarri" iruditu dakizkiokeen gaiak deskribatzen saiatu da Oñatiko unibertsitateko artxiboan ordu ugari eman dituen Jose Antonio Azpiatzuk legazpiarra, *Oñatiko Sancti Spiritus unibertsitatearen historia soziala* liburua idazterakoan.

Soziologia Juridikoa irakatsi izan duen historialari horren esanetan: "Euskaldunok unibertsitatearekin daukagun zorra kitatzera dator liburua, XVI-XIX.



Azpiatzu idazlea, Artxibo Historikoan, Oñatin, aurkezpenean. MIREN URKIOLA

mendeen artean Euskal Herriko unibertsitate bakarra izan baitzen Oñatikoa".

**Eraikitzearen arrazoiak**

Gaur egungo ikuspuntutik begiratuz gero, ulergaitza egin

daiteke lehen unibertsitatea hiriburu batean eraiki ez izana pentsatzea, baina, Azpiatzuk zehaztu bezala, "garai hartako Oñatin 5.000 biztanletik gora bizi ziren, Bilbon, Donostian edo Iruñean bezain beste".

Ez hori bakarrik, zenbait pertsona garrantzitsuren bizitoki ere bazen Oñati; bertakoa zen Sancti Spiritus unibertsitatearen sustatzaile nagusia, Carlos V.a erregearen aholkulari izandako Rodrigo de Mercado Suazola. Liburuaren autoreak aipatu du erregearen aholkulariaren ustez Valladolidera, Salamancara edo Alcalara ikastera joan beharrean, "hobe" zela inguruan unibertsitate bat eraikitzea, "kanpora joateko latina ikasi behar zelako, baserritar gazteek lan egiteari utzi beharko ziotelako eta graduatzen lau eta zortzi urte artean ematea inbertsio handia zelako".

Izan ere, Gaztelako hiri batean bizitzea Oñati moduko herri batean bizitzea baino "garestiagoa" zen. Gainera, oñatiarrak prest agertu ziren hasieratik hezkuntza zentro hura eraikitzen laguntzeko. "Adibidez, herritarrek basoetako egurra mozteko borondatea erakutsi zuten; bestalde, unibertsitateak martxa hartu zuenean, herriko etxe partikularretan hartzen zuten ostatu ikasle taldeek", gogoratu du legazpiarrak.

**Familia oneko ikasleak**

Jatorri ugaritako milaka pertsona, euskaldunak, gaztelarrak, iparraldekoak, kanariarrak edota hegoamerikarrak, zetozen Oñatiko unibertsitatera, baina gehienek ezaugarri komuna zeukaten, gizonezko dirudunak

zirela. Behin ikasketak amaituta, aukera ugari zabalitzen zitzaizkien, Azpiatzuk berak nabarmendu duenez: "Batzuk estatu administrazioan hasten ziren lanean, beste batzuk elizan, eta zenbaitek Andaluziara edo Hego Ameriketara jotzen zuten, hidalgoak, jauntxoek semeak eta lizentziatuak izanda, erraztasun handiak izaten zituztela-toki haietan".

Unibertsitate kontserbadorea izanik, lehen emakumezko ikaslea ez zen XIX. mendera arte matrikulatu. Maria Antonia de Cortazar zen haren izena, bi karrera egin zituen eta alarguna zen; beraz, ikasle izan aurretik bere etxean jasotzen zituen unibertsitatean aritzen ziren gazteak, eta baliteke hortik etortzea ikasketak egiteko aukera.

**Bitxikeriak, "barra-barra"**

Azpiatzuk dio "gertaera ugari" aurkituko dituela irakurleak liburuan, "egunerokotasunarekin, jaiekin, liskarrekin, emakumeen eta gizonen arteko auziekin eta krisialdiekin loturikoak, herritarrek unibertsitatearen garapenean jokatuakako rol garrantzitsua albo batera utzi gabe".

**RODRIGO DE MERCADO SUAZOLA OÑATIARRA IZAN ZEN UNIBERTSITATEAREN SORRERAN MUGARRI**

## Gaztelekuko xake txapelketa urtarrilaren 2an jokatu da

Gabonetako egitarauaren barruan, abenduaren 27ra arte eman dezakete izena 7 eta 18 urte bitartekoek

**H.L.** OÑATI

Pandemiak ez du eragotziko Oñatiko gaztelekuan Gabonetan izan ohi den xake txapelketa jokatzeko, nahiz eta izango duen berritasunik: plaza mugatuak egongo dira; ondorioz, Oñatiko gazteei bakarrik zabaldu zaie aurten deialdia. Txapelketan Kuboko eta Topalekuko adinekoek parte hartuko dute. Urtarrilaren 2an, 17:30ean, hasiko da lehiaketa, eta abenduaren 27ra arte egongo da izena emateko aukera, 658 72 56 79 edo 943 71 82 57 telefonoetara deituta.

**Gabonetako ekintzak**

Xake txapelketa ez da Gabonetan gaztelekuan antolatuko den ekintza bakarra izango. Gaur bertan, Olentzeroren eta Mari Domingiren bila arituko dira Kuboa guneko erabiltzaileak, eta urtarrilaren 8ra arte gozatu ahalko dute filmen proiektzioez, magiaz eta *Bertsojasa* zein *Altzorraren bila* egitasmoez.

Topalekuan ere egongo da zereginek Gabonetan zehar. Zapatuan hasiko dute bertako egitaraua, herri kiroltako probei tarte eskainita.



IMANOL SORIANO

## Erakusleihorik politenei, sariak

Andrea Azkoaga Interiorista saltokiak jaso zuen Oñatiko erakusleihorik lehiaketako sari nagusia aurreko ostiralean. Bigarren saria eta herritarrena Kimu-Urtxin loradendak jaso zituen; hirugarrena, berriz, Barue Interiorismoak saltokiarentzat izan zen.

Orotara, 21 saltokik parte hartu zuten XIII. Gabonetako lehiaketan, eta 1.046 oñatiarrek eman zuten herritarren sarirako botoa. Sarituek 500, 300 eta 200 euro jaso zituzten epaimahaiaren partetik, eta beste 500 euro banatu ziren herritarren saria zela eta.

**Oihana Elortza OÑATI**

Azken urteetan gertatu den bezala, eta ohiturari jarraituz, urte barruan onartu ditu Oñatiko udalbatzak datorren urteko aurrekontuak. Abenduko ohiko osoko bilkuran onartu zuen, hain zuzen ere, 2021eko aurrekontua: 16.602.383,03 euro, azkena baino %3,53 txikiagoa, ia 608.000 euro gutxiago. EH Bilduren aldeko botoekin eta EAJ-ren abstentzioarekin onartu zen.

**Alderdi bien desadostasuna**

Udaleko kontu-hartzaileak osoko bilkura horretan emandako datuen arabera, diru-sarrereri dagokienez, transferentzia arruntaren kapitulua ia % 5 jaitsiko da, nagusiki udalen finantzaketarako foru funtsaren jaitsieragatik, aurten baino 595.000 euro gutxiago jasoko direlako Aldunditik. Gaineratu zuen aurrekontua orekatzeko 450.000 euroko mailegu berria hartzeko aukera aurreikusten dela, baina 2020ko aurrekontuen likidazioa egin ostean, akaso, ez dela horren beharrik izango. Urtero egiten duen adierazle balorazioan, berriz, aurrezki arrunt garbia positiboa izatea azpimarratu zuen, eta hori departamentu guztiek gastu-euste lan handia egin dutelako lortu dela. Udaleko zorpetze maila %5,23 izango da datorren urteko aurrekontuen arabera, aurten baino puntu eta erdi baxuagoa.

Aurrezki arrunt garbia positiboa izanda, "aurrekontu egonkorra" dela onartutakoa uste du Iزار Elorza alkateak: "COVID-19a kontuan hartu dugu eta mantendu egin ditugu behar handien dutenen eta herri eragileen laguntzak. Saiatu gara gastua murrizten inbertsioetan, batez ere; hala ere 1,2 milioi euro ditugu horretarako. Aurrekontu egokia dela uste dut. Zorpetzerik ez dugu aurreikusten, eta egonkortasuna baduela ikusten dugu".

Oposizioan dagoen alderdi jeltzalearen iritziz, baina, "egonkortasun" hori ez da horrenbestetarako. "Kezkatuta gaude egoera ekonomikoarekin. Egonkortasuna ez dago bermatuta, adierazle batzuk negatiboak dira eta. Uste dugu beharrezkoa dela finantza plan bat egitea eta dirua aurreztea herrirako estrategikoa den beste proiektu handi bat datorrenean ondo erantzuteko, kiroldegikoa izan den moduan".



Abenduaren 17an egindako osoko bilkura. O.E.

# 16,6 milioi euro Oñatik 2021ean

Azken aurrekontua baino %3,5 txikiagoa da, baina, hala ere 1,2 milioi euro egongo dira inbertsioetarako. Abenduko osoko bilkuran onartu zuen aurrekontua udalbatzak, EH Bilduren aldeko botoekin; Euzko Alderdi Jeltzalea abstenitu egin zen

**Musika eskola eta Urrutxu**

Onartutako aurrekontuetan datorren zenbatekoa nola banatuko duten azaldu zuen alkateak atalez atal. Kultura da, adibidez, Sozioekonomia eta Kirolarekin batera, igoera izango duen departamentua. Esaterako, 15.000 euro datoz hor musika eskolaren proiektua abiarazteko eta 80.000 euro bai taldeen dirulaguntzetarako bai programaziorako. Arte eta sormena oinarrian dituen *Geuretik sortuak* proiektuarekin ere bat egin du Udalak eta beste 15.000 euro gorde dituzte horretarako.

## BEHARRA DUTENEN ETA HERRI ERAGILEEN LAGUNTZAK MANTENDU EGINDU DITUZTE

Kirolean, kiroldegiko eraberritzea amaituko dute, eta igerileku eta instalazio berrien irekiera 2021ean gauzatu. Azkoagaingo irisgarritasun proiektua eta Lezesarri auzoko sarbidea egokitzea batera datoz: 165.000 euro. Sozioekonomian, berriz, merkataritza biziberritzeko plana amaitzeko daude 30.000 euro eta beste 15.000 turismokoarekin jarraitzeko. Dendetan eta ostatuetan erabiltzeko bonuendako ere gorde dituzte 30.000 euro.

Landa garapenari eta ingurumenari lotuta, Energia Iraunkorren Ekintza Plana idatziko da eta Agenda 2030 eta Deba-goiena 2030 egitasmoetarako ere partidak egongo dira. Baita Urrutxuko zabortearen zigilatzearen bigarren faseko proiektua idatzeko ere: 50.000 euro, zehazki.

Auzoko eta Ingo Xonau proiektua, euskara ikasteko laguntzak, ikastetxeetan inbertsioak egiteko eta dirulaguntzak emateko, Berdintasun Kontseilua indartzeko, LGTBIQ+ eta etxe hutsen diagnostikoak eta emakume etorkinen inguruko lanketa egiteko ere badaude diru partidak. Gizarte larrialdietarako aurten baino gehiago egongo da eta 15.000 euro daude, adibidez, erretiratuen etxeen hobekuntzarako. Hirigune historikoa eraberritzeko plan berezia ere egongo da eta HAPOak jarraitzen izango du, besteak beste.

## IGERILEKUAK ETA INSTALAZIO BERRIAK DATORREN URTEAN INAUGURATUKO DITUZTE

**Likidazioari begira**

Euzko Alderdi Jeltzalea abstenitu egin zen, baina badu esperantza aurkeztu dituzten proiektuak, aurrerago bada, egingo direla. "Musika eskola eta Urrutxu, adibidez, oso garrantzitsuak dira. Horiek sartu dituzte 2021eko aurrekontuan, eta gehiago sartzea ere gurako genuke. Horregatik, eskatzen diogu Udal Gobernuari martxoan egingo den likidazioak utziko duen gerakina inbertitzeko orduan, gurekin batera adostea non inbertitu", adierazi zuen jeltzaleen udal bozeramaileak, Ainhoa Galdosek, eta elkarlanean jarraitzeko borondatea adierazi.

EAJk hamasei emendakin aurkeztu zituen. Horien artean daude aipatutako musika eskolaren eta Urrutxuko proiektuak, landa eremuko argiteria hobetzea eta kontsumoen eta adikzioen diagnostikoa egitea, Udal Gobernuak onartutaz hartzen dituenak. Beste batzuk dira: Olakua-Olapoto auzoko irisgarritasun lanetan aurrera egitea; Azkoagaingo irisgarritasuna hobetzea; Arantzazuko komunak konponetzea; landa auzoetako argiterian Murgia eta Berezaio auzoak lehenestea; San Martingo hariztia egokitzea; ikastetxetako liburutegiak hornitzen laguntzeko diru-lerroa; kultura etxean azterketa garaian gelak zabaltzea; Kultura Saria sortzea; Oñati Euskadi Lagunkoia programara atxikitzea; Bizikidetzaren Ordenantza osatzea, parte-hartze prozesu baten bidez; baserriko produktuen salmenta digitala sustatzeko proiektua lantzea; merkataritzaren eta ostalaritzaren digitalizaziorako formakuntza programa eta tokiko merkataritzaren balioa nabarmentzeko kanpainak eta ekintzak garatzea.

Jasota zituen proiektuez aparte, beste bost martxan daudela eta ez dutela partidarik eskatzen erantzun zuen alkateak, eta bestetan euren proiektuak lehenesten zitzutela.

**Proiektuen gauzatzea**

Aurrekontuak onartuta, hor jasotakoa betetzea izango da hurrengo pausoa. Proiektu batzuk aurretik datoz eta jarraitzen izango dute. Berrien artean Udal Gobernuak ez du lehentasunik jarri, oraingoz. Izan ere, departamentu bakoitzak egingo du orain bere lanketa, eta kronograma zehaztu.

## Egingo diren egitasmoetako batzuk



**Lezesarri** auzoko sarrera hobetu eta Azkoagain egokitu: 165.000 euro. EAJk uste du Olapotoko lanak aurreratzeak garrantzi handiagoa duela.



**Garibai** auzoaren sarbidea errazteko eta Munazategiko industrialdeko sartu-irteera hobetuko lukeen biribilgunerako, 91.000 euro.



**Musika eskola** egokia eta irisgarria non eta nolakoa egin daitekeen jakiteko azterketa egingo dute: 15.000 euro.



**San Martin** auzoko ziburuak berritzeko eta jolas parkeen mantentzerako, 45.000 euro. EAJk auzo horretako zuhaitzia txukuntzea lehenetsi du.



**Gazteen** emantzipaziorako laguntzak 15.000 euroko igoera izan du, eskatzaileen adin muga 18-35era zabaldu dutelako: 63.500 euro, guztira.



**Antzerki eta musika** programaziorako 80.000 euro bideratuko dituzte. Kultur taldeen dirulaguntza deialdian beste horrenbeste euro daude.

## Departamentu bakoitzaren aurrekontua

Sailaren izena	2020	2021	ALDEA %
Komunikazioa eta Parte Hartzea	544.899,20€	512.020,00€	-%6,03
Gizarte Zerbitzuak	1.721.648,98€	1.698.884,90€	-%1,32
Kirola	1.080.618,55€	1.090.425,17€	%0,91
Kultura	1.216.113,18€	1.225.401,62€	%0,76
Barne Antolaketa	6.909.022,76€	6.719.831,55€	-%2,74
Sozioekonomia	549.966,08€	558.033,89€	%1,47
Lurralde Antolaketa	4.044.463,70€	3.692.296,90€	-%8,71
Aisialdi Hezitzailea	1.143.616,66€	1.105.489,00€	-%3,33
<b>GUZTIRA</b>	<b>17.210.349,11€</b>	<b>16.602.383,03€</b>	<b>-%3,53</b>

ITURRIA: OÑATIKO UDALA



Espaloi zatia zabaltzeko lanetan. A.T.

## Berezaora doan bideko espaloi zati bat egiten hasi dira

1,5 metro zabal izango da, eta oinezkoen segurtasuna bermatu gura dute, zirkulazioari oztoporik jarri barik

**O.E. OÑATI**

Arantzazuko Ama kaletik Berezaora auzora doan errepideko espaloi zati bat egiten hasi dira egun hauetan, Natra enpresaren parean; Ceur enpresa izandakoaren pareko zatia. Izan ere, zati hori da arriskuen azterketak antzemandako puntuetako bat. Batetik, industrialde baten hasieran egonik, zirkulazio handiko zatia da; ibilgailu asko, gainera, tamaina handikoak izaten dira. Eta, bestetik, paseo bideko zati ere bada, eta herritar asko pasatzen dira egunero bertatik paseora joateko, adibi-

dez, Berezaoko eta inguruko auzotarren erabilpenaz gain.

Kaletik auzorako norabidean, errepidearen ezker aldeko espaloi zatia da; 1,50 metro zabal izango da. Altuera baxuko zintarria duen hormigoizko espaloia da eta seinaleak jartzea eta errepidea gurutzatzeko zebra-bidea margotzea falta da. Lanak hasi aurretik, baina, probak egin dituzte. Hainbat astean estutu egin zuten errepidea, eta zirkulazioaren joan-etorrian ze eragin zuen ikusi. Proba horietan oinarrituta hasi dituzte lanak, eta urtarrilean bukatuko dira.



NIRE USTEZ

HORAZIO ARGARATE

## Herri guztiarentzat

*Demos* Grezieratik hartutako mailegua daukagu. Sustraian, *barrutia* esan nahi du, barrutian bizi direnak aipatzen ditu, eta esanahian, *herria* bezala erabiltzen da, bai kokaguneak edo toponimia azaltzeko bai giza elkarteak adierazteko. Horretatik, *demokrazia-k herriaren ahalmena eta agintea* esan nahiko du; eta abar. *Pandemia* hitzak ere *demos* esangura darama, eta, *pan-denok, guztiak* aurrekaria ipinita, *herri guztientzat* esan nahi du. Pena handia da mundu mailan "herri guztiak" esaten dugunean gaitza, gaixotasuna, eta sufrimendua adierazten dugula. Eguberrietan, bihotzez osasuna, justizia eta bakea mundu guztiari opa diogunean, nabarmen gelditzen da desgraziak unibertsaltasun gehiago sortzen digula, onerako diren ideiak eta ekintzak baino. Jesusen jaiotza ospatzen dugun egun hauetan gogora ekartzen dizuet San Lukasek Belengo herrian zerutik hartutako mezua: "Ez izan beldurrik; begira, poz handi baten berri ona dakarkizuet, herri guztiarentzat izango dena: salbatzaile bat jaio zaizue gaur Dabiden herrian: Mesias Jauna". Eguberri zoriontsuak den-deno!



Kuadrilla gazte bat, iazko San Silvestre Trail lasterketan, Bergaran, San Martin plazako helmuga gurutzatzeko metro gutxiren faltan. GOIENA

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Gauzak asko aldatzen ez badira –okerrera–, urteko azken egunean kirola egiteko aukera izango dute herritarrek, baina ez dortsala jantzeko. Bakoitzak bere kontura egin beharko du izerdia. Izan ere, abenduaren 9ko dekretuak debekatu egiten zuen Gabonei begira jendetza batu ditzakeen kirol hitzorduak antolatzea, eta adibide moduan jantzen zituen, bereziki, San Silvestre probak.

Hain zuzen, azken urteotako fenomenoia izan da garai bateko Oñatiko eta Eskoriatzako San Silvestre *tradizionalen* ondotik beste asko jaio direla: Aretxabaletan, Bergaran mendi lasterketa formatuan eta Arrasaten –Musakolan–, esaterako. Hala, iazko lasterketako parte-hartze guztiak batuta, Debagoienean 1.000 herritarrek baino gehiagok dortsalen bat jantzita agurtu zuten urtea.

**Zalantza gutxi izan dute**

Bergarako San Silvestre Trail lasterketak urtero-urtero bete du izen ematea, azken hamarkadan mendi lasterketek izan duten *boom*-ari jarraituta. Eta, uda partean Hankaluze taldeko kideak lasterketaren gainean berba egiten hasi zirenean, nahiko garbi zeukaten denek ere aurtengoa ez zutela antolatuko. "Baten batek aipatu zuen ea antolatze moduan egongo ginen ala ez, baina nahiko azkar baztertu genuen aukera. Ordu-

# Urteari agur, San Silvestre barik

**ATLETISMOA** Azken urteotan, jendetzak agurtu izan du urtea Debagoieneko herrietan egiten dituzten hamaika krosetan esku hartuz. Abenduaren 9ko Jaurilaritzaren dekretuak, baina, bereziki lasterketa hori aipatu zuen debekuen artean

rako ikusten zen beste lasterketa askorekin zer gertatzen zebilen, eta lasterketak antolatzen bizi direnek, akaso, egin dute ahalegin handiagoa, baina gu lagun talde bat gara; herrian abenduaren 31n saltsa apur bat jartzeko eta jendeak urtea kirola eginez amaitzeko hasi ginen hau antolatzen, baina ez dugu aparteko beste helbururik, eta garbi geneukan gutxi geneukala irabazteko, eta dena galtzeko. Udalarekin gaiaz berba egitera ere ez ginen iritsi", dio Josu Letek.

Bergarakoak bertatik bertara ikusi ahal izan du aurten zenbat

**ABENDUAREN 9KO DEKRETUAK ZEHAZTEN ZUEN EZIN DELA SAN SILVESTRE PROBARIK ANTOLATU**

lasterketa geratu diren bertan behera, Lete bera mendi lasterketetan parte hartzen ibiltzen da eta. "Bai, antolatzaile batzuk datorren urtean ilusio eta gogo handiagoz itzuliko dira lasterketak antolatzera, baina beste batzuk desagertzeko bidean utziko ditu COVID-19ak. Egia da, baita ere, egutegia nahiko saturatuta zegoela. Gure lasterketaren kasuan, urtez urte hausnartzen dugu datorren urtean osterera ere antolatuko dugun ala ez, eta 2021ean ere gauza bera egingo dugu: gure artean berba egin eta jendea gogotsu badago, egingo da lasterketa".

**"Jendea batzea da helburua"**

Aipatu moduan, azken urteotan ia herri guztietan antolatu izan dituzte urteko azken egunean krosak, baina Eskoriatzan egiten duten Manuel Muñozen omenezkoan –korrika egin au-

rretik brindisa egiten dute– eta Oñatin San Silvestre lasterketak oso errotuta daude. Eta, zalantza barik, Oñatikoa da parte-hartzeari dagokionez kuadrilla handiena batu izan duena, 400 lagun inguru urtero. "Hasiara batean, San Silvestre birtuala egitea ere pasatu zitzaigun burutik, beste lasterketa entzutetsu batzuek egin izan dute hori, baina berehala baztertu genuen ideia hori, eta erabaki genuen aurten ez egitea ezer", dio Antxintxiketaneko Asier Osinagak. "Izan ere, gure lasterketan jende pilaketak ezin dira saihestu.

**IAZ, IBARREAN, MILA LAGUN INGURUK AGURTU ZUTEN URTEA SAN SILVESTRE PROBAK EGINDA**


**Aurretik ere baztertua zuten egitea:**



**JOSU LETE**

HANKALUZE TRAIL-EKO KIDEA

"Uda aurretik ikusten genuen aurtengoa antolatzea ez zela posible izango; gutxi geneukan irabazteko, eta asko galtzeko. Izan ere, lasterketaren azken metroetan jendetza batzen da urtero. Ikusiko dugu datorren urtean zer egin".



**ASIER OSINAGA**

ANTXINTXIKETAN-EKO KIDEA

"Oñatiko San Silvestre probaren esentziaren kontra joango litzateke antolatzea. Jendea batzen da aurretik lagun artean kafea hartzeko, kuadrillek elkarrekin egiten dute korrika... Gainera, dena herriko kaleetan egiten da, ez du zentzurik".

Hasteko, izen ematea egunean bertan egiten da, ez Internetez. Hor jendea batzen da, eta lasterketaren helburua kuadrillak batzea da, lasterketa lagunartean egitea. Jendeak korrika egin aurretik kafea elkarrekin hartzen du... Eta zirkuitua ere herri barruan dago, Oñatiko kaleetan zehar egiten dute korrika. Horrenbestez, korrikalarien osasuna bakarrik ez, ikusleena ere kontuan hartu behar da. Horrenbestez, debekuak ez digu askorik eragin, ez genuen antolatze asmorik".

# Baldintza gogorretan entrenatu ostean, urrea

**AEROBIKA** Espainiako txapeldunak dira Arrasate Dragoi Taldeko Nahia Irazola, Izaskun Garcia eta Uxue Azkuen. Elena Lanuzak zuzentzen duen hirukoak pandemia egoerara egokitu behar izan ditu entrenamendu saioak, baina merezi izan du ahaleginak

## X.U. ARRASATE

Arrasate Dragoi taldeko ordezkari Eurne Elkorok aitortu du Elena Lanuza entrenatzaileak entrenamendu saioetako irudiak erakusten zizkionean sinistu ezinda geratzen zela. "Maskarekin egiten zituzten entrenamendu saio guztiak, eta ariketak amaitzerakoan bakoitza punta batera joaten zen. Aerobika, azken batean, kontaktuzko kirola da, eta Espainiako Txapelketara joateko erabakia hartu zutenean garbi egin zuten denek berba: babes neurri guztiak errespetatuta egin behar zuten lan, eta kantxatik kanpora ere zaindu egingo ziren kon-



Arrasateko hirukoa, Valentzian, urrezko dominarekin. ARRASATE DRAGOI

promisoa hartu zuten. Baldintza oso gogorretan lortutako urrezko domina izan da hau", dio Elkorok.

Txapelketa Valentzian egin zuten, joan den zapatuan, baina, berez, maiatzean egin behar zuten hitzordu hori, Gasteizen. "Martxoko konfinamenduak Frantzian harrapatu zuen hirukoa, Lyonen, nazioarteko txapelketa batean esku hartzen. "Koreografia harako prestatuta zeukaten, eta Espainiako Txapelketara koreografia berberarekin joan ziren, ez dute izan berri bat prestatzeko astirik, eta ez zuen zentzurik, gainera". Izan ere, hilabete hauetan guztietan gorabehera handiak izan dituzte, entrenamenduak hasi, ondoren geratu... "Ez da batere erraza izan baldintza horietan Espainiako Txapelketa prestatzea. Lehenago ere prestatzen ibilita zeuden, baina hilabeteko lana baliatu dute Valentziara ondo prestatuta joateko".

## Aerobika eta gimnasia, biak

Arrasate Dragoi gimnasia taldean bi kirol modalitateak bateratzen saiatzen dira, lehentasuna gim-

nasia erritmikoak baldin badauka ere: "Hiruko hau, esaterako, gazte-gaztetatik hasi zen erritmikoarekin batera aerobika egiten, eta oso barneratuta ditzute bi modalitateak. Gainera, aerobikak Espainiako Txapelketa moduko hitzordu handi batera joateko aukera ematen die, eta guk animatu egiten ditugu horretara, inongo kirol helburu konkretu barik, esperimentiarekin goza dezatela".

Arrasatekoak, baina, poliki-poliki erreferente bilakatzen dabilta; izan ere, ez da lehenengo aldia urrezko domina irabazten dutena: "Nahia Irazolak eta Izaskun Garciak irabazi izan dute bikoteka Espainiako Txapelketa lehenago ere. Eta sekulako meritua dute, beste gimnasta askok aerobika baino ez dutelako egiten, eta hauek bi modalitateak bateratzen dituzte. Dena dela, Valentzian gureak ez ziren faboritoak: Gasteizko Biribildu taldea, Gaztelako Vertical Split... Baziren oso talde onak, baina egia da beste txapelketarik egon ez denez inork ez zuela erreferentzia garbirik, eta hauek bikain ibili ziren".



## 'ETERNAL LIGHT' KONTZERTUA ZUZENEAN

GOIENA TELEBISTA

ABENDUAREN 27AN, DOMEKAN, 19:00ETAN

OÑATIKO PARROKIAN GANBARA ABESBATZAK ESKAINITAKO KONTZERTUA

goiena  
20 URTE ZUEKIN.

# Jokin Zaitegi sariketako liburuak, argitaratuta

Kaleratu dituzte jada liburuak euskaratuta iaz Nobel saridunen lanak itzultzeko beka jaso zutenek: Amaia Apaluzak, Sonia Kolaczek eta Joxe Mari Berasategik, hain zuzen ere. Aurtengo sariketara aurkezteko epea, berriz, domekan amaitu zen

**Karmele Uribesalgo** ARRASATE

Literaturako Nobel saridunen liburuak itzultzea du oinarri Jokin Zaitegi sariketak. AED elkarteak antolatzen du lehiaketa hori, Elkar argitaletxearekin lankidetzan eta Arrasateko Udalaren eta Laboral Kutxaren laguntzarekin. Aurkezten direnek testuaren lagin bat itzuli ohi dute, eta epaimahaiaren ustez onena denak urtebeteko epea izaten du liburua euskaratu eta argitaratzeko.

Joan den urtean bi beka eman zituzten, eta, ondorioz, bi liburu argitaratu dituzte aurtun. Joxe Mari Berasategik alemanetik itzuli du Peter Handke idazlearen *Atezainaren larria penalti-jaurtiketan*. "Atezaina izan zen gizon baten abenturak kontatzen ditu liburuak, buru obsesionatu samar baten ikuspegitik", azaldu du Berasategik.

Amaia Apaluzak eta Sonia Kolaczek, berriz, Olga Tokarczukek polonieraz idatzitako *Erabili goldea hilen hezurren gainetik* liburua euskaratu dute. Polonia eta Txekiar Errepublikaren mugan bizi zen emakume baten istorioa kontatzen du eleberriak. Herritarrak hiltzen hasten dira inguru horretan, eta emakumeak hilketak ikerzeko erabakia hartzen du. "Ele-



lax emandako bekekin argitaratutako bi liburuak. GOIENA

berri beltzaren ezaugarriak ditu, baina hori baino askoz gehiago da, gai sakonagoak planteatzen dituelako; hiri girotik aparte sortzen diren harremanak lantzen ditu, esaterako", azaldu du Apaluzak.

Elkar argitaletxeak argitaratu ditu liburuak, eta salgai daude jada biak ala biak. Xabier Mendiguren Elkar argitaletxeko editoreak adierazi du "gustura" gelditu direla itzulpenekin: "Liburuak bikainak dira, eta itzulpenak ere oso onak dira, erraz irakurtzekoak".

**Aurtun, hautagai asko**

Domekan amaitu zen aurtengo sariketara aurkezteko epea. Louise Glück poeta estatubatuarren *The Wild Iris* liburua da itzuli beharrekoa. Mendigurenek azaldu du lan "asko" jaso dituztela, 29, hain zuzen ere, eta pozik daude izandako erantzunarekin. "Proposamen dezente jasotea espero genuen, errazgoa baita ingelesetik itzultzea, baina lan ugari iritsi zaizkigu", azpimarratu du. Urtarrila amaitu baino lehen emango dute jakitera irabazlearen izena.



MARTIN ROQUE

## "Lehiaketa hau opari txiki bat da"

**AMAIA APALUZA**  
IAZKO IRABAZLEA

**Nola izan da Sonia Kolaczek-ekin elkarlanean aritzea?**

Gutziz aberasgarria izan da. Nik zubi hizkuntza bidez egin dut itzulpena, ingelesezko eta gaztelaniazko bertsoiak erabiliz, eta Soniak, polonierazkoari begira, findu egin du nik egindako itzulpena.

**Ez da lehiaketa honetara aurkezten zaren lehen aldia. Gainera, duela bi urte ere saria jaso zenuen.**

Aukera izan dut beste liburu bat itzultzeko Jokin Zaitegi lehiaketari esker. Horrelako sariketak beharrezkoak dira literatura itzultzeko. Ez dugu horretarako aukera handirik izaten, eta, are gutxiago, ongi ordainduta. Lehiaketa hau opari txiki bat da literatura itzultzea maite dugunontzat.



J.M.B.

## "Plataforma interesgarria da Zaitegi"

**JOXE MARI BERASATEGI**  
IAZKO IRABAZLEA

**Nolakoa da Nobel saridun baten lana itzultzea?**

Gozamen hutsa izan da. Hala ere, ez da ipuin erraza. Idazleak daukan estiloa oso landua da. Gauza berezi samarrak egiten ditu hizkuntzarekin, hitz jokoak erabiltzen ditu, adibidez, eta hainbat komeria sortu dizkidate.

**Gustura zaude egindako lanarekin?**

Oso pozik gelditu nintzen. Espero dut irakurleek nik gozatu dudana adina disfrutatzea.

**Zer iruditzen zaizu Jokin Zaitegi sariketa?**

Plataforma interesgarria da, urtero Nobela jaso duen lan bat euskaldunon eskura jartzea mesedegarria baita. Ondo dago nazioarteko literatura erdararen bidez ezagutu beharrean euskaraz ezagutzea.

## ELKARRIZKETTAP

GOIENA TELEBISTA

ABENDUAREN 23AN, EGUAZTENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

MIREN DOBARAN, EUSKO JAURLARITZAKO HIZKUNTZA SAILBURUORDEA

goiena  
20 URTE ZUENIN.





# "Koru profesionalak gutxi dira Espainian"

ESTEBAN URTZELAI ABESBATZA ZUZENDARIA

Espainiako Koru Nazionala da horietako bat, eta zuzendariorde izateko aukeratu dute. Oviedoko Operaren abesbatzaren zuzendari ari da uztailetik; otsailean doa Madrilerara

**Julen Iriondo OÑATI**

Oviedon lanean jarraitzen du oraindik zuzendari oñatiarrak. Eten txikiren bat eduki dute, baina funtzio guztiak egiteko aukera izan dute, oraingoz. Lan berria 2024ko irailera artekoa izango du; hasiera batean, behintzat. "Pozik eta ilusioz" hartu du, "ikasten jarraitzeko". Dio iristen ari den tokietara iristen ari bada, hasieretan Oñatin berearekin kantatu zuten haiei esker dela, neurri handi batean. **Espainiako Abesbatza Nazionaleko zuzendariordearena postu garrantzitsua izango da...**

Espainia mailan, koru profesionalak, abeslari profesionalak osatutako koruak, esku batekin zenbatu daitezke. Operako koru batzuk daude –Madrilen pare bat, Valentzian, Bartzelonan...–, baina, bestela, koru sinfoniko profesionalak ez daude; RTVE-koa eta hau izango lirarteke barretakoak. Beraz, esan genezake abeslari profesionalen helburua izaten dela halako abesbatza batean abestea. Eta, bai, ni bertako talde teknikoan sartuko naiz, zuzendariorde.

**Eta zuzendariorde figuraren funtzioa zein da?**

Zuzendariari laguntzea: taldekako entseguak egiten direnean; ahots batekin zerbait landu behar



Esteban Urtelai. AEDCORO

denean... Edo egunen baten berak ezin duenean bere lana jarraitzea eta taldea aurrera eramatea ere izan daitezke.

**Ze aldaketa ekarriko ditu zuzendari postu berriak?**

Erritmo profesional batean sartzea ekarriko du. Koru horrek egunero entseatzeko du; bi astean behin kontzertu ziklo bat egoten da; horrez gain, aparteko kontzertuak ere izaten dira...

**Nolakoa izan da hautaketa prozesua?**

Zehazki, ez dakit zenbat jende aurkeztu ginen. Badakit hasieran curriculumen aukeraketa bat

egon zela, eta martxoaren hasieran egin genuen lehen proba 30 pasatxo aurkeztu ginen; handik bigarren proba batera bost pasatu ginen, eta azaro bukaeran egindako proban ni aukeratu ninduten.

**Zer moduz zaude Oviedon?**

Bada, oso ondo, egia esan. Oso lan intentsua izan da; koru zuzendari izateaz gain, orkestra zuzendariaren laguntzaile ere ibili naiz, eta, beraz, egun batzuetan bederatzihamar orduko entsegu egunak izaten ziren, baina pila bat ikasi dut. Balio izan dit lehenengo esperientzia moduan, etxetik kanpora egoteko, aspaldiko partez bakarrik bizitzen eta beste mundu baten sartuz. Eta musikalki oso aberasgarria izan da.

**Nolakoa izaten ari da urte berezi hau zuen alorrean?**

Zaila izaten ari da; aurrera egin nahi, baina traba askorekin. Koru batzuek entseatzeko baimena izateko zortea dute, baina publiko kopuruaren mugak, herritik irteteko mugak... Oso zaila da. Erronka handia izango da berriz ere mugimendu hori lortzea –koruetan abesten duten pertsonak askotan nagusiak dira–; jendea abesbatzetara itzultzea; publikoa itzultzea... Lan handia ekarriko du.

## Amodiozko gutunen eta esaldien lehiaketak, martxan

2021eko urtarrilaren 6a da Jardunen gutunak jasotzeko azken eguna, eta 15a, berriz, esaldietarako epemuga

**J.I. BERGARA**

29. aldia izango du Bergarako Jardun euskara elkartearen Amodiozko Gutunen Lehiaketak, eta bosgarrena esaldienak.

Gutunen lehiaketan 2006an edo aurretik jaiotako edozein

pertsonak parte hartu ahalko du. Lanek jatorrizkoak, argitaragabeak eta euskaraz izan beharko dute; gehienez, hamar gutun aurkez daitezke, baita aurreko urteetan sarituak izan ez direnak ere. Lanen luzera bi

orrialdekoa izango da, gehienez. Lehen sarituak 500 euroko saria eskuratuko du, eta 250ekoa bigarrenak. Bergarar onenak eta 26 urtez azpiko onenak 150 euro jasoko ditu. Pertsona berak ezin du sari bat baino gehiago eskuratu.

Esaldien lehiaketan edonork parte hartu ahalko du. Nahi beste esaldi aurkez daitezke. Amodiozko esaldi onenarentzako saria 100 euro izango dira. Lanak bidaltzeko moduak eta informazioa, [jardun.eus-en](http://jardun.eus-en).

Goiena Klubaren txokoa

**Goiena Klubeko abenduko sariak!**



**Sarrerak**  
Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.  
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz

**ARRIKRUTZ**  
ONATIKO KOBAK



**Otarrea**  
Bidezko merkataritzako produktuak.  
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

[www.harrmandenda.org](http://www.harrmandenda.org)  
Bidezko Merkataritzako produktuak

**PARTE HARTZEKO:**

Posta elektronikoz: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus) Whatsapp: KLUBA "sartzen ari gara" (buzildaren zambakia) 688 69 00 07 zenbakia. Parte-hartzaileen artean egingo da zuzenki.

Indarredun LDU 1/1999 egon ezbera, jabearen izenarekin, eta datu pertsonal Goiena Foruaketa Zerbitzuen Iturriaren artikuluetan sartutakoak. Ote-biletak berriz ere, baina dirubonordigonekuz gertatzen. Eskubideak gogoratu behar dira, lehen zuzentze edozein bako, helbide berria bidaltze bidez gogoratu.

Puntu aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkidetza urteko kuota 57€  
Deitu: 943 25 05 05  
[kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

**goienakluba**  
Euskara irabazite, denek irabazite!

## IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

## 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Familia batek etxebizitza behar du errentan, gutxienez hiru logelako. 642 03 54 33

**Bergara.** Etxebizitza behar dugu errentan, urgente. 690 75 61 18 (Mari Carmen)

## 4. LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Emakume bat zaintzeko.** Aramaio baserri baten, emakume bat zaintzeko zaintzailea behar da. Barne langile bezala lan egiteko. Legezko agiriak eta soziosanitario titulazioa beharrezkoak dira. 653 70 83 56

## Ordenagailuz idatzi.

Liburu bat eskuz idatzi dut eta ordenagailuz idatziko didan norbaiten bila nabil, Bergaran. 688 66 38 54

## 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Umeak zaintzeko prest nago. Telefonoa: 688 76 12 18

## Bergara eta inguruak.

Bergarako neska eskalduna, Haur Hezkuntzako goi mailako zikloarekin eta Haur Hezkuntzako gradua egiten, haurrak zaindu edota etxeko lanetan laguntza emateko

gertu. Haurrak zaintzen esperientzia daukat. Astehelena, asteazken eta ostiralak 14:00tik aurrera. Asteartetan eta ostegunetan 14:00-17:00ak arte. Aste bukaeretan eta jai egunetan ere prest. 634 85 42 11 (Andrea)

**Bergara.** Garbiketa lanetan aritzeko prest nago: etxeak, bulegoak eta abar. Baita pertsona nagusiak edota umeak zaintzeko ere. 610 34 97 88

**Bergara.** Soziosanitario titulua daukat eta arratsaldez edota asteburutan lan egingo nuke pertsona nagusiak zaintzen. Telefonoa: 656 74 78 43

**Debagoiena.** Arratsaldetan, asteburuetan edo jai egunetan lan egingo nuke. Nagusiak zaintzeko eta estetika alorreko titulazioak daukat. Autoarekin. 631 98 15 50

**Debagoiena.** Neska arduratsua eta legezko agiriak dituena, gertu orduka zein asteburuetan lan egiteko. Pertsona nagusiak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko. 666 07 42 98 (Claudia)

**Debagoiena.** Pertsona arduratsua gertu umeak eta nagusiak zaintzeko, zerbitzari lanetarako edota garbiketarako egiteko.

Autoa daukat. Telefonoa: 648 92 02 49

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzen eta garbiketa lanetan esperientzia handia duen emakumea naiz. Lan egiteko prest nago. Telefonoa: 637 79 31 92

**Elgeta eta inguruak**  
Emakume arduratsua gertu etxeko lanetarako, nagusien eta umeen zaintzarako, atari garbiketarako eta abar. Telefonoa: 659 03 56 12

**Umeak zaindu Bergaran.** Bergarako neska gazte euskalduna goizetan haurrak zaindu edo eskolara eramateko prest. Deitu edo Whatsapp bidez idatzi: 663 70 01 15

## 6. MOTORRA

## 602. EROSI

**Land Rover bila nabil.** Land Rover Defenderra behar dut baserriko. Berdin dio zein egoeratan dagoen: IAT gabe, matxurata, kolpearekin. Telefonoa: 623 17 95 37

## 7. ANIMALIAK

## 703. EMAN

**Arrasate** Hiru hilabete dituen katakumea ematen da opari. 642 72 69 10

## ZORION AGURRAK



**ANTZUOLA**  
**Pello Gabilondo Olaortua**  
Urtarrilaren 7an, 9 urte. Zorionak, Pello! Aitzolen eta etxeko guztien partetik. Ondo ospatu eta muxu handi bat.




**OÑATI**  
**Peru Azkoitia Pata**  
Abenduaren 29an, 2 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo potolo bat.



**BERGARA**  
**Maia Barrenetxea Gabra**  
Abenduaren 27an, 3 urte. Zorionak gure etxeko sorgintxo txikixari! Hiru urte! Jarraitu beti bezela, zure irribarre politx horrekin ahoan, maitxia! Egun politx-politxa pasatu, etxeko guztien, eta bereziki, Unaxen partetik!



**ESKORRIATZA**  
**Estitxu Azpitarte Rejado**  
Abenduaren 24an, 39 urte. Zorionak, Estitxu. Super ondo pasatu egun berezi hau. Maite zaitugunon partetik.



**ANTZUOLA**  
**Julen Zabalo Azurmendi**  
Abenduaren 19an, 6 urte. Zorionak, txipiron! Etxeko danon partetik, ondo pasatu zure eguna!




**BERGARA**  
**Maialen Goikoetxea Blanco**  
Urtarrilaren 2an, 7 urte. Zorionak, printzes! Egun politxa pasatu eta edereto ospatu! Patxo handi bat, familia osoaren partetik.



**ESKORRIATZA**  
**Iztia Garayurrebaso Etxebarria**  
Abenduaren 29an, 62 urte. Zorionak, amama. Ondo-ondo pasatu egun berezi hau. Patxo pila bat, maite zaitugunon partetik.



**BERGARA**  
**Aitor Beistegi Frias**  
Abenduaren 23an, 8 urte. Azkenean heldu da, abenduaren 23a! Disfrutatu zure zortzi urteak lagun eta familia giroan. Muxu handi bat, maite zaitugunon partetik.



**ARRASATE**  
**Soledad Gonzalez Hernandez**  
Abenduaren 18an, 64 urte. Zorionak, amama! Disfrutatu zure eguna. Hodeiren eta etxekoan partetik! Muxu erraldoi bat.



**ARRASATE**  
**Ariane Reyes Hernandez**  
Abenduaren 17an, 4 urte. Zorionak, sorgina! Muxu asko 'Distrito 33'-ko bizilagunen partetik. Bereziki, zure aiton-amonak Mari eta Enrique.



**BERGARA**  
**Marisa Escobar Miranda**  
Abenduaren 31n, 60 urte. Zorionak, amama! Zenbaki borobila aurtengo. Besarkada eta muxu erraldoi bat, Kenarren eta Alaineren partetik. Maite zaitugu.



**BERGARA**  
**Eneko Pozo**  
Abenduaren 29an, 11 urte. Zorionak etxekoan partetik. Muxu handi bat, txapeldun!



**BERGARA**  
**Alaia Garcia de Andoin Igartua**  
Abenduaren 25ean, 3 urte. Zorionak, txikixari! Hiru urtetxo! Patxo erraldoi bat, etxeko danon partetik! Asko maite zaitugu!



**OÑATI**  
**Izar Diaz Agirregabiria**  
Abenduaren 20an, 8 urte. Zorionak, Izar, zortzi urte! Ondo pasatu eguna eta disfrutat! Familia danaren partetik, patxo handi bat.



**ARRASATE**  
**Soledad Gonzalez Hernandez**  
Abenduaren 18an, 64 urte. Zorionak, amama! Disfrutatu zure eguna. Hodeiren eta etxekoan partetik! Muxu erraldoi bat.

## OROIGARRIA

## Miren Arrate Zurutuza Lazkano



